

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

10565 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta Nik berretsi egiten dudala.

I

Herritarrek administrazio publikoaren jarduketaren aurrean dituzten eskubideen esparru juridikoa babesten duten tresnetan, batzuk erreaktiboak dira, eta haien artean aipagarrienak administrazioarekiko errekurtsioen sistema eta epaile eta auzitegien kontrol-lana; beste batzuk, berriz, prebentiboak dira, administrazio-prozedura erkidearen bitartezkoak, zeinak argi erakusten baitu Administrazio Publikoak osotara legearen eta zuzenbidearen mende jarduten duela, Konstituzioaren 103. artikulua dioen bezala.

Administrazio Publikoak Erreformatzeko Batzordeak 2013ko ekainean prestatutako txostena uste sendo batetik abiatzen da: ekonomia lehiakor baterako, beharrezkoa da administrazio publikoak efizienteak, gardenak eta bizkorrak izatea.

Ildo berean, 2014an Espainian egiteko erreformen Programa nazionalak espresuki jasoa du administrazio-lege berriak egin beharra, botere betearazleko erakunde eta entitateen jarduketa arrazionalizatzeko, baliabide publikoak efizientzia handiagoz erabiltzeko eta haien produktibitatea handitzeko bultzatu beharreko neurrien artean.

Espainiako administrazioei tradizioz leporatu izan zaizkien akatsak arrazoi bati baino gehiagori zor zaizkio, baina indarrean den ordenamenduak ere badu zerikusirik, zeren eta jarduketa publikoaren araugintza-esparruak bikoiztasunak eta efizientziarik ezak agertzea eragin baitu, administrazio-prozedura sobera konplexuak direla tarteko, zeinek segurtasun juridikorik ezaren arazoak ere sortu baitituzte zenbaitetan. Gabezia horiek gainditzeko, erreforma integral eta estruktural bat behar da, aukera emango duena ordenatzeko eta argitzeko nola antolatzen eta harremanetan jartzen diren administrazioak, bai kanpora begira, herritarrekin eta enprekin, bai barrura begira, Estatuko gainerako administrazio eta erakundeekin.

Testuinguru horrekin koherente izanez, ordenamendu juridiko publikoaren erreforma bat proposatzen da, oinarritzko bi ardatzetan artikulatua: administrazio publikoaren *ad extra* eta *ad intra* harremanak. Horretarako, bi lege berri bultzatu dira aldi berean, Espainiako Administrazio Zuzenbidearen zutabe izatekoak: Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea.

Lege hau da bi ardatz horietako bat, osoki eta sistematikoki arautzen baititu administrazioen eta administratuen arteko *ad extra* harremanak, bai autobabes-ahala baliatzeari dagokionez, haren indarrez ematen baitira interesdunen esparru juridikoan eragin zuzena duten administrazio-egintzak, bai erregelamenduak egiteko ahala eta legegintza-ekimena baliatzeari dagokionez. Horrela, lege-gorputz bakarrean bildurik gelditzen da administrazioek herritarrekin *ad extra* dituzten harremanen erregulazioa, erreferentziarako administrazio-lege gisa, aurrekontu-araudian aurreikusten den guztiarekin osatzeko; bereziki aipatzekoa da Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean, eta Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean aurreikusitakoa.

II

Konstituzioak jasotzen du, IV. tituluari, «Gobernua eta Administrazioa» izenburupean, zer ezaugarri bereizten dituzten nazioko Gobernua eta Administrazioa. Lehenengo organo nagusiki politiko gisa definitzen du, zeinari gordetzen baitzaio gobernatzeko eginkizuna, erregelamenduak egiteko ahala baliatzea eta Administrazioa zuzentzea, eta bigarrena Gobernuaren zuzendaritzaren mende dagoela ezartzen du.

Aipatutako konstituzio-tituluan, 103. artikulua ezartzen du zer printzipioak gidatu behar duten administrazio publikoen jarduketak, haien artean nabarmentzen direla efikazia eta legezotasuna, agintzen baitu administrazio-jarduketak erabat legearen eta zuzenbidearen mende egon behar duela. Printzipio horiek prozeduran gauzatu dira. Prozedura, berriz, bide formal batzuk dira, zeinek bermatu behar baitute oreka egoki bat gorde dadila administrazio-jarduketaren efikaziaren eta herritarren eta enpresen eskubideen babes ezinbestekoaren artean, eskubideok oinarritzko berdintasun-kondizioetan baliatu behar baitira lurraldeko edozein lekutan, edozein administrazioarekin daudela ere harremanetan haien titularrak.

Administrazioen *ad extra* jarduketak horiek espresuki aipatuak daude Konstituzioaren 105. artikuluan, esaten baitu legeak arautuko duela herritarren entzunaldia, zuzenean edo legeak aitortutako antolakunde eta elkarten bidez, eragiten dieten administrazio-xedapenak egiteko prozeduran, eta orobat administrazio-egintzek segitu beharreko prozedura, hala dagokionean interesdunei entzunaldia emango zaiela bermatuz.

Horretaz gainera, Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikulua Estatuari esleitzen dio, beste zenbait gairen artean, administrazio-prozedura erkidea arautzeko eskumena, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoen berezko antolamendutik datozen berezitasunak, eta halaber administrazio publiko guztien erantzukizun-sistema.

Deskribatutako konstituzio-esparruarekin bat etorritik, lege honek arautzen du zer eskubide eta gutxieneko berme dituzten herritar guztiek administrazio-jarduerari dagokionez, bai autobabes-ahala baliatzearen aldetik, bai erregelamenduak egiteko ahalaren eta legegintza-ekimenaren aldetik.

Administrazio-prozedurari dagokionez, halakotzat harturik administrazio-egintza bat emateko edo Administrazioaren borondatea adierazteko formalki egindako izapide eta jarduketan multzo ordenatua, erregulazio berri honekin ez dira agortzen Estatuak eta autonomia-erkidegoek *ratione materiae* berezitasunak ezartzeko dituzten eskumenak edo zenbait alderdi zehazteko dituztenak, hala nola ebatzeko eskumena duen organoa; administrazio-prozeduraren erkide-izaera, aitzitik, administrazio publiko guztiei eta jarduera guztietarako aplikatzen dator. Hala aitortu izan du Konstituzio Auzitegiak bere jurisprudentzian, adierazi baitu Estatuak administrazio-prozedura erkidea arautzeak ez duela eragozten autonomia-erkidegoek zuzenbide substantiboa aplikatzeko behar dituzten prozedura-arauak ematea, betiere errespetatzen badira Estatuaren eskumen eskusibo izateagatik administrazio-prozedura erkidearen oinarritzko kontzeptua osatzen duten erregelak.

III

Aurrekari bat baino gehiago ditu gai honen inguruko legegintzak. Legegileak eboluzionarazi egin du administrazio-prozeduraren kontzeptua, administrazioen jarduteko era egokitzeko testuinguru historikora eta gizarte-errealitatera. Alde batera utzita Azkarateren Legea deritzona, 1889ko urriaren 19koa, gure ordenamendu juridikoko administrazio-prozeduraren erregulazio osoetan lehena 1958ko uztailaren 17ko Administrazio Prozeduraren Legea da.

1978ko Konstituzioak administrazioaren kontzeptu berri bat sortu zuen, espresuki eta osotara legearen eta zuzenbidearen mende, herri-borondatearen adierazpen demokratiko gisa, eta haren izaera instrumentala berretsi zuen, interes orokorren zerbitzuan jartzean Gobernuaren zuzendaritzapean, zeinak erantzuten baitu politikoki haren kudeaketaz. Alde horretatik, azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, mugarri eta giltzarri izan zen Administrazio

Zuzenbideak konstituzio-esparru berrian izango zuen eboluziorako. Horretarako, aurrerapen esanguratsuak egin zituen administrazioek administratuekin dituzten harremanetarako, administrazioen funtzionamendua hobetzearen bitartez eta, batez ere, herritarrek Administrazioaren autobabes-ahalaren aurrean dituzten eskubideen berme handiago baten bitartez; horren azken osagaia haren jarduketaren berrikuspen judizialean datza, oinarritzko testuaren 106. artikulua indarrez.

Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak, zeinak aldatu baitzuen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, birformulatu egin zituen administrazio-prozeduraren alderdi funtsezko batzuk, hala nola administrazio-isiltasuna, administrazio-egintzak berrikusteko sistema eta administrazioen ondare-erantzukizunaren araubidea, eta horrek handitu egin zuen interesdunen segurtasun juridikoa.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapenak ere eragin sakona izan du Administrazioak herritarrekin eta enpresekin dituen harremanen forman eta edukian.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legea jada ohartu zen teknologia berriek administrazio-harremanetan duten garrantziaz, baina legezko aitortza ekainaren 22ko 11/2007 Legeak eman zien, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoak, herritarrek administrazio publikoekin elektronikoki harremanetan jartzeko duten eskubidea ezarri baitzuen, eta orobat administrazioen betebeharra zela eskubide hori baliatzeko behar diren bitarteko eta sistemez hornitzea. Hala ere, gaur egungo ingurumarian, izapidetze elektronikoa ezin da izan oraindik prozedurak kudeatzeko modu berezi bat; administrazioen ohiko jarduketa-modua izan behar du. Izan ere, paperik gabeko administrazio batek, funtzionamendu erabat elektronikoa oinarriturik, efikazia- eta efizientzia-printzipioak egokiago zerbitzatzearaz gain, kostuak aurrezten dizkie herritar eta enpresei, eta interesdunen bermeak indartu ere egiten ditu. Hain zuzen ere, dokumentazioa eta jarduketak artxibo elektronikoa batean izateak erraztu egiten du gardentasunerako betebeharra konpliztea, aukera ematen baitu interesdunei unean uneko informazio bizkorra eta eguneratua eskaintzeko.

Bestalde, gai honen erregulazioak bazuen gabezia bat: arauak sakabanatuta zeudela eta araubide juridiko bat baino gehiago gainjartzen zirela, ez beti elkarrekin koherenteak. Horren erakusgarri da bata bestearen atzetik onetsi izana gaien eragina duten zenbait arau: besteak beste, 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu-jardueretara irispide librea izateari eta haietan aritzeari buruzkoa; 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, Ekonomia Iraunkorrari buruzkoa; 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, eta 20/2013 Legea, abenduaren 9koa, merkatu-batasunaren bermeari buruzkoa.

Legeria hori izanik, giltzarria da lege berri bat izatea administrazio-prozedurari buruzko erregulazio guztia sistematizatuko duena, aipatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen eta ekainaren 22ko 11/2007 Legearen edukia argituko eta integratuko duena eta prozedurak arinduko dituena funtzionamendu erabat elektronikoarekin. Horrekin guztiarekin, hobeto beteko dira administrazio publikoen jarduketa gidatu behar duten efikaziaren eta segurtasun juridikoaren printzipio konstituzionalak.

IV

Hogei urte baino gehiago egin ditu indarrean 30/1992 Legeak, eta, denbora horretan, Europako Batzordearen eta Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen barruan hobetuz joan da araugintza (*Better regulation* eta *Smart regulation*). Nazioartean gaiari buruz egin diren txostenek honela definitzen dute erregulazio adimenduna: kalitateko esparru juridiko bat, erregulazio-xedea betetzeko modua eskaintzearekin batera jarduera ekonomikoa dinamizatzeko pizgarri egokiak eskaintzen dituena eta prozesuak sinpletzeko eta administrazio-kargak gutxitzeko aukera ematen duena. Horretarako, funtsezkoa da arauen eraginaren analisi bat egitea etengabe, bai *ex ante* eta bai *ex post*, eta herritarrek eta enpresek parte hartzea arauak egiteko prozesuetan, haien gain joango baita gero legeak bete beharra.

Azkeneko hamarkadan, azaroaren 23ko 17/2009 Legeak eta martxoaren 4ko 2/2011 Legeak aurrerapena ekarri dute erregulazio onaren printzipioak ezartzean, batez ere jarduera ekonomikoetan aritzeari dagokionez. Jada legegintzaldi honetan, abenduaren 9ko 20/2013 Legeak beste urrats batzuk gehiago egin ditu, herritarren eskura jarri baitu arauak egiteko prozedurari dagokionez garrantzi juridikoa duen informazioa.

Hala ere, beharrezkoa da beste erregulazio bat izatea, dagoen arau-sakabanaketa amaitzeko eta herritarren parte-hartzea, segurtasun juridikoa eta ordenamenduaren berrikuspena sendotzeko. Helburu horiekin, lehen aldiz ezarri dira lege batean administrazio publikoen legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala gidatu behar duten oinarriak, erregulazio onaren printzipioen arabera baliatuko direla segurtatzeko, araugintzan herritarrei entzunaldia eta parte hartzeko aukera modu egokian emango zaiela bermatzeko, eta ordenamenduaren auresangarritasuna eta ebaluazio publikoa lortzeko, segurtasun juridikorako eskubide konstituzionalaren ezinbesteko korolario gisa. Berritasun hori funtsezkoa da, batez ere lurraldez deszentralizatua den estatu batean, zeinean batera bizi baitira lurralde-administrazioaren hiru maila, beren araugintza-jarduera sarri bat datozen esparru subjektibo eta geografikoetan proiektatzen dutenak. Erregulazio honetan, aintzat hartzen dira gai honetan Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGE) 2014ko txosten honetan emandako gomendioak: «*Spain: From Administrative Reform to Continuous Improvement*».

V

Lege honek 133 artikulua ditu, zazpi titulutan banatuak; bost xedapen gehigarri, bost xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta zazpi azken xedapen.

Atariko titulua, xedapen orokorra, legearen eremu objektiboari eta subjektiboari buruzkoa da. Haren berritasun nagusien artean, aipatzekoa da legearen xedean sartu direla, oinarritzko izaerarekin, administrazio publikoen legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzeko modua informatzen duten printzipioak. Lege honetan aurreikusitakoa aplikatuko zaie sektore publikoaren kontzeptuan sartzen diren subjektu guztiei, nahiz eta zuzenbide publikoko korporazioak beren araudi espezifikoak gidatuko dituen esleitu zaizkien eginkizun publikoak betetzean, eta modu osagarrian lege honek.

Aipagarria da, halaber, xedatu denaren arabera legez bakarrik ezar daitezkeela izapide gehigarriak edo arau honetan adierazitakoez bestelakoak, eta erregelamenduz zehaztu daitezkeela prozeduraren zenbait berezitasun, organo eskudunak identifikatzeari, epeei, hasteko eta amaitzeko moduei, argitaratzeari eta eskatu beharreko txostenen buruzkoak. Horrek ez die eragiten indarrean dauden legetan lehendik jasoak dauden izapide gehigarri edo bestelakoei, ez eta erregelamenduzko arauetan egin diren zehaztapenei ere, denek ere beren ondorioak mantenduko baitituzte: organo eskudunak, gaia dela-eta dagokion prozedura zehatzaren epeak, hasteko eta amaitzeko moduak, egintzen argitalpena edo eskatu beharreko txostenak. Hala, besteak beste, aipagarria da indarrean dirauela Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte Arloko buruzko abenduaren 29ko 14/2000 Legearen hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriak aipatzen duen 2. eranskinak, zeinak prozedura batzuk ezartzen baititu administrazio-isiltasun positiboaren erregela orokorretik salbuetsita geratzen direnak.

I. titulua prozedurako interesdunei buruzkoa da, eta hartan erregulatzen da, beste gai batzuen artean, zer berezitasun dituen jarduteko gaitasunak Administrazio Zuzenbidearen eremuan, lehen aldiz zabalduz hura ukituen taldeetara, nortasun juridiko propiorik gabeko elkartzeta eta entitateetara eta ondare independente edo autonomoetara legeak espresuki hala adierazten duenean. Ordezkaritzari dagokionez, administrazio publikoen eremu eskusiboan hura egiaztatzeke modu berriak sartu dira, hala nola *apud acta* ahalordetzea, aurrez aurrekoa edo elektronikoa, edo administrazio publikoaren edo organismo eskudunaren ahalordetzeen erregistro elektronikoa inskribatuta dagoela egiaztatzea. Era berean, xedatzen da administrazio publiko bakoitzak ahalordetzeen erregistro elektronikoa bat eduki beharra daukala, eta lurralde-administrazioetakoak atxiki daitezkeela Estatukora,

efizientzia-printzipioa aplikatuz, zeina aitortua baitago Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 7. artikuluan.

Bestalde, titulu horretako artikuluen parte bat Legearen berritasunik handienetako batek hartzen du: identifikazioa eta sinadura elektronikoa bereiztea eta bata eta bestea egiaztatzeko moduak sinplifikatzea, halako moldez non, oro har, lehena bakarrik izango baita beharrezko eta bigarrena, berriz, interesdunaren borondatea eta adostasuna egiaztatu behar denean eskatuko baita. Oinarri gisa, administrazio guztiek erabili beharreko identifikazio- eta sinadura-bitartekoen gutxienezko kategorien multzo bat ezartzen da. Zehazki, sinadura-sistema gisa onartuko dira: sinadura elektronikoa aitortu edo kualifikatu eta aurreratuko sistemak, sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoa kualifikatuetan oinarrituak, zeinetan sartzen baitira bai pertsona juridikoaren ziurtagiri elektronikoa bai nortasun juridikorik gabeko entitatearenak; zigilu elektronikoa aitortu edo kualifikatu eta zigilu elektronikoa aurreratuko sistemak, zigilu elektronikoko ziurtagiri kualifikatuetan oinarrituak; eta orobat administrazio publikoek baliozkotzat jotzen duten beste edozein sistema, ezartzen diren modu eta baldintzetan. Identifikazio-sistema gisa onartuko da onartutako sinadura-sistemetak edozein, eta orobat gako itunduko sistemak eta administrazio publikoek ezartzen duten beste edozein.

Lege honetan aurreikusitako identifikazio-sistemak nahiz sinadura-sistemak guztiz koherenteak dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 23ko 910/2014 Erregelamenduan (EB) xedatutakoarekin. Erregelamendu hori identifikazio elektronikoa eta barne-merkatuko transakzio elektronikoa konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa da, eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen du. Gogoratu behar da estatu kideak behartuta daudela gainerako estatu kideek Europako Batzordeari jakinarazitako identifikazio elektronikoko sistemak onartzera, eta orobat Europar Batasuneko beste estatu kide batzuen konfiantzazko zerrendetan ageri diren zerbitzu-emaitza egindako ziurtagiri elektronikoa kualifikatuetan oinarritutako sinadura eta zigilu elektronikoa, erkidegoko arauak aurreikusitakoaren arabera.

II. titulua administrazio publikoen jarduerari buruzkoa da, eta bi kapitulutan egituratuta dago. I. kapituluak jarduketara arau orokorrei buruzkoa da. Berritasun gisa, xedatzen du zer subjektu dauden beharturik administrazio publikoekin harremanak modu elektronikoa izatera.

Era berean, kapitulu horretan xedatzen da administrazio publiko guztiak behartuta daudela erregistro elektronikoa orokor bat izatera edo, bestela, Estatuaren Administrazio Orokorrenera atxikitzen. Erregistro horiei laguntzeko egongo dira gaur egun erregistro-gaietarako dauden bulegoak, aurrerantzean erregistro-gaietan laguntzeko bulego izendatuak, zeinek interesdunari aukera emango baitiote, hala nahi badute, eskaerak paperean aurkezteko, eta gero formatu elektronikora bihurtzeko.

Artxiboari dagokienez, berritasun gisa sartzen da administrazio publiko bakoitza behartuta dagoela artxibo elektronikoa bakar batean izatera amaitutako prozedurei dagozkien dokumentu guztiak, eta behartuta daudela, orobat, espediente horiek dokumentuaren autentikotasuna, osotasuna eta kontserbazioa bermatuko duen formatu batean kontserbatzen.

Alde horretatik, aipatzekoa da artxibo elektronikoa bakar hori sortzea bateragarria izango dela dauden artxibo-sistema eta -sareekin, indarrean den legerian aurreikusitako moduan, eta errespetatuko duela dagokion zaintza edo eskualdaketari buruzko erantzukizun-banaketa. Bestalde, artxibo elektronikoa bakarrarekin bateragarria izango da Artxibo Historiko Nazionalak irautea, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean eta hura garatzeko araudian aurreikusitako moduan.

I. kapituluak ezartzen da, orobat, kopien baliozkotasunaren eta efikaziaren araubidea: argitu eta sinplifikatu egiten da gaur egungoa, eta definitzen da zer betekizun behar diren kopia bat autentikoa izateko, baliozkotzat jotzeko zer ezaugarri izan behar dituzten administrazio publikoek emandako dokumentuek, eta zer interesdunek prozeduran ekarritakoek; oro har, betebehartzat ezartzen da administrazio publikoek ez eskatzea interesdunek lehenago jarritako dokumenturik, administrazio publikoek prestatu edo jatorrizkorik, legean ezarritako salbuespenak salbu. Beraz, interesdunak oro har

dokumentuen kopiak aurkeztu ahal izango ditu, izan berak digitalizatuak edo izan paperezkoak.

Nabarmentzekoa da, halaber, administrazio publikoak behartuta daudela erregistro bat edo beste sistema baliokide bat izatera, kopia autentikoak egiteko gaituta dauden funtzionarioen berri emango duena, hartara bermatzeko kopiak egoki eginak direla, eta hartan, administrazio bakoitzak hala erabakitzen badu, batera agertu ahal izango direla, orobat, interesdunei bitarteko elektronikoen erabileran laguntzen aritzen diren funtzionarioak; ez dago eragozpenik funtzionario batek bi eginkizunak aitortuak izateko edo bietako bat bakarrik.

II. kapitulua epe-mugei eta epeei buruzkoa da, eta haiek zenbatzeko, luzatzeko edo presaz izapidetzeko erregelak ezartzen ditu. Berritasun nagusi gisa, aipatzekoa da epeak orduka ere zenbatuko direla eta larunbatak egun baliogabetzat jo direla, horrekin eremu judizialeko eta administratiboko epeak zenbatzeko modua berdinduz.

III. titulua, administrazio-egintzei buruzkoa, hiru kapitulutan egituratuta dago. Administrazio-egintzen betekizunak, haien efikazia eta deuseztasunari eta deuseztagarritasunari buruzko erregelak arautzen ditu, bere horretan utzirik azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarritako arau orokorrak.

Bereziki aipatzekoak dira jakinarazpen elektronikoen gaian sartutako berritasunak. Halako jakinarazpenek lehentasuna izango dute, eta, dagokionaren arabera, egoitza elektronikoa edo emandako helbide elektronikoa bakarrean egingo dira. Bestalde, interesdunen segurtasun juridikoa handitu da, zenbait neurri berri ezarriz jakinarazpenak eskura jarri direlako berri izatea bermatzeko; besteak beste, jakinarazpen-abisuak bidaltzea, ahal den guztietan, interesdunak eman dituen gailu elektronikoetara edo helbide elektronikora, eta bere jakinarazpenetarako irispidea izatea Administrazioaren Irispide Puntu Elektroniko Orokorraren bitartez, zeinak irispide-atari baten moduan funtzionatuko baitu.

IV. tituluak administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak biltzen ditu, zazpi kapitulutan. Berritasun nagusien artean, aipatzekoa da orain administrazio-prozedura erkidearen berezitasun moduan integratu direla azaroaren 26ko 30/1992 Legeak titulu bereizitan erregulatzen zituen zehatzeko ahalari eta ondare-erantzukizunari buruzko prozedura bereziak. Planteamendu hori egin da Legearekin bilatzen den helburu batengatik: administrazio-prozedurak sinplifikatzea eta berezitasun moduan integratzea administrazio-prozedura erkidean, segurtasun juridikoa handitzen laguntzeko. Jarraitutako sistematikaren arabera, administrazio publikoen zehatzeko ahalaren eta ondare-erantzukizunaren printzipio orokorrak, gehiago dagozkienez alderdi organikoei prozedurazkoei baino, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean erregulatzen dira.

Titulu horrek, bestalde, behartu egiten du bitarteko elektronikoa modu orokorrean erabiltzera prozedura hasteko, antolatzeko, instruitzeko eta amaitzeko faseetan. Era berean, administrazio-espediterearen erregulazioa gehitu da, haren formatu elektronikoa eta zer dokumentuk osatu behar duten ezarriz.

Titulu horren barruan, kapitulu berri bat sartu da administrazio-prozedura erkidearen izapidetze sinplifikatuari buruzkoa, zeinean ezartzen baita haren aplikazio-eremu objektiboa, ebazteko gehieneko epea, hogeita hamar egun, eta zer izapide dituen. Prozedura batean beste edozein izapide gehigarri egin behar bada, izapidetze arruntari jarraitu beharko zaio. Era berean, modu sinplifikatuan izapidetu den prozedura batean nahitaezkoa baldin bada Estatu Kontseiluaren edo organo aholku-emaile baliokide baten irizpena, eta irizpen horretan ebazpen-proposamenaren funtsaren kontrakoa den irispide bat adierazten bada, prozedurak jarraitu egin beharko du baina, interesdunen berme handiagorako, izapide arruntei jarraituz, ez laburtuari; hala, izapidetze sinplifikatuan aurreikusita ez dauden beste izapide batzuk egin ahal izango dira, hala nola interesdunek eskaturik frogak egitea. Horrek guztiak ez du eragozten aukera izatea prozedura presaz izapidetzeko, jada azaroaren 26ko 30/1992 Legeak jasotzen zuen moduan.

V. titulua administrazio-bidean egintzak berrikusteari buruzkoa da. Azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako bide berak mantendu dira, eta indarrean dira, beraz,

ofiziozko berrikuspenak eta orain arte izan diren administrazio-errekurtsoen tipologia (gora jotzeko errekurtsua, aukerako berraztertze-errekurtsua eta berrikuspen-errekurtsu berezia). Hala ere, berritasun gisa aipatzekoa da administrazio batek administrazio-egintza beretik sortutako hainbat administrazio-errekurtsu ebatzi behar dituztenean eta errekurtsu judizial bat jarri denean administrazio-ebazpen baten kontra edo dagokion presuntziozko egintza ez eslearen kontra, administrazio-organismoak erabaki ahal izango duela ebazteko epea etetea erabaki judiziala eman arte.

Administratuentzat beren eskubideak baliatzeko abantaila izan beharrean karga ziren izapideak gutxitzeko borondatearekin bat etorritik, legeak ez ditu aintzat hartzen jada bide zibileko eta lan-arloko bideko aurreitazko erreklamazioak, erabilgarritasun praktikoa eskasa erakutsi baitute orain arte; beraz, kendu egin dira.

VI. titulua administrazio publikoen legegintza-ekimenari eta araugintza-ahalari buruzkoa da, eta jasotzen du zer printzipioari atxiki behar dion bere jardura administrazio titularrak, eremu horretako eskubide konstituzionalak baliatuz.

Hierarkiari, arauak publiko egiteari eta erregulazio onaren printzipioei buruz indarrean den erregulazioan hobekuntza batzuk egitearekin batera, berritasun batzuk txertatu dira herritarrek parte-hartze handiagoa izan dezaten arauak egiteko prozeduran. Nabarmenezkoa da, haien artean, araua egin aurretik herritarrei eta enpresei galdetu beharra dagoela zer iritzi duten ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoez, arau hori onestearen premiaz eta egokitasunaz, arauaren helburuez eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatuaz eta ez-erregulatuaz.

Bestalde, segurtasun juridiko handiagoa eta ordenamenduaren auresangarritasuna xedetzat harturik, *ex ante* arau-plangintza hobetzearen alde egin da. Horretarako, administrazioek urteko araugintza-plan bat zabalduko dute, eta hartan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorri asmo diren lege- edo erregelamendu-mailako proposamen guztiak. Aldi berean, indartu egin da *ex post* ebaluazioa, zeren eta, araudia erregulazio onaren printzipioetara egokitzen den etengabe berrikusteko behararekin batera, betebehartzat ezartzen da indarrean diren arauen aplikazioa aldi behin ebaluatzea, helburuak bete diren ikusteko eta arauak ekarri dituzten kostuak eta kargak justifikatuta eta egoki balioetsita zeuden jakiteko.

Xedapen gehigarri, iragankor eta indargabetzaileei eta azken xedapenei dagokienez, aipatzekoa da autonomia-erkidegoak eta toki-entitateak Estatuaren Administrazio Orokorra ezarritako erregistro eta sistemetara atxiki beharri buruzkoa, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aitorturiko efizientzia-printzipioa aplikatzearen ondorio.

Nabarmenezkoa da, halaber, gaiaren ondoriozko berezitasunei buruzko xedapena, zenbait jarduketa eta prozedura ezartzen baititu, beren araudi espezifikoak –eta modu osagarrian lege honek– eraenduko dituenak. Aipatzeko dira, haien artean, tributuen aplikazioari buruzkoak eta tributuen eta aduana-gaietako berrikuspenari buruzkoak, Gizarte Segurantzaren eta Langabeziaren gaietako kudeaketa, ikuskaritza, likidazio, diru-bilketa, aurkaratze eta berrikuspenari buruzkoak –horien artekotzat jotzen dira, besteak beste, Gizarte Segurantzaren sartu eta afiliatzeko egintzak eta etekinak dituzten enpresetan berrogeita hamar urtetik gorako langileei eragiten dieten kaleratzeagatik diru-ekarpenak–, eta halaber tributuen eta aduana-gaietako, lan-arloko, trafikoaren eta bide-segurtasunaren arloko eta atzerriartasun-arloko jarduketa eta zehapen-prozedurak.

Azkenik, Legean jasota dago zuzenbide iragankorreko zer xedapen aplikatuko zaizkien hasitako prozedurei, indarrean jartzeari, artxibo eta erregistroei eta Irispide Puntu Elektroniko Orokorri, eta halaber lege honetan aurreikusitakoa garatzeko gaikuntza emateko xedapenak.

ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Legearen xedea.*

1. Lege honen xedea honako hauek arautzea da: administrazio-egintzak baliozko eta efikaz izateko betekizunak; administrazio publiko guztiek erkide duten administrazio-prozedura, barnean harturik zehapen-prozedura eta administrazio publikoen erantzukizuna erreklamatzeko prozedura; eta zer printzipiori jarraitu behar zaion legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean.

2. Lege bidez eta modu arrazoituan bakarrik sar daitezke izapide gehigarriak edo lege honetan aurreikusitakoez bestelako batzuk, hori efikaz, neurrizko eta beharrezkoa bada prozeduraren berezko xedeak lortzeko. Erregelamenduz ezarri ahal izango dira prozeduraren zenbait berezitasun, hauei buruzkoak: organo eskudunak, gaiagatik zehazki dagokion prozeduraren epeak, hasteko eta amaitzeko moduak, argitaratzeko modua eta eskatu beharreko txostenak.

2. artikulua. *Aplikazio-eremu subjektiboa.*

1. Lege hau sektore publikoari aplikatzen zaio. Sektore horretan sartzen dira honako hauek:

- a) Estatuaren Administrazio Orokorra.
- b) Autonomia-erkidegoen administrazioak.
- c) Toki-administrazioa osatzen duten entitateak.
- d) Sektore publiko instituzionala.

2. Hauek sartzen dira sektore publiko instituzionalean:

a) Administrazio publikoei loturik edo haien mendean dagoen zeinahi organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitate.

b) Administrazio publikoei loturik edo haien mende dauden zuzenbide pribatuko entitateak, betiere administrazio-ahalak baliatzen dituztenean. Lege honek haiei buruz espezifikoari xedatzen duenaren mende egongo dira.

c) Unibertsitate publikoak, zeinek beren araudi espezifikoari jarraituko baitiote eta, modu osagarrian, lege honetan xedatutakoari.

3. Administrazio publikotzat hartzen dira: Estatuaren Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoen administrazioak, toki-administrazioa osatzen duten entitateak, eta aurreko 2. zenbakiko a) letran aurreikusitako organismo publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak.

4. Zuzenbide publikoko korporazioek beren araudi espezifikoari jarraituko diote legez esleitu zaizkien edo administrazio publikoren batek delegatu dizkien eginkizun publikoak betetzean, eta, modu osagarrian, lege honi.

I. TITULUA

Prozeduran interesdun direnak

I. KAPITULUA

Jarduteko gaitasuna eta interesdun kontzeptua

3. artikulua. *Jarduteko gaitasuna.*

Lege honetan aurreikusitako ondorioetarako, administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna izango dute:

- a) Arau zibilen arabera jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko edo juridikoek.
- b) Adingabeek, beren eskubideez baliatzeko eta interesen alde egiteko, ordenamendu juridikoaren arabera hori guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza duen pertsona gabe egin dezaketen kasuetan. Salbuespen da adingabe ezgaituen kasua, ezintasunaren neurria eragozpen denean kasuan kasuko eskubideez baliatzeko edo interesen alde egiteko.
- c) Legeak espresuki hala adierazten duenean, ukituen taldeek, nortasun juridikorik gabeko batasun eta entitateek eta ondare independente edo autonomoek.

4. artikulua. *Interesdun kontzeptua.*

1. Administrazio-prozeduran interesdun direla jotzen da:

- a) Eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboen titular modura hura sustatu dutenak.
- b) Prozedura haiek ez hasi arren hartan hartuko den erabakiak uki ditzakeen eskubideak dituztenak.
- c) Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidual nahiz kolektiboak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.

2. Ekonomia- eta gizarte-interesen ordezkari diren elkarte eta antolakundeak interes legitimo kolektiboen titular izango dira Legeak aitortutako moduan.

3. Interesdun-kondizioa harreman juridiko eskualdagarriren baten ondorioz sortzen bada, eskubidedunak eskuratuko du kondizio hori, prozedura dagoen egoeran dagoela ere.

5. artikulua. *Ordezkaritza.*

1. Ordezkaritza bidez ere jardun dezakete jarduteko gaitasuna duten interesdunek, eta ordezkariarekin gauzatuko dira orduan administrazio-jarduketak, interesdunak espresuki aurkakorik adierazten ez badu.

2. Jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoek, eta pertsona juridikoek, beren estatutuetan hala aurreikusia badute, beste batzuen ordezkari gisa jardun ahal izango dute administrazio publikoen aurrean.

3. Beste pertsona baten izenean eskaerak egiteko, erantzukizunpeko adierazpenak edo komunikazioak aurkezteko, errekurtsioak jartzeko, akzioetan atzera egiteko eta eskubideei uko egiteko, ordezkaritza egiaztatu beharko da. Izapide huts diren egintza eta kudeaketak, berriz, inolako egiaztapenik gabe egin ditzake ordezkariak.

4. Ordezkaritza egiaztatzeke, hala dela sinesgarritasunez erakusten duen edozein bide erabili ahal izango da, zuzenbidean baliozkoa bada.

Ondorio horietarako, ordezkaritza egiaztatutik geldituko da *apud acta* ahalordetzearen bitartez egin bada, agerraldi pertsonala eginez edo dagokion egoitza elektronikoa agerraldi elektronikoa eginez, edo administrazio publiko eskudunaren ahalordetzeen erregistro elektronikoa inskribatu izana egiaztatuz.

5. Prozeduraren izapideak egiteko eskumena duen organoak administrazio-espeditentari gehitu beharko dizkio ordezkaritza eta une horretan aitortuak dituen

ahalordeen egiaztagiriak. Ahalordetzeen erregistro elektronikoa kontsulta egin izana egiaztatzen duen dokumentu elektronikoa ondorio horietarako egiaztagiriaren izaera izango du.

6. Ordezkaritza ez egiaztatzeak edo nahikoa ez egiaztatzeak ez du eragotziko dena delako egintza gauzatzat hartzea, baldin eta ordezkari egiaztatzen edo akatsa zuzentzen bada hamar eguneko epean, epe hori eman beharko baitu administrazio-organoak, edo epe handiagoan kasuak hala eskatzen badu.

7. Administrazio publikoek gaikuntza orokor edo espezifiko eman ahal izango diete interesdunen ordezkari gisa transakzio elektronikoa egiteko baimenduta dauden pertsona fisiko edo juridikoei. Gaikuntza horretan, zehaztu beharko da zer baldintza eta betebeharrak konprometitzen diren ordezkari horrela hartzen dutenak, eta ordezkari baliokoa delako presuntzioa ekarriko du, non eta aplikatzekoa den araudiak ez duen besterik aurreikusten. Administrazio publikoek edozein unetan eskatu ahal izango dute ordezkari horren egiaztagiria. Hala ere, beti izango da prozeduran interesduna bera agertzeko aukera.

6. artikulua. *Ahalordetzeen erregistro elektronikoa.*

1. Estatuaren Administrazio Orokorak, autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek ahalordetzeen erregistro elektronikoa orokor bat izango dute, eta hartan inskribatu beharko dira, gutxienez, administrazio-prozedura batean interesdun izan eta administrazio publikoen aurrean beraren izenean, aurrez aurre edo elektronikoki, jarduteko ordezkari baten alde *apud acta* ematen diren izaera orokorrekoak. Ahalordearen askiestea ere jaso beharko da.

Estatuaren eremuan, erregistro hori Estatuaren Administrazio Orokoraren Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa izango da.

Ahalordetzeen erregistro orokorrek ez dute eragotziko erregistro partikularrak izatea izapide espezifikoak egiteko ahalordeak inskribatzen diren organismo bakoitzean. Organismo bakoitzak bere ahalordetzeen erregistro elektronikoa izan dezake.

2. Administrazio guzti-guztien ahalordetzeen erregistro elektronikoa orokorrek eta partikularrek elkarreragingarritasun osoa izan behar dute beren artean, eta bermatuta izan behar dute elkarrekiko konexioa, bateragarritasun informatikoa, eta orobat haietan sartzen diren eskaera, idatzi eta komunikazioen transmisio telematikoa.

Ahalordetzeen erregistro elektronikoa orokorren eta partikularren bidez, baliokoa moduan egiaztatu ahal izango da administrazio publikoen aurrean hirugarren baten izenean jarduten dutenen ordezkari, kontsulta eginez antzeko beste administrazio-erregistro batzuetan, merkataritza-erregistroan, jabetzaren erregistroan eta notario-protokoloetan.

Merkataritza-erregistroak, jabetzaren erregistroak eta notario-protokoloen erregistroak elkarreragingarriak izango dira ahalordetzeen erregistro elektronikoa orokor eta partikularrekin.

3. Ahalordetze-erregistro orokor eta partikularretan egiten diren idazpenek honako informazio hau jaso beharko dute, gutxienez:

- a) Ahalorde-emailearen izen-abizenak edo sozietatearen izena; nortasun-agiri nazionala, identifikazio fiskaleko zenbakia edo dokumentu baliokideren bat.
- b) Ahalordedunaren izen-abizenak edo sozietatearen izena; nortasun-agiri nazionala, identifikazio fiskaleko zenbakia edo dokumentu baliokideren bat.
- c) Inskripzioaren data.
- d) Zenbat denborarako ematen den ahalordea.
- e) Ahalorde mota, ematen dituen ahalmenen arabera.

4. Ahalordetze-erregistro orokor eta partikularretan inskribatzen diren ahalordeek mota hauetakoren batekoak izan beharko dute:

- a) Ahalorde orokor bat ahalordedunak ahalorde-emailearen izenean jardun ahal izan dezan edozein administrazio-jarduketatan eta edozein administrazioaren aurrean.

b) Ahalorde bat ahalordedunak ahalorde-emailearen izenean jardun ahal izan dezan edozein administrazio-jarduketatan administrazio edo organismo jakin baten aurrean.

c) Ahalorde bat ahalordedunak ahalorde-emailearen izenean jardun ahal izan dezan ahalordean zehaztutako izapide jakin batzuetarako bakarrik.

Ondorio horietarako, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako ministroaren agindu baten bitartez onetsiko dira, oinarrizko gisa, erregistroan inskriba daitezkeen ahalorde-ereduak; haietan, zehaztu egingo da ea administrazio guztien aurrean jarduteko aukera ematen duten, aurreko a) letran aurreikusitakoaren arabera, edo Estatuaren Administrazio Orokorraren aurrean, edo toki-entitateen aurrean.

Autonomia-erkidego bakoitzak onetsiko ditu, erregistroan inskriba daitezkeen ahalorde-ereduetatik, haren administrazioaren aurrean soilik jarduteko direnak.

5. *Apud acta* ahalordetzea emateko, agerraldi elektronikoa egin beharko da dagokion egoitza elektronikoa, Legean aurreikusitako sinadura elektronikorako sistemak erabiliz, edo agerraldi pertsonala egin beharko da erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.

6. Erregistroan inskribatutako ahalordeek bost urterako baliozkotasuna izango dute, gehienez, inskripzioa egiten den datatik aurrera. Epe hori amaitu aurreko edozein unetan, nolana ere, ahalorde-emaileak errebotatu edo luzatu ahalko du ahalordea. Ahalorde-emaileak erregistroari emandako luzapenek bost urterako baliozkotasuna izango dute, gehienez ere, inskripzioa egiten den datatik aurrera.

7. Ahalordea inskribatzeko, errebotatzeko, luzatzeko edo salatzeke eskaerak edozein erregistrotara zuzendu ahal izango dira. Eskaerok idatziz jasota geratu behar dute ahalordeak ondorioak dituen administrazio edo organismoaren erregistroan, eta inskripzioa egiten den datatik aurrera izango dituzte ondorioak.

7. artikulua. *Hainbat interesdun egotea.*

Eskaera, idazki edo komunikazio batean interesdun bat baino gehiago bada, interesdun horiek espresuki adierazitako ordezkari edo interesdunarekin egingo da egin beharreko jarduna; ezer adierazten ez bada, berriz, idazkian agertzen den lehenengoarekin.

8. artikulua. *Prozedurako interesdun berriak.*

Publiko egin ez den prozedura baten instrukzioan ikusten bada badirela beste pertsona batzuk eskubide edo interes legitimo eta zuzeneko titular direnak, espedientean identifikatuak eta prozeduraren ebazpenak uki ditzakeenak, prozedura izapidetzen ari dela komunikatuko zaie pertsona horiei.

II. KAPITULUA

Administrazio-prozeduran interesdunek beren burua identifikatzea eta sinatzea

9. artikulua. *Prozeduran interesdun direnak identifikatzeko sistemak.*

1. Administrazio publikoak behartuta daude administrazio-prozeduran interesdun direnen nortasuna egiaztatzea, haien izen-abizenak edo sozietate-izena egiaztatuz –zer dagokion– nortasun-agiri nazionalean edo identifikazio-dokumentu baliokidean.

2. Interesdunak elektronikoki identifika daitezke administrazio publikoen aurrean, erabiltzaile gisa aurrez erregistratzeko eta nortasuna egiaztatzeke modua eskaintzen duen edozein sistemaren bidez. Bereziki, sistema hauek onartuko dira:

a) Sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatuetan oinarritzen diren sistemak. Ziurtagiri horien emaileek sartuta egon behar dute «ziurtapen-zerbitzu emaileen konfiantzazko zerrendan». Ondorio horietarako, aipatutako ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatuen artekotzat jotzen dira pertsona juridikoarenak eta nortasun juridikorik gabeko entitatearenak.

b) Zigilu elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatuetan oinarritzen diren sistemak. Ziurtagiri horien emaileek sartuta egon behar dute «ziurtapen-zerbitzu emaileen konfiantzazko zerrendan».

c) Gako itunduko sistemak eta administrazio publikoek baliozkotzat jotzen duten beste edozein sistema, ezartzen diren termino eta kondizioetan.

Administrazio publiko bakoitzak erabaki ahal izango du ea sistema horietako bat edo beste bakarrik onartzen duen izapide edo prozedura batzuk egiteko; c) letran aurreikusitako identifikazio-sistemetakoren bat onartuz gero, aurreko a) eta b) letretan aurreikusitako guztiak onartu beharko dira izapide edo prozedura horretarako.

3. Betiere, Estatuaren Administrazio Orokorrek sistema horietakoren bat onartzeak balio du administrazio publiko guztien aurrean egiaztatzeke, kontrako frogarik ezean, administrazio-prozeduran interesdun diren identifikazio elektronikoa.

10. artikulua. *Administrazio publikoek onartutako sinadura-sistemak.*

1. Beren borondatearen eta adostasunaren adierazpena autentikoa dela eta dokumentua osoa eta aldaezina dela egiaztatzeke aukera ematen duen edozein bitartekoren bidez sinatu ahal izango dute interesdunek.

2. Interesdunek erabakitzen badute bitarteko elektronikoen bidez izatea harremana administrazio publikoekin, sinadurarako baliozkotzat joko dira:

a) Sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatuetan oinarritzen diren sinadura elektronikoa aitortu edo kualifikatu eta aurreratuko sistemak. Ziurtagiri horien emaileek sartuta egon behar dute «ziurtapen-zerbitzu emaileen konfiantzazko zerrendan». Ondorio horietarako, aipatutako ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatuen artekoak jotzen dira pertsona juridikoarenak eta nortasun juridikorik gabeko entitatearenak.

b) Zigilu elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatuetan oinarritzen diren zigilu elektronikoa aitortu edo kualifikatuko eta zigilu elektronikoa aurreratuko sistemak. Ziurtagiri horien emaileek sartuta egon behar dute «ziurtapen-zerbitzu emaileen konfiantzazko zerrendan».

c) Administrazio publikoek baliozkotzat jotzen duten beste edozein sistema, ezartzen diren termino eta kondizioetan.

Administrazio publiko, organismo edo entitate bakoitzak erabaki ahal izango du sistema horietako bat edo batzuk bakarrik onartzen dituen bere eskumen-eremuko zenbait izapide edo prozedura egiteko.

3. Aplikatzekoa den araudi erregulatzailerak espresuki hala xedatzen duenean, administrazio publikoek sinadura-sistema gisa onartu ahal izango dituzte lege honetan aintzat hartutako identifikazio-sistemak, interesdunen borondatearen adierazpena eta adostasuna autentikoa dela egiaztatzeke aukera ematen dutenean.

4. Interesdunek artikulua honetan aurreikusitako sinadura-sistemetakoa bat erabiltzen dutenean, haien nortasuna egiaztatutzat joko da sinatze-egintzarekin berarekin.

11. artikulua. *Administrazio-prozeduran identifikatzeko eta sinatzeko bitartekoak erabiltzea.*

1. Oro har, administrazio-prozeduran aurreikusitako edozein jarduketatarako, nahikoa izango da interesdunek aurrez beren nortasuna egiaztatzea lege honetan aurreikusitako identifikazio-bideetako edozeinen bitartez.

2. Administrazio publikoek hauetarako bakarrik eskatuko diete interesdunei sinadura nahitaez erabiltzea:

- a) Eskaerak egiteko.
- b) Erantzukizunpeko adierazpenak edo komunikazioak aurkezteko.
- c) Errekurtsoak jartzeko.

- d) Akzioetan atzera egiteko.
- e) Eskubideei uko egiteko.

12. artikulua. *Interesdunei bitarteko elektronikoak erabiltzen laguntzea.*

1. Administrazio publikoek bermatu egin beharko diete interesdunei bitarteko elektronikoen bidez izan dezaketela harremana Administrazioarekin. Horretarako, haien esku jarriko dituzte beharrezko diren irispide-kanalak eta kasu bakoitzerako erabakitzen diren sistema eta aplikazioak.

2. Bitarteko elektronikoak erabiltzeko laguntza emango diete administrazio publikoek 14. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan sartzen ez diren interesdunei, hala eskatzen badute; batez ere, identifikazioari eta sinadura elektronikoari, eskaerak erregistro elektronikoro korrraren bidez aurkezteari eta kopia autentikoak lortzeari dagokionez.

Halaber, interesdun horietakoren batek ez badauzka behar diren bitarteko elektronikoak, funtzionario publiko batek egin dezake, balio osoz, hura administrazio-prozeduran identifikatzeko edo sinadura elektronikoa emateko izapidea, funtzionarioak berak erabil dezakeen sinadura elektronikoko sistemaren bitartez. Kasu horretan, behar den baliabide elektronikorik ez daukan interesdunak bere burua identifikatu egin beharko du funtzionarioaren aurrean, eta adostasun espresua eman hala jarduteko; hala jasota geratu beharko du desadostasuna edo auzia gertatzen den kasurako.

3. Estatuaren Administrazio Orokorrak, autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek eguneraturik edukiko dute erregistro bat, edo beste sistema baliokideren bat, artikuluhonetan arautzen den identifikazio edo sinadurarako gaitutako funtzionarioak jasoko dituen. Erregistro edo sistema horiek elkarreragingarritasun osoa izan beharko dute, eta elkarrekiko konexioa gainerako administrazio publikoenekin, aipatutako gaikuntza horien baliokotasuna egiaztatzeko.

Erregistro edo sistema baliokide horretan agertuko dira, gutxienez, erregistro-gaitetan laguntzeko bulegoetan lan egiten duten funtzionarioak.

II. TITULUA

Administrazio publikoen jarduera

I. KAPITULUA

Jarduketa-arau orokorrak

13. artikulua. *Pertsonek administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak.*

3. artikuluaaren arabera administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna dutenek eskubide hauek dituzte haiekiko harremanetan:

- a) Administrazio publikoekin komunikatzea Administrazioaren irispide-puntu elektronikoro kor baten bitartez.
- b) Baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza jasotzea administrazio publikoekiko harremanetan.
- c) Norberaren autonomia-erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzea, lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera.
- d) Informazio publikora, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera.
- e) Errespetuz eta begirunez tratatuak izatea agintarien eta enplegatu publikoen aldetik, erraztasunak emanez beren eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko.
- f) Administrazio publikoen eta agintarien erantzukizuna eskatzea, legez hala dagokionean.

g) Lege honetan identifikaziorako eta sinadura elektronikorako aurreikusitako bitartekoak lortzea eta erabiltzea.

h) Datu pertsonalak babestea, eta bereziki administrazio publikoen fitxategi, sistema eta aplikazioetan jasota dauden datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna izatea.

i) Konstituzioak eta legeek aitortzen dizkieten gainerako eskubide guztiak.

Eskubide horiek ez dituzte eragozten administrazio-prozeduran interesdun direnei 53. artikuluan aitortutakoak.

14. artikulua. *Administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubidea eta betebeharra.*

1. Pertsona fisikoek noiznahi erabaki dezakete beren eskubideak eta betebeharrak baliatzeko administrazio publikoekin komunikatzean bitarteko elektronikoak erabili edo ez, non eta ez dauden behartuak administrazio publikoekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izatera. Administrazio publikoekin komunikatzeko aukeratu duen bidea noiznahi aldatu ahal izango du norberak.

2. Betiere, administrazio-prozedura baten edozein izapidetarako administrazio publikoekin harremana bitarteko elektronikoz izatera behartuak egongo dira honako hauek, gutxienez:

a) Pertsona juridikoak.

b) Nortasun juridikorik gabeko entitateak.

c) Diharduten jarduera profesionalean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak, jarduera profesional hori dela-eta administrazio publikoekin egin behar dituzten izapide eta jarduketetarako. Kolektibo horretakotzat joko dira beti notarioak, jabetzaren erregistratzaileak eta merkataritza-erregistratzaileak.

d) Administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartua dagoen interesdun baten ordezkari direnak.

e) Administrazio publikoetako enplegatuak, enplegatu publiko izateagatik administraziookoin egiten dituzten izapide eta jarduketetarako, administrazio bakoitzak erregelamenduz zehazten duen eran.

3. Erregelamenduz, administrazioek haiekin harremana nahitaez bitarteko elektronikoz izan beharra ezarri ahal izango dute zenbait prozeduratarako eta pertsona fisikoen multzo batzuentzat, haien gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik egiaztaturik badago behar diren bitarteko elektronikoetarako irispidea eta eskuragarritasuna badutela.

15. artikulua. *Prozeduretako hizkuntza.*

1. Gaztelania izango da Estatuaren Administrazio Orokorak izapidetzen dituen prozeduretako hizkuntza. Dena den, Estatuaren Administrazio Orokorak autonomia-erkidego batean dituen organoetara jotzean, autonomia-erkidego horretan koofiziala den beste hizkuntza ere erabil dezakete interesdunek.

Kasu horretan, interesdunak aukeratutako hizkuntzan izapidetuko da prozedura. Prozeduran interesdun bat baino gehiago bada eta hizkuntza bera aukeratzeko ez badute, gaztelaniaz izapidetuko da prozedura, baina haiek aukeratutako hizkuntzan emango zaizkie interesdunei dokumentu edo lekukotasunak.

2. Autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako administrazioek izapidetutako prozeduretan, dagokion legeria autonomikoan ezarritakoari lotuko zaio hizkuntzaren erabilera.

3. Administrazio publiko instrukzio-egileak gaztelaniara itzuli beharko ditu autonomia-erkidegoko lurraldetik harago ondorioak izan behar dituzten dokumentu edo espedienteak edo haien atalak eta espresuki hala eskatzen duten interesdunei zuzendutako dokumentuak. Gaztelaniaz besteko hizkuntza koofizial bera duen autonomia-erkidego batean izan behar badituzte ondorioak, ez da beharrezko izango itzultzea.

16. artikulua. *Erregistroak.*

1. Administrazio bakoitzak erregistro elektronikorokor bat izango du, hartan idazpena egiteko edozein dokumentu aurkezten edo jasotzen dela ere administrazio horri lotutako edo haren mendeko edozein administrazio-organo, organismo publiko edo entitatetan. Erregistro horretan jaso ahal izango da, halaber, beste organo edo partikular batzuei zuzendutako dokumentu ofizialen irteera ere.

Administrazio bakoitzari lotutako edo haren mendeko organismo publikoek beren erregistro elektronikoa eduki ahal izango dute, buru duten administrazioaren erregistro elektronikorokorrekin osotara lotua eta elkarreragingarria.

Administrazio bakoitzaren erregistro elektronikorokorrek atari baten moduan funtzionatu du, organismo bakoitzari erregistro elektronikoa irispidea erraztuz. Legeriak datu pertsonalen babesari dagokionez aurreikusten dituen bermeak eta segurtasun-neurriak bete beharra daukate bai administrazio bakoitzaren erregistro elektronikorokorrek eta bai organismo bakoitzaren erregistro elektronikoei.

Erregistro elektronikoei sortzeko xedapenak dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko dira, eta haien testu osoak kontsultatzeko eskuragarri egon behar du erregistrora irispidea duen egoitza elektronikoa. Betiere, erregistro elektronikoei sortzeko xedapenak zehaztu behar dute zer organok edo unitatek duen haien kudeaketaren ardura, zein den data eta ordu ofiziala, eta zer egun diren baliogabeak.

Erregistro bakoitzera irispidea duen egoitza elektronikoa agertuko da hartan has daitezkeen izapideen zerrenda eguneratua.

2. Dokumentuen sarrera- edo irteera-egunaren hurrenkera errespetatuz egingo dira idazpenak, eta sarrera edo irteeraren data adieraziko da haietan. Dokumentuak erregistratzeko izapidea amaitutakoan, hartzaileei eta dagozkien administrazio-unitateei bidaliko zaizkie, geroratu gabe, jaso diren erregistrotik bertatik.

3. Administrazio edo organismo bakoitzaren erregistro elektronikoei bermatu behar du egiten den idazpen bakoitzean jasotzen direla honako hauek: zenbakia, izaera adierazten duen izenburua, aurkezpen-data eta -ordua, interesdunaren identifikazioa, administrazio-organo igorlea, hala badagokio, eta nori edo zer administrazio-organori igortzen zaion eta, behar izanez gero, erregistratzen den dokumentuaren edukia aipamena. Horretarako, jaso-agiri gisa emango da, automatikoki, dokumentuaren kopia autentikatu bat, aurkezpen-data eta -orduarekin eta erregistroaren sarrera-zenbakiarekin, eta orobat harekin batera doazen –hala bada– bestelako dokumentuen jaso-agiri bat ere, haien osotasuna eta gaitzespenik eza bermatuko duena.

4. Interesdunek toki hauetan aurkeztu ahal izango dituzte administrazio publikoetako organoetara zuzentzen dituzten dokumentuak:

- a) Zuzentzen zaizkion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoa, eta 2.1 artikuluan aipatzen diren subjektuetako edozeinen gainerako erregistro elektronikoa.
- b) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.
- c) Espainiak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.
- d) Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.
- e) Indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan.

Administrazio guzti-guztien erregistro elektronikoei osotara elkarreragingarriak izan behar dute, hartara berma dadin haien bateragarritasun informatikoa eta elkarrekiko konexioa, eta orobat erregistro-idazpenen eta edozein erregistroan aurkezten diren dokumentuen transmisio telematikoa.

5. Administrazio publikoen aurrean eskura aurkezten diren dokumentuak administrazio-espeditante elektronikoa irispideko digitalizatu egin beharko ditu erregistro-gaietan laguntzeko bulegoak, 27. artikuluan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan aurreikusitakoaren arabera: zein bulegoan aurkeztu diren, bulego horrek digitalizatuko ditu, hain zuzen. Jatorrizko dokumentuak interesdunari itzuliko zaizkio, baina zenbait kasutan gerta daiteke arauak agintzea aurkezten diren dokumentuak Administrazioak

zaintzekoak direla edo nahitaezkoa dela digitalizatzeko aukerarik ematen ez duen euskarri espezifikoren batean aurkeztea objektuak edo dokumentuak.

Erregelamenduz, administrazioek zenbait dokumentu bitarteko elektronikoz aurkeztu beharra ezarri ahal izango dute zenbait prozeduratarako eta pertsona fisikoen multzo batzuentzat, haien gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik egiaztaturik badago behar diren bitarteko elektronikoa irispidea eta eskuragarritasuna badutela.

6. Dagokion bulego publikora zuzendutako transferentzia baten bidez ordaindu ahal izango da dokumentuak administrazio publikoen aurrean aurkezteko unean ordaindu beharreko edozein diru-kopuru, hargatik eragotzi gabe beste bideren batetik ordaintzeko aukera.

7. Dokumentuak elektronikoki aurkezteko laguntza emango den bulegoen zerrenda bat publiko egin behar dute administrazio publikoek, eta eguneraturik mantendu.

8. Ez dira erregistroan aurkeztuzat joko beren araubide bereziaren arabera beste aurkezpen-moduren bat behar duten dokumentuak eta informazioa.

17. artikulua. *Dokumentuak artxibatzea.*

1. Amaitutako prozedurei dagokien artxibo elektronikoki bakar bat izan beharko du administrazio bakoitzak, aplikatzekoa den araudian ezarritako moduan.

2. Dokumentu elektronikoki haien autentikotasuna, osotasuna eta kontserbazioa bermatuko dituen formatu batean kontserbatu behar dira, eta orobat bermatu behar da haiek kontsultatzeko modua izango dela, eman zirenetik igaro den denbora gorabehera. Beti segurtatu beharko da datuak beste formatu eta euskarri batzuetara eramateko aukera, irispidea bestelako aplikazioetatik ere bermatzeko moduan. Dokumentuak deuseztatze, baimena beharko da, aplikatzekoa den araudian xedatutakoaren arabera.

3. Dokumentuak biltegitartzeko bitarteko edo euskarriek segurtasun-neurriak izan beharko dituzte, Segurtasunaren Eskema Nazionalean aurreikusitakoaren arabera, biltegitartutako dokumentuen osotasuna, autentikotasuna, konfidentzialtasuna, kalitatea, babesa eta kontserbazioa bermatzeko. Bereziki, erabiltzaileen identifikazioa eta irispide-kontrola segurtatu beharko dute, eta, orobat, datuen babeserako legerian aurreikusitako bermeak betetzen direla.

18. artikulua. *Pertsonen elkarlana.*

1. Pertsonak elkarlanean jardungo dute Administrazioarekin, kasu bakoitzean aplikatzekoa den legeak aurreikusitako moduan, eta, aurreikuspen espresurik ezean, Administrazioaren eskura jarriko dituzte beren eskumenak baliatzeko behar dituzten txostenak, ikuskapenak eta gainerako ikerketa-egintzak, non eta Administrazioak eskatutako informazioa agerian jartzeak ez dion erasotzen ohoreari edo norberaren edo familiaren intimitateari edo ez dakarren hirugarren batzuen datu konfidentzialak zabaltzea, diagnostiko-, aholkularitza- edo defentsa-zerbitzu profesionalak ematean izan delarik haien berri, hargatik eragotzi gabe legeriak kapital-zuriketaren eta jarduera terroristen finantzaketaren gaian xedatzen duena.

2. Prozeduran agertu ez diren beste interesdun batzuk identifikatzeko datuak dituzten interesdunak behartuta daude datu horiek diharduen administrazioari jakinaraztera.

3. Ukituaren egoitzan edo titularraren baimena beharrezko den gainerako lekuetan sartu beharra badago ikuskapena egiteko, 100. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

19. artikulua. *Pertsonen agerraldia.*

1. Pertsonak bulego publikoetan agertzea, bertara joanez edo bitarteko elektronikoki, lege-mailako arauen batean hala ezarrita dagoenean bakarrik izango da nahitaezkoa.

2. Agerraldia egin beharra dagoenean, hartarako zitazioan espresuki adieraziko dira lekua, data, ordua, eskura dauden bitartekoak eta agerraldiaren xedea, bai eta zitazioari ez erantzutearen ondorioak ere.

3. Agerraldia egin izana egiaztatzen duen ziurtagiria emango diote administrazio publikoek interesdunari, hala eskatzen bada.

20. artikulua. *Izapideen erantzukizuna.*

1. Gaiak ebazteko edo bideratzeko ardura duten administrazio-unitateetako arduradunak eta administrazio publikoetako langileak dira, zuzenean, izapideen erantzule, eta hartu beharreko neurriak hartuko dituzte izapideetan sor daitezkeen oztopoak kentzeko, interesdunek eragozpenik, zailtasunik edo atzerapenik izan ez dezaten beren eskubideez baliatzeari edo beren interes legitimoak errespetatzeari dagokionez. Hartu beharreko neurriak hartuko dituzte, beraz, prozedurak izapidetzeari okerrik ez izateko eta, izan bada, ezabatzeke.

2. Interesdunek erantzukizun hori galdatzeko eska diezaiokeite ukitutako pertsonala mendean daukan administrazio publikoari.

21. artikulua. *Ebazteko betebeharra.*

1. Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua.

Preskripzioa, eskubideari uko egitea, prozedura iraungitzea edo eskaeran atzera egitea gertatzen denean, eta orobat prozeduraren xedea gerora desagertzen denean, kasuan-kasuan gertatutakoa adieraztea izango da ebazpena, jazotako egitateak eta aplikatzekoak diren arauak zehaztuta.

Lehenengo paragrafoan aipatutako betebeharretik salbuetsita daude prozedura itun edo hitzarmen bidez amaitzen diren kasuak eta, orobat, erantzukizunpeko adierazpena edo Administrazioari komunikatzea beste betebeharririk ez dakarten eskubideak baliatzeari dagozkion prozedurak.

2. Ebazpen espresua jakinarazteko gehieneko epea, dagokion prozedura arautzen duen arauan zehaztutakoa izango da.

Epe hori ezin da sei hilabete baino gehiago izan, non eta lege-mailako arau batek ez duen handiagoa ezartzen edo Europar Batasuneko zuzenbidean ez den hala aurreikusten.

3. Prozedurei dagozkien arauetan ezarrita ez badago, hiru hilabete izango da gehieneko epea. Epe hori eta aurreko zenbakian adierazitakoak honela zenbatuko dira:

- a) Ofizioz hasitako prozeduretan, hasteko erabakiaren egunetik aurrera.
- b) Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, izapidetzeko eskumena duen administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan eskaera sartu den egunetik aurrera.

4. Administrazio publikoek argitaratu eta eguneratuta eduki behar dituzte webgunean, jendearen informaziorako, beren eskumeneko prozeduren zerrendak, haien gehieneko iraupenak eta administrazio-isiltasunaren ondorioak adierazirik.

Beti ere, administrazio publikoek interesdunei jakinarazi beharra daukate zer gehieneko epe dagoen ezarrita prozedurak ebazteko eta haiei amaiera ematen dieten egintzak jakinarazteko, eta, orobat, zer ondorio izan ditzakeen administrazio-isiltasunak. Aipamen hori sartuko da ofizioz hasteko erabakiaren jakinarazpen edo argitalpenean, edo horretarako zuzenduko den komunikazioan, zeina interesdunari igorriko baitzaio izapidetzeko eskumena duen administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan prozedura hasteko eskaera jaso eta hurrengo hamar egunen barruan. Azken kasu horretan, komunikazioak adierazi behar du organo eskudunak eskaera zer datatan jaso duen ere.

5. Egindako eskaeren edo ukitutako pertsonen kopuruak ebazpena emateko gehieneko epea ez betetzea ekar lezakeenean, ebazteko eskumena duen organoak, instrukzio-organok –arrazoiturik– hala proposatuta, edo ebazteko eskumena duen organoaren hierarkian goragoko mailakoak, haren proposamenez, egoki eta epean bideratzeko behar diren baliabide pertsonal eta materialak jarri ahal izango ditu.

6. Gaiak bideratzeaz arduratu behar duten administrazio publikoetako langileek, eta orobat instrukzioa egin eta ebazpena emateko eskumena duten administrazio-organotako

titularrek, zuzeneko erantzukizuna dute, bakoitzak bere eskumen-eremuan, epe barruan ebazpen espresua emateko legez ezarrita dagoen betebeharra konpli dadin.

Betebehar hori konplitu ezean, diziplina-erantzukizuna galdatuko zaie, aplikatzekoa den araudian ezarritako erantzukizunaz gainera.

22. artikulua. *Ebazteko gehieneko epea etetea.*

1. Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko legez ezarri den gehieneko epea eten daiteke kasu hauetan:

a) Interesdunen bati akatsak zuzen ditzan edo beharrezko diren dokumentuak eta irizpen-elementuak bidal ditzan eskatu behar zaionean, epea etengo da interesdunari errekerimendua jakinarazten zaionetik agindutakoa bete arteko denboran edo betetzeko emandako epean, betiere lege honen 68. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta.

b) Aurrez Europar Batasuneko organoren batek nahitaez irizpena eman behar duenean, epea etengo da horretarako eskaera egiten denetik –interesdunei komunikatu beharko zaie– irizpena administrazio instrukturari jakinarazi arte –hori ere komunikatu beharko zaie–.

c) Europar Batasunaren eremuan amaitu gabeko prozeduraren bat baldin bada, eman beharreko ebazpenaren edukia zuzenean baldintzatzen duena, badela jakiten denetik –interesdunei berehala komunikatu beharko zaie halako prozedura bat badela– ebazten den arte –hori ere jakinarazi beharko zaie–.

d) Administrazio bereko edo beste bateko organo bati nahitaez txostena eskatu behar zaionean, epea etenda egongo da eskaera egiten denetik txostena jaso arte –interesdunei komunikatu behar zaie gauza bat eta bestea–. Eten hori ezin izan daiteke inoiz hiru hilabete baino gehiagokoa. Txostena ez bada adierazitako epean jasotzen, jarraitu egingo du prozedurak.

e) Interesdunek proposaturik proba teknikoak edo azterlan kontraesanezko edo erabakigarriak egin behar direnean, epea etengo da emaitzak espedientean sartzeko behar den denboran.

f) Itun edo hitzarmen baterako negoziazioak hasten direnean, betiere lege honen 86. artikuluan ezarritakoari jarraituz, epea etengo da negoziazioaren hasiera formala adierazten denetik negoziazioa ondoriorik gabe amaitu arte, hala gertatzen bada; hori jasota geratuko da Administrazioak edo interesdunek egindako adierazpen baten bitartez.

g) Prozedura ebazteko ezinbestekoa bada jurisdikzio-organok alde aurretik irizpena ematea, epea etengo da irizpena eskatzen denetik –interesdunei komunikatu beharko zaie– Administrazioak hura jasotzen duen arte –hori ere komunikatu beharko zaie–.

2. Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko legez ezarri den gehieneko epea etengo da kasu hauetan:

a) Administrazio publiko batek beste bati errekerimendua egiten badio legez kontrako deritzon egintza bat deusezta edo berrikus dezan, egintza hori izanik lehenak bere eskumenean barruan eman behar duen egintza baterako oinarria, lege honen 39. artikuluan 5. zenbakian aipatzen den kasuan, epea etengo da errekerimendua egiten denetik erantzuten zaion arte edo, hala gertatzen bada, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan jarritako errekurtsioa ebazten den arte. Interesdunei komunikatu beharko zaie, bai errekerimendua egin dela, bai bete dela edo, hala gertatzen bada, dagokion administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ebatzi dela.

b) Ebazteko eskumena duen organok erabakitzen badu 87. artikuluan aurreikusitako osagarri den jarduketaren bat egitea, epea etengo da interesdunei jarduketak hasteko erabaki arrazoitua jakinarazten zaionetik jarduera hori amaitzen den arte.

c) Interesdunek errekusazioa sustatzen badute prozedura bat izapidetzen ari den bitarteko edozein unetan, epea etengo da errekusazioa planteatzen denetik hasi eta errekusatuaren hierarkian goragoko mailakoak hartaz ebazten duen arte.

23. artikulua. *Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea luzatzea.*

1. Salbuespenezko moduan, 21. artikulua 5. zenbakian aipatzen diren baliabide pertsonal eta material eskuragarriak agortu direnean, ebazteko eskumena duen organoak, hala badagokio instrukzio-organok edo ebazteko eskumena duen organoaren hierarkian goragoko mailakoak proposaturik, erabaki ahal izango du, arrazoiturik, ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea luzatu egin dela; inoiz ezin izango da prozedura izapidetzeko ezarritako epea baino luzeagoa izan.

2. Epea luzatzeaz ebazteko erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie, eta haren aurka ezin izango da inolako errekurtsorik aurkeztu.

24. artikulua. *Administrazio-isiltasuna interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan.*

1. Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, hargatik eragotzi gabe Administrazioak artikulua honen 3. zenbakian aurreikusitako moduan eman behar duen ebazpena, gehieneko epea ebazpen espresurik gabe igarotzeak zilegitasuna ematen die interesdunei administrazio-isiltasunez baietsizat jotzeko, non eta ez duen kontrakoa agintzen lege-mailako arauen batek edo Espainian aplikatzekoa den Europar Batasuneko zuzenbideko edo nazioarteko zuzenbideko arauen batek. Prozeduraren xedea jarduera baterako irispidea izatea edo jarduera horretan aritzea denean, isiltasunak balio ezleslea duela xedatzen duen legeak interes orokorreko arrazoi erabatekoetan oinarritu beharko du.

Isiltasunak balio ezleslea izango du Konstituzioaren 29. artikulua aipatzen duen eske-eskubideaz baliatzeari buruzko prozeduretan, baiestearen ondorioz eskatzaileari edo hirugarren batzuei jabari publikoaren edo zerbitzu publikoaren gaineko ahalmenak eskuratuko litzaizkiekeen prozeduretan, ingurumenari kalte egin liezaioketen jarduerak egitea dakartenetan eta administrazio publikoen ondare-erantzukizunari buruzko prozeduretan.

Isiltasunak balio ezleslea izango du, orobat, egintza eta xedapenak aurkaratzeko prozeduretan eta interesdunek eskaturik hasitako ofiziozko berrikuspenari buruzkoetan. Hala ere, gora jotzeko errekurtsioa epea igarotzeagatik eskaera bat administrazio-isiltasunez ezetsi izanaren aurka jarria bada, baietsizat joko da ebazpen-epea heldutakoan eskumena duen administrazio-organok ebazpen espresua eman eta jakinarazi ezean, non eta ez den zenbaki honen aurreko paragrafoan zerrendatutako gaietako buruzkoa.

2. Administrazio-isiltasunez baiestea, ondorio guztietarako, prozedura amaitzen duen administrazio-egintzat joko da. Administrazio-isiltasunez ezestearen ondorio bakarra zera izango da: interesdunek aukera izatea bidezko den administrazio-errekurtsioa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkezteko.

3. Ebazpen espresua emateko betebeharra, 21. artikuluko lehen zenbakian ezarria, araubide honi atxikiko zaio:

a) Administrazio-isiltasunez baiesten den kasuetan, egintzaren ondorengo ebazpen espresua hura berresteko baino ezin da izan.

b) Administrazio-isiltasunez ezesten den kasuetan, epea igaro ondorengo ebazpen espresua emateko orduan, Administrazioarentzat ez da loteslea isiltasunaren esanahia.

4. Administrazio-isiltasunaren bidez gertatutako administrazio-egintzak baliarazi ahalko dira hala Administrazioaren aurrean nola edozein pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribaturen aurrean. Egintza horiek ondorioak dituzte ebazpen espresua emateko eta jakinarazteko gehieneko epea ebazpenik eman gabe igarotzen denetik, eta egintza horien existentzia egiazta daiteke zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bitartez, isiltasunaren ziurtagiria barne. Ziurtagiri hori ofizioz emango du ebazteko eskumena duen organoak, hamabost eguneko epean, prozedura ebazteko gehieneko epea amaitzen denetik aurrera zenbaturik. Nolanahi ere, interesdunak noiznahi eskatu ahal izango du ziurtagiria, eta, aipatutako epea zenbatzeko, ebazteko eskumena duen administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan eskaera sartu den egunaren biharamuna hartuko da lehen egintzat.

25. artikulua. *Ebazpen espresurik eza ofizioz hasitako prozeduretan.*

1. Ofizioz hasitako prozeduretan, gehieneko epean ebazpen espresua eman eta jakinarazi ez izateak ez du administrazioa salbuesten ebazteko betebeharrak legezkotik, eta hauek izango dira ondorioak:

a) Eskubideak aitortzea edo aldeko beste egoera juridikoren batzuk sortzea erator daitekeen prozeduretan, agertu diren interesdunek administrazio-isiltasunez ezetsitatzat joko ditzakete beren uziak.

b) Zehatzeko ahalak edo, oro har, esku hartzeko ahalak baliatu baditu Administrazioak prozeduran, interesduneri ondorio kaltegarriak edo zorrak sorrarazteko modukoak, iraungi egingo da prozedura. Kasu horietan, prozedura iraungi dela adierazten duen ebazpenak jarduketak artxibatzeke aginduko du, eta 95. artikuluan adierazitako ondorioak izango ditu.

2. Prozedura interesdunari inputa lekiokkeen arrazoiren bategatik geldiarazi den kasuetan, hasierara itzuliko da ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen zenbaketa.

26. artikulua. *Administrazio publikoek dokumentuak ematea.*

1. Administrazio-dokumentu publikotzat joko dira administrazio publikoen organoek baliozko moduan emandako dokumentuak. Administrazio publikoek idatziz emango dituzte administrazio-dokumentuak, bitarteko elektronikoen bidez, non eta haien izaerak ez duen eskatzen adierazteko eta jasota geratzeko beste modu egokiagoren bat aukeratzea.

2. Baliozkotzat jotzeko, baldintza hauek bete beharko dituzte administrazio-dokumentu elektronikoenak:

a) Edozein eratako euskarri elektronikoen artxibaturik izatea informazioa, identifikatzeko eta bereiziki tratatzeko modukoa den formatu baten arabera.

b) Indibidualizatzeko aukera ematen duten identifikazio-datuak izatea, hargatik eragotzi gabe espediente elektronikoen batean sartzeko aukera.

c) Eman diren unearen denbora-erreferentzia bat izatea.

d) Eskatzen diren gutxieneko metadatuak izatea.

e) Aplikatzekoa den araudiaren arabera dagozkion sinadura elektronikoenak izatea.

Baliozkotzat joko dira betekizun horiek betetzen dituzten eta hirugarren bati bitarteko elektronikoen helarazten zaizkion dokumentu elektronikoenak.

3. Ez dute sinadura elektronikoen beharrik izango administrazio publikoek eman eta informazio hutserako argitaratzen diren dokumentu elektronikoenak, eta orobat administrazio-espediente baten parte ez direnek. Dokumentu horien jatorria beti identifikatu beharra dago.

27. artikulua. *Administrazio publikoek egindako kopien baliozkotasuna eta efikazia.*

1. Administrazio publiko bakoitzak erabakiko du zer organok dituzten eskumenak administrazio-dokumentu publiko edo pribatuen kopia autentikoak egiteko.

Dokumentu pribatuen kopia autentikoek ondorio administratibo hutsak dituzte. Administrazio publiko batek egindako kopia autentikoak baliozkoak izango dira gainerako administrazioetan.

Estatuaren Administrazio Orokorrek, autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek funtzionario gaitu baten bitartez edo administrazio-jarduketa automatizatuaren bitartez egin ahal izango dituzte kopia autentikoak.

Eguneraturik eduki beharko da erregistro bat, edo beste sistema baliokide bat, kopia autentikoak egiteko gaituta dauden funtzionarioak agertuko dituen. Erregistro edo sistema horrek eta gainerako administrazio publikoetakoek erabat elkarreragingarriak izan behar dute, eta elkarrekin konektaturik egon, gaikuntza horren baliozkotasuna egiaztatzeko. Erregistro edo sistema baliokidean agertuko dira, gutxienez, erregistro-gaia laguntzeko bulegoetan zerbitzu egiten duten funtzionarioak.

2. Administrazio-dokumentu publiko edo pribatu baten kopia autentikotzat joko dira, edozein euskarritan eginda daudela ere, administrazio publikoetako organo eskudunek egindakoak, bermaturik geratzen bada kopia egin duen organoaren identitatea eta dokumentuaren edukia.

Kopia autentikoen jatorrizko dokumentuen baliozkotasun eta efikazia bera izango dute.

3. Kopia elektronikoen edo paperezkoen identitatea eta edukia bermatzeko eta, beraz, kopia autentikoa direla bermatzeko, administrazio publikoek bete beharra daukate Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalan, Segurtasunaren Eskema Nazionalan eta haiek garatzeko arau teknikoetan aurreikusitakoa, eta orobat erregela hauek:

a) Jatorrizko dokumentu elektronikoen baten edo kopia elektronikoen autentikoen baten kopia elektronikoen, formatu-aldaketa izan edo ez, berekin eraman beharko dituzte kopia direla egiaztatzen duten eta dokumentua kontsultatzean bistaratzen diren metadatuak.

b) Paper-euskarria edo digitaliza daitekeen beste euskarri ez-elektroniko bat duten dokumentuen kopia elektronikoen kasuan, dokumentuak digitalizatu egin beharko dira, eta kopiek berekin eraman beharko dituzte kopia direla egiaztatzen duten eta dokumentua kontsultatzean bistaratzen diren metadatuak.

Digitalizazioa prozesu teknologiko bat da zeinaren bitartez paper-euskarria edo beste euskarri ez-elektroniko bat duen dokumentu bat dokumentuaren irudi kodetu, leial eta osoa duen fitxategi elektronikoen bidez bideratzen baita.

c) Dokumentu elektronikoen paper-euskarriko kopiek adierazi beharra daukate kopia direla, eta kode elektronikoki sortu bat edo beste egiaztatze-sistema bat izan behar dute, aukera emango duena kopiaren autentikotasuna kontrastatzeko, kopia egin duen organo edo organismo publikoaren artxibo elektronikoen sartuz.

d) Paperean diren jatorrizko dokumentuen paper-euskarriko kopiak Administrazioaren esku dagoen dokumentu elektronikoen paperezko kopia autentikoa bat eginez emango dira, edo, bestela, jatorrizko dokumentuaren kopia autentikoa daraman agerbide elektronikoen baten bitartez.

Ondorio horietarako, administrazioek publiko egingo dituzte, dagokion egoitza elektronikoen bitartez, egiaztapen-kode seguruak edo erabilitako bestelako egiaztatze-sistema.

4. Interesdunek noiznahi eskatu ahal izango dute administrazio publikoek baliozko moduan emandako administrazio-dokumentu publikoen kopia autentikoa emateko. Jatorrizko dokumentua eman zuen organoari zuzenduko zaio eskaera, eta, alde batera utzita abenduaren 9ko 19/2013 Legea aplikatzeak dakartzan salbuespenak, hamabost eguneko epean eman beharko dira, eskaera administrazio edo organismo eskudunen erregistro elektronikoen jasotzen denetik aurrera zenbaturik.

Era berean, administrazio publikoak behartuak daude kopia elektronikoen autentikoa ematera interesdunek aurkezten duten eta administrazio-espeditante batean sartu behar den paperezko edozein dokumentutatik.

5. Administrazio publikoek kopia elektronikoen autentikoa ematen dituztenean, espresuki hala adierazirik egon behar du kopiaren dokumentuan.

6. Notario-dokumentu publiko, erregistro-dokumentu publiko eta dokumentu judizial publikoen eta aldizkari ofizialen kopia autentikoa emateko modua bakoitzaren legeria espezifikoen arabera izango da.

28. artikulua. *Administrazio-prozeduran interesdun direnek ekarritako dokumentuak.*

1. Interesdunek administrazio-prozedurara ekarri beharko dituzte administrazio publikoek aplikatzeko den araudiaren arabera eskatzen dituzten datu eta dokumentuak. Komenigarritzat jotzen duten beste edozein dokumentu ere ekar dezakete interesdunek.

2. Interesdunak ez daude beharturik administrazioaren batek eginak diren dokumentuen kopiak ekartzera, nahiz dokumentu horiek prozeduran aurkeztea nahitaezkoa izan nahiz aukerakoa izan, betiere interesdunak adostasuna adierazi badiu dokumentu horiek kontsultatzeari edo ateratzeari. Kontsultatzea edo ateratzea interesdunek

baimendua delako presuntzioa egingo da, ez badute prozeduran kontrakotasun espresua adierazi edo aplikatzekoa den lege bereziak ez badu agintzen adostasun espresua adierazi beharra dagoela.

Interesdunaren kontrakotasunik ezean, administrazio publikoek elektronikoki eskuratu beharko dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bitartez edo datu-bitartekaritzarako plataformei edo hartarako prestatutako beste sistema elektronikoren bati kontsulta eginez.

Nahitaezko txosten bat lehendik egina duenean prozedura izapidetzen ari den administrazio-organoz beste batek, hamar eguneko epean bidali beharko du hark, eskatzen denetik aurrera zenbaturik. Epe hori betetakoan, interesdunari jakinaraziko zaio ekar dezakeela txosten hori edo gelditu daitekeela organo eskudunak bidaltzeko zain.

3. Administrazioek ez diete interesdunari eskatutako jatorrizko dokumentuak aurkezteko, non eta, salbuespenezko moduan, aplikatzekoa den araudiak ez duen hala agintzen.

Era berean, administrazio publikoek ez diete interesdunari galdutako aplikatzekoa den araudiak eskatzen ez duen edo interesdunak lehendik administrazioaren bati ekarria dion datu edo dokumenturik. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, eta administrazio publikoek elektronikoki atera beharko dituzte beren sare korporatiboen bidez edo datu-bitartekaritzarako plataformetan edo hartarako prestatutako gainerako sistema elektronikoen bidez kontsulta eginez. Presuntzio egingo da kontsulta hori interesdunek baimendua dela, non eta prozeduran ez den haren kontrakotasun espresua jasotzen edo aplikatzekoa den lege bereziak ez duen eskatzen adostasun espresua ematea; bi kasuetan ere, aurrez informazioa eman beharko zaie datu pertsonalen babesaren aldetik dituzten eskubideei buruz. Salbuespenezko moduan, administrazio publikoek ezin badituzte aipatutako dokumentuak eskuratu, berriz ere eskatu ahal izango diete interesdunari ekar ditzala.

4. Baldin eta, salbuespenezko moduan eta lege honetan aurreikusitakoaren arabera, Administrazioak eskatzen badu jatorrizko dokumentu bat aurkezteko eta hura paperean badago, interesdunak kopia autentiko bat lortu beharko du, 27. artikuluan ezarritako betekizunen arabera, elektronikoki aurkeztu baino lehen. Ateratzen den kopia elektronikoak espresuki jasoko du xehetasun hori.

5. Salbuespenezko moduan, dokumentuak prozeduran duen garrantziak hala eskatzen badu edo kopiaren kalitateak zalantza eragiten badu, administrazioek eskatu ahal izango dute, arrazoiturik, interesdunak ekarritako kopiak alderatzeko; horretarako, jatorrizko dokumentua edo informazioa erakusteko eskatu beharko dute.

6. Interesdunek administrazio-prozedurara ekartzen dituzten kopiek administrazio publikoen jardueraren eremuan bakarrik izango dute eragindakia.

7. Interesdunak izango dira aurkezten dituzten dokumentuen egiazkotasunaren erantzule.

II. KAPITULUA

Epe-mugak eta epeak

29. artikulua. *Epe-mugak eta epeak bete beharra.*

Lege honetan edo beste batzuetan ezarritako epe-mugak eta epeak bete beharrekoak dira gaiak izapidetzeko eskumena duten administrazio publikoetako agintari eta langileentzat eta gai horietako interesdunentzat.

30. artikulua. *Epeen zenbaketa.*

1. Legeetan edo Europar Batasuneko zuzenbidean beste zenbaketarik adierazi ezean, epeak ordutan jartzen badira, ordu baliodunak direla joko da. Baliodunak dira egun baliodun bateko ordu guztiak.

Ordutan adierazitako epeak orduz ordu eta minutuz minutu zenbatuko dira dena delako egintza jakinarazten edo argitaratzen den ordu eta minututik aurrera, eta ezin izango dira izan hogeita lau ordu baino gehiagokoak, hala izanez gero egunetan adieraziko baitira.

2. Legez edo Europar Batasuneko zuzenbidean beste zenbaketarik adierazten ez den bitartean, epeak egunetan jartzen badira egun baliodunak direla ulertuko da; beraz, ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatutakoak.

Epeak egun naturaletan adierazi badira, hala eskatzen duelako lege batek edo Europar Batasuneko zuzenbideak, datu hori jaso egin behar da jakinarazpenetan.

3. Egunetan adierazitako epeak zenbatzeko lehen eguna egintza jakinarazten edo argitaratzen denaren biharamuna izango da, edo administrazio-isiltasunez baiesten edo ezesten denaren biharamuna.

4. Epea hilabetetan edo urtetan jartzen bada, berriz, egintza jakinarazi edo argitaratu den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuko da, edo administrazio-isiltasunez baiesten edo ezesten den egunaren biharamunetik.

Epearen amaierako hilabete edo urtean, jakinarazpena, argitalpena edo administrazio-isiltasuna gertatu den egun berean amaituko da epea. Muga-eguneko hilean ez bada hasierako egunaren baliozkerik, epea hilaren azken egunean bukatzen dela joko da.

5. Epearen azken eguna egun baliozgabea bada, hurrengo egun baliodunera luzatuko da epea.

6. Egun bat balioduna bada interesduna bizi den udalerrian edo autonomia-erkidegoan, eta baliozgabea administrazio-organoaren egoitzan, edo alderantziz, baliozgabezat hartuko da beti.

7. Estatuaren Administrazio Orokorrek eta autonomia-erkidegoetako administrazioek, lan-egutegi ofizialari lotuz, epeak zenbatzeko baliozgabe diren egunak ezarriko dituzte, bakoitzak bere eremuan. Autonomia-erkidegoek onetsitako egutegian, adierazita egongo dira egutegi hori aplikatuko den lurralde-eremuko toki-entitateen egun baliozgabeak.

Egutegia urtea hasi baino lehen argitaratu behar da dagokion aldizkari ofizialean, bai eta herritarrek horren berri izango dutela bermatuko duten bestelako hedabideetan ere.

8. Epe-zenbaketarako egun bat baliodun edo baliozgabe izateak ez du berez baldintzatzen ez administrazio publikoetako lantokietako jarduera, ez lan-orduen antolaketa, ez haietako lanaldi- eta ordutegi-araubidea ere.

31. artikulua. *Epeen zenbaketa erregistroetan.*

1. Administrazio publiko bakoitzak argitaratuko du zer egutegi eta ordutegitan egon behar duten irekita dokumentuen aurkezpen elektronikorako laguntza emango duten bulegoek, eta bermatuko du interesdunek bitarteko elektronikoen erabileran laguntza jasotzeko duten eskubidea.

2. Administrazio edo organismo bakoitzaren erregistro elektronikoak, epeen zenbaketarako, irispide-egoitza elektronikoaren data eta ordu ofiziala izango du; behar diren segurtasun-neurriak izango ditu haren osotasuna bermatzeko, eta modu irisgarrian eta ikusteko moduan agertu beharko du.

Erregistro elektronikoak erregela hauen arabera funtzionatuko du:

a) Aukera emango du dokumentuak aurkezteko urteko egun guztietan, eguneko hogeita lau orduetan.

b) Egun baliodunetan jarritako epeen zenbaketarako, eta interesdunek epeak betetzeari dagokionez, egun baliozgabean aurkeztutakoa hurrengo egun balioduneko lehen orduan aurkeztutzat joko da, non eta arauaren batek ez duen espresuki onartzen egun baliozgabean jasotzea.

Egun baliozgabean aurkeztu ziren ordu-hurrenkera berean aurkeztutzat joko dira dokumentuak. Egund baliozgabean aurkeztutako dokumentuak, hurrenkera berean, hurrengo egun baliodunetan aurkeztutakoak baino lehenagokotzat joko dira.

c) Administrazio publikoek bete beharreko epeak zenbatzen hasteko, administrazio edo organismo bakoitzaren erregistro elektronikoan aurkeztutako data eta ordua hartuko

dira kontuan. Betiere, dokumentua aurkeztu duenari komunikatu egin behar zaio zer data eta ordutan hasten den epea zenbatzen.

3. Administrazio publiko edo organismo bakoitzaren erregistroko egoitza elektronikoak erabakiko du, kontuan harturik haren titularrak eskumenak baliatzen dituen lurralde-eremua eta 30.7 artikuluan aurreikusitako egutegia, zer egun joko diren baliogabetzat artikulua honetan aurreikusitako ondorioetarako. Hori izango da erregistro elektronikoetan epeak zenbatzean aplikatuko den egun baliogabeen egutegi bakarria, eta ez da erregistrootan aplikatzekoa izango 30.6 artikuluan xedatutakoa.

32. artikulua. *Epea luzatzea.*

1. Administrazioak, ofizioz edo interesdunek eskaturik, luza dezake ezarritako epea, manuren batek kontrakoa ez badio, komenigarritzat jotzen bada eta hirugarren batzuen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Epearen erdia izan daiteke luzapena, gehienez ere. Epea luzatzeko erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie.

2. Baimenduta dagoen denbora guztirako luzatu behar dira epeak beti ordezkaritza diplomatikoen eta bulego kontsularrek izapidetutako prozeduretan, eta halaber barruan izapidetu arren atzerrian izapideren bat bete behar den edo Espainiatik kanpo bizi diren interesdunek esku hartzen duten prozeduretan.

3. Epea igaro baino lehen egin behar du interesdunak epea luzatzeko eskaera, eta epearen barruan hartu behar da hari buruzko erabakia ere. Inoiz ez da luzatuko amaituta dagoen epe bat. Epeak luzatzeari edo hori ukatzeari buruzko erabakien kontra ezin daiteke errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra dagokiona jartzeko aukera.

4. Gorabehera teknikoren batek eragotzi badu dagokion sistemak edo aplikazioak ohi bezala funtzionatzea, arazoa konpontzen den bitartean, amaitu ez diren epeak luzatzea erabaki ahal izango du Administrazioak. Egoitza elektronikoan argitara eman beharko du, bai gertatutako gorabehera teknikoak, bai bete gabeko epea zehazki zenbat luzatzen den.

33. artikulua. *Presaz izapidetzea.*

1. Interes publikoaren arrazoiak direla eta, prozedura presaz izapidetzea erabaki daiteke, ofizioz edo interesdunak eskaturik. Horrelakoetan, erdira murriztuko dira prozedura aruntaren epeak, salbu eta eskaerak eta errekurtsioak aurkeztekoak.

2. Ezin izango da errekurtsorik aurkeztu prozedura presaz izapidetzekoa dela deklaritzen duen erabakiaren kontra, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra dagokiona jartzea.

III. TITULUA

Administrazio-egintzak

I. KAPITULUA

Administrazio-egintzen betekizunak

34. artikulua. *Egintzak gauzatzea eta haien edukia.*

1. Administrazio publikoen ofiziozko nahiz interesdunak eskatutako egintzak eskumena duen organoak gauzatuko ditu, ezarritako betekizunei eta prozedurari jarraituz.

2. Egintzen edukia ordenamendu juridikoan ezarritakoari lotuko zaio, eta haren helburuetarako zehaztua eta egokitua izango da.

35. artikulua. *Arrazoitzea.*

1. Arrazoitu egin behar dira, egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur adieraziz:
 - a) Eskubide subjektiboak edo interes legitimoak murrizten dituzten egintzak.
 - b) Administrazio-xedapen edo -egintzak ofizioz berrikusteko prozedurak, administrazio-errekursoak eta arbitraje-prozedurak ebazten dituztenak eta onartzen ez direla deklaratzeko dutenak.
 - c) Lehenagoko jarduketetan erabilitako irizpidearekin edo organo aholku-emaileek emandako irizpenarekin bat ez datozen egintzak.
 - d) Egintzak eteteko erabakiak, eten izanaren arrazoa edozein dela ere, eta lege honen 56. artikuluan jasotako behin-behineko neurriak hartzekoak.
 - e) Presako izapidetzea aplikatzeko, epeak luzatzeko eta jarduketa osagarriak egiteko erabakiak.
 - f) Interesdunek proposatutako frogak baztertzen dituzten egintzak.
 - g) Gerora sortutako arrazoiengatik jarraitzea materialki ezinezkoa delako prozedura amaitzea erabakitzen duten egintzak, eta ofizioz hasitako prozeduretan Administrazioak atzera egiten duela erabakitzen dutenak.
 - h) Zehapen-prozeduretako ebazpen-proposamenak, eta zehapen-prozedurak edo ondare-erantzukizuneko prozedurak ebazten dituzten egintzak.
 - i) Ahal diskrezionalak baliatuz emandako egintzak, eta lege- edo erregelamendu-xedapen espresuren baten ondorioz hala behar dutenak.
2. Hautaketa-prozesuei eta lehia-konkurrentziako prozedurei amaiera ematen dieten egintzak arrazoitzeko, deialdien arauari begiratuko zaie; betiere, prozeduran egiaztatuta gelditu behar dute ematen den ebazpenaren oinarriak.

36. artikulua. *Forma.*

1. Administrazio-egintzak idatziz emango dira, bitarteko elektronikoen bidez, non eta haien izaerak ez duen eskatzen adierazteko eta jasota geratzeko beste modu egokiagoren bat.
2. Administrazio-organoei eskumena ahoz baliatzen dutenean, egintzak idatziz jasota geratu behar badu, mezua ahoz jaso duen beheagoko organoaren titularrak edo funtzionarioak jasoko eta izenpetuko du, eta, egintza komunikatzean, adieraziko du zer agintariki emana den. Ebazpenak badira, eskumenaren titularrak baimendu behar du ahoz eman dituen ebazpenen zerrenda bat, edukia azalduz.
3. Izaera bereko administrazio-egintza bat baino gehiago eman behar denean, hala nola izendapenak, emakidak eta lizentziak, denak egintza bakarrera biltzea erabaki dezake eskumena duen organoak, interesdun bakoitzarentzat egintzak dituen ondorioak indibidualizatzen dituzten pertsonak edo bestelako inguruabarrak zehaztuta.

II. KAPITULUA

Egintzen efikazia37. artikulua. *Bakarrarentzat indargabetu ezina.*

1. Administrazio-ebazpen partikularrek ezin dute urratu xedapen orokor batean ezarritakoa, nahiz eta xedapen orokorra eman zuenaren maila bereko edo hierarkian goragoko organo batenak izan.
2. Deusezak dira erregelamendu-xedapen batean ezarritakoa urratzen duten administrazio-xedapenak, eta orobat 47. artikuluan jasotako kausetakoren batean sartzen direnak.

38. artikulua. *Bete beharra.*

Administrazio Zuzenbideari dagozkion administrazio publikoen egintzak lege honetan xedatutakoaren arabera izango dira bete beharrekoak.

39. artikulua. *Ondorioak.*

1. Administrazio Zuzenbideari dagozkion administrazio publikoen egintzak presuntzios baliozkotzat hartuko dira eta ondorioak izango dituzte ematen diren egunetik, haietan besterik xedatzen ez bada.

2. Egintzaren efikazia geroratu egingo da egintzaren edukiak hala eskatzen badu edo jakinarazpenaren, argitalpenaren edo goragoko onespeneren mende badago.

3. Salbuespenezko moduan, atzeraeragina eman dakieke egintzei, deuseztatutako egintzaren baten ordezkioak direnean, eta orobat interesdunaren aldeko ondorioak dakartzatenean, betiere, batetik, egintzak efikazia izateko jarri den data berrian egitatezko baldintzak jadanik existitzen baziren, eta, bestetik, efikaziak kalterik egiten ez badie beste inoren eskubide edo interes legitimoei.

4. Administrazio publikoetako organoek bete egin behar dituzte gainerako administrazio publikoetako organoek beren eskumena baliatuz emandako arau eta egintzak, nahiz eta mendekotasun hierarkikorik ez izan haien artean edo beste administrazio batekoak izan.

5. Administrazio publiko batek, bere eskumena baliatuz, egintzaren bat eman behar badu nahitaez oinarrizkat hartu behar duena beste administrazio publiko batek emandako beste bat, eta hura legez kontrakoa dela irizten badiu, administrazio horri errekerimendua egin diezairoke egintza deuseztatu edo berrikus dezan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, errekerimenduari uko egiten badiote, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du. Halako kasuetan, prozedura eten egingo da ebazpena emateko.

40. artikulua. *Jakinarazpena.*

1. Administrazio-ebazpenak eta -egintzak ematen dituen organoak haien berri jakinaraziko die beren eskubide eta interesak ukitzen dizkien interesdunei, ondorengo artikuluetan aurreikusitako moduan.

2. Jakinarazpena hamar eguneko epean egin behar da, egintza ematen den egunetik zenbatuta. Jakinarazpenean, ebazpenaren testu osoa jaso behar da, eta adierazi behar da administrazio-bidetik behin betikoa den ala ez, zer errekurtsio jar daitezkeen, hala badagokio, administrazio-bidean eta auzibidean, zer organoren aurrean eta zer epetan, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtsio baliatzeko aukera.

3. Jakinarazpena egitean egintzaren testu osoa jaso arren bete gabe geratu bada aurreko zenbakian aipatutako gainerako betekizunetako bat, jakinarazpenak une honetatik izango ditu ondorioak: interesdunak jakinarazpenaren xede den ebazpen edo egintzaren edukia eta irismena zer den badakiela erakusten duen jardueraren bat egiten duenetik, edo egoki den edozein errekurtsio jartzen duenetik.

4. Aurreko zenbakian ezarritakoaren kalterik gabe, eta prozeduraren gehieneko epearen barruan jakinarazteko betebeharra beteta dagoela jotzearen ondorio hutsetarako, nahikoa izango da jakinarazpenak, gutxienez, ebazpenaren testu osoa izatea, eta jakinarazpena egiten saiatu direla egiaztatzea.

5. Administrazio publikoek egoki deritzoten neurriak hartu ahal izango dituzte administrazio-ebazpen eta egintzetan jasotako datu pertsonalak babesteko, interesdun bat baino gehiago denean jakinarazpenaren hartzaile.

41. artikulua. *Jakinarazpenak egiteko baldintza orokorrak.*

1. Jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egingo dira, ahal dela; interesduna behartua baldin badago bide horretatik jasotzera, beti.

Aurrekoa gorabehera, bitarteko ez elektronikoz egin ditzakete administrazioek jakinarazpenak kasu hauetan:

- a) Jakinarazpena egiteko arrazoia interesduna edo haren ordezkaria erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan agertzea bada eta une horretan eskatzen badu komunikazio edo jakinarazpen pertsonala.
- b) Administrazio-jarduketaren efikazia ziurtatzeko beharrezkoa bada jakinarazpena egiten duen administraziooko enplegatu publiko batek zuzenean emanegitea jakinarazpena.

Erabiltzen den metodoa erabiltzen dela ere, jakinarazpenak baliozkoak izango dira aukera ematen badute jasota geratzeko bidali dela edo eskura jarri dela, interesdunak edo haren ordezkariak jaso duela edo hartara irispidea izan duela, data eta ordua, eduki osoa, eta bidaltzailearen eta hartzailearen identitate fidagarria. Egindako jakinarazpenaren egiaztatzea espedienteari gehituko zaio.

Jakinarazpen elektronikoa jasotzera beharturik ez dauden interesdunek noiznahi erabaki ahal izango dute, eta administrazio publikoei komunikatu, hartarako jartzen diren eredu normalizatuen bidez, handik aurrerako jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egin daitezela edo hala egiteari utzi dakiola.

Erregelamenduz, administrazioek jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egiteko betebeharra ezarri ahal izango dute zenbait prozeduratarako eta pertsona fisikoen multzo batzuentzat, haien gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik egiaztatutako badago behar diren bitarteko elektronikoa irispidea eta eskuragarritasuna badutela.

Horrez gain, interesdunak gailu elektronikoa bat edo helbide elektronikoa bat eman ahal izango du, zeinak balioko baitu artikulua honetan erregulatutako abisuak bidaltzeko baina ez jakinarazpenak egiteko.

2. Inoiz ez dira bitarteko elektronikoz egingo honako jakinarazpen hauek:

- a) Jakinarazi beharreko egintzarekin batera formatu elektronikora ezin bihurtu daitezkeen elementuren bat igorri behar denekoak.
- b) Betebehardunaren aldeko ordainbideren bat daramatenak, hala nola txekueak.

3. Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, hark eskatutako bitartekoaren bidez egingo da jakinarazpena. Jakinarazpen hori elektronikoa izango da Administrazioarekin harremana hala izateko betebeharra dagoen kasuetan.

Jakinarazpena ezin bada egin eskatu bezala, horretarako egokia den edozein lekutan egingo da, eta interesdunak edo ordezkariak jaso duela segurtatzeko aukera ematen duen edozein bitartekoren bidez, eta orobat egiaztatzen duena data, identitatea eta jakinarazitako egintzaren edukia.

4. Ofizios hasitako prozeduretan, eta prozedura hasteko bakar-bakarrik, administrazio publikoek interesdunaren egoitzari buruz udal-errodan jasotako datuak eskuratu ahal izango dituzte, Estatistikako Institutu Nazionalaren datu-baseetan kontsulta eginda, toki-entitateek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak dioena betez bidalitako datuetatik.

5. Interesdunak edo haren ordezkariak uko egiten badiote administrazio-jarduketa baten jakinarazpena hartzeari, hala jasoko da espedientean, eta jakinarazteko ahaleginaren inguruabarrak eta bitartekoa zehaztuko dira. Horrekin, izapidea gauzatzat joko da, eta prozedurak jarraitu egingo du.

6. Jakinarazpena paperean egin nahiz bitarteko elektronikoz egin, administrazio publikoek abisua bidaliko dute interesdunak eman duen gailu elektronikora edo helbide elektronikora, eta, abisu horretan, adieraziko diote jakinarazpen bat eskura jarri diotela dagokion administrazio edo organismoaren egoitza elektronikoa edo eman duen helbide elektronikoa bakarrean. Abisu hori ez emanagatik ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da.

7. Interesdunari bide batetik baino gehiagotatik egiten bazaio jakinarazpena, lehenik egin zaionarena hartuko da jakinarazpen-datatzat.

42. artikulua. *Jakinarazpenak paperean egitea.*

1. Paperean egiten diren jakinarazpen guztiak interesdunaren eskura jarri beharko dira jarduten ari den administrazioaren edo organismoaren egoitza elektronikoa, nahi badu haien edukia ikusteko modua izan dezan.

2. Jakinarazpena interesdunaren egoitzan egiten bada eta une horretan hura ez badago, egoitzan dagoen hamalau urtetik gorako edozein pertsonak har dezake, nor den jasota utzirik. Inor ez bada jakinarazpenaren kargu egiten, hala jasoko da espedientean, jakinarazpena egiteko ahaleginaren eguna eta ordua ere adierazirik. Beste ahalegin bat egingo da, bakarra, hurrengo hiru egunen barruan eta beste ordu batean. Lehenbiziko jakinarazpen-ahalegina hamabost orduak baino lehen egin bada, bigarren ahalegina hamabost orduak baino geroago egingo da, eta alderantziz, betiere hiru orduko tartea utzirik, gutxienez, bi ahaleginen artean. Bigarren ahaleginean ere huts egiten bada, 44. artikuluan aurreikusitako moduan jokatu da.

3. Interesdunak egoitza elektronikoa eskuratzen badu jakinarazpenaren edukia, aukera emango zaio gainerako jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egiteko.

43. artikulua. *Jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egitea.*

1. Bitarteko elektronikoz egindako jakinarazpenak diharduen administrazioaren edo organismoaren egoitza elektronikoa agertuz egingo dira, emandako helbide elektronikoa bakarren bidez edo bi sistemen bidez, administrazio edo organismo bakoitzak erabakitzen duenaren arabera.

Artikulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, egoitza elektronikoa agertzea zera da: interesdunak edo haren ordezkariak, behar bezala identifikaturik, jakinarazpenaren edukia eskuratzea.

2. Haien edukira sartzen den unean egintzat joko dira bitarteko elektronikozko jakinarazpenak.

Jakinarazpena bitarteko elektronikoz egitea nahitaezkoa denean, edo interesdunak espresuki hori aukeratu duenean, ez onartuzat joko da haren edukia ez bada eskuratu jakinarazpena eskura jarri zenetik hamar egun natural igarotakoan.

3. 40.4 artikuluan adierazitako betebeharra konplitutzat emango da jakinarazpena eskura jartzen denean diharduen administrazio edo organismoaren egoitza elektronikoa edo emandako helbide elektronikoa bakarrean.

4. Interesdunak jakinarazpenak eskuratu ditzakete Administrazioaren Irispide Puntu Elektroniko Orokorrean, zeinak irispide-atari baten moduan funtzionatuko baitu.

44. artikulua. *Jakinarazpen hutsegina.*

Ez bada jakiterik prozedura bateko interesdunak nor diren, edo jakinarazpena non egin behar den, edo jakinarazpena saiatu baina huts egin bada, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* iragarki bat argitaratuz egingo da jakinarazpena.

Era berean, aurrez eta aukerako moduan, administrazioek iragarki bat argitara dezakete autonomia-erkidegoko edo probintziako aldizkari ofizialean, interesdunak azken egoitza ezaguna izandako udaletxeko ediktu-taulan edo dagokion enbaxadako kontsuletxeko edo sail kontsularreko iragarki-taulan.

Administrazio publikoek balia ditzakete jakinarazpenak egiteko modu osagarri batzuk, gainerako hedabideen bitartez, baina horrek ez ditu salbuesten *Estatuko Aldizkari Ofizialean* dagokion iragarkia argitaratzeko betebeharrak.

45. artikulua. *Argitaratzea.*

1. Administrazioaren egintzak argitaratu beharrekoak dira hala ezartzen badute prozedura bakoitzaren arauak edo, eskumena duen organoaren iritziz, hala eskatzen badu interes publikoak.

Administrazio-egintzak beti argitaratu beharko dira, eta horrek jakinarazpen-ondorioak izango ditu, honako kasu hauetan:

a) Hainbat pertsonari zuzendutako egintza denean, edo, Administrazioaren iritziz, interesdun bakar bati zuzendutako jakinarazpenak denei jakinarazi zaiela bermatzen ez duenean; azken kasu horretan, banakako jakinarazpenaren osagarri izango da argitalpena.

b) Edozein motatako hautaketa-prozedura edo lehia-konkurrentziako prozeduretako egintzak direnean. Kasu horietan, prozeduraren deialdian esan beharko da zer hedabidetan argitaratuko diren jakinarazpenak aurrerantzean; handik kanpo egindako jakinarazpenek ez dute baliozkotasunik izango.

2. Egintza bat argitaratzean ere jaso beharrekoak dira 40.2. artikuluan jakinarazpenetarako eskatzen diren zehaztasun guztiak. Artikulu beraren 3. zenbakiak ezarritakoa ere aplikatzekoa da argitalpenean.

Zenbait elementu komun dituzten egintzak argitaratzean, batera argitaratu ahal izango dira elementuok, eta egintza bakoitzari dagozkion parte berezia bakarrik zehaztu.

3. Jakinarazi beharreko egintza, zein administrazioetatik datorren, hari dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko da.

4. Hargatik eragotzi gabe 44. artikuluan xedatutakoa, lege- edo erregelamendu-xedapen batengatik iragarki- edo ediktu-taulan argitaratu beharreko egintza eta komunikazioen argitalpena egintzat emango da dagokion aldizkari ofizialean argitaratzearekin.

46. artikulua. *Jakinarazpen eta argitalpenen abisua.*

Organo eskudunaren iritziz egintza bat iragarki bidez jakinarazteak edo hura argitarazteak kalte egiten badie eskubide edo interes legitimo batzuei, soil-soilik egintzaren edukia berri labur bat argitaratuko du dagokion aldizkari ofizialean, eta hartan adieraziko du interesdunek nora jo dezaketen, ezartzen den epean, eduki osoaren berri jakiteko eta jakinarenean gainean daudela jasoarazteko.

Horrez gain, aukerako moduan, administrazio publikoek beste jakinarazpen-modu osagarri batzuk ezar ditzakete, gainerako hedabideen bitartez; horrek ez ditu salbuetsiko dagokion aldizkari ofizialean argitaratzeko betebeharririk.

III. KAPITULUA

Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna

47. artikulua. *Erabateko deuseztasuna.*

1. Administrazio publikoen egintzak erabat deusezak izango dira kasu hauetan:

- a) Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egiten badiete.
- b) Gaiagatik edo lurraldeagatik organo nabarmen eskumengaberen batek eman baditu.
- c) Ezinezko edukia badute.
- d) Arau-hauste penal badira edo halako baten ondorioz eman badira.
- e) Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik eman badira.
- f) Funtsezko betekizunak bete gabe ahaldun edo eskubide batzuk eskuratzeko bide ematen duten egintza espresu edo presuntziozkoak, ordenamendu juridikoaren aurkakoak.
- g) Lege-mailako xedapen batean espresuki halakotzat jotako beste edozein.

2. Erabat deusezak izango dira orobat honako administrazio-xedapen hauek: Konstituzioa, legeak edo administrazioaren goragoko mailako xedapenak urratzen dituztenak; legez arautu beharreko gaiak arautzen dituztenak; eta aldekoak ez diren edo

eskubide indibidualak murrizten dituzten xedapen zehatzaileen atzeraeragina ezartzen dutenak.

48. artikulua. *Deuseztagarritasuna.*

1. Deuseztagarriak dira ordenamendu juridikoaren edozein arau hausten duten administrazio-egintzak, aginte-desbideratze direnak barne.

2. Hala ere, forma-akatsak kasu hauetan bakarrik egiten du deuseztagarri egintza: helburua lortzeko formazko betekizun ezinbestekoak betetzen ez dituenean edo interesdunen defentsa-gabezia eragiten duenean.

3. Epez kanpo egindako administrazio-jarduketan kasuan, epearen izaerak hala eskatzen duenean bakarrik izango da egintza deuseztagarri.

49. artikulua. *Egintzen deusezetasunaren edo deuseztagarritasunaren mugak.*

1. Egintza bat deusez edo deuseztagarri izateak ez dakar prozedurako ondorengoak ere deusez edo deuseztagarri izatea, aurrekoarekin zerikusirik ez badute.

2. Administrazio-egintzaren parte bat deusez edo deuseztagarri izateak ez dakar parte horrekin zerikusirik ez duten gainerako zatien deusezetasuna edo deuseztagarritasuna, non eta parte akastuna hain garrantzitsua den ezen hura gabe ez baitzatekeen administrazio-egintza emango.

50. artikulua. *Egintza akastunen bihurketa.*

Egintza deusez edo deuseztagarriek, beste egintza desberdin bat osatzen duten elementuak baldin badituzte, azken egintza horren ondorioak izango dituzte.

51. artikulua. *Egintzak eta izapideak kontserbatzea.*

Jarduketak deusez deklaratzan dituen edo haien deuseztatzen dituen organoak kontserbatu egingo ditu, beti, arau-hausterik izan ez balitz eduki berarekin mantenduko ziren egintza eta izapideak.

52. artikulua. *Baliozkotzea.*

1. Egintza deuseztagarriak baliozkotu ahal izango ditu Administrazioak, haien akatsak zuzenduz.

2. Egiten den egun beretik izango ditu ondorioak baliozkotzeak, 39.3 artikulua administrazio-egintzen atzeraeraginaz ezarritakoa salbu.

3. Akatsa eskumenik eza bada, deusezetasunik ez dakarrena, eskumena duen organoak baliozkotu dezake, egintza akastuna eman zuenaren hierarkian goragoko mailakoa bada.

4. Akatsa baimenen bat falta izatea bada, eskumena duen organoak baimena emanda baliozkotu daiteke egintza.

IV. TITULUA

Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak

I. KAPITULUA

Prozeduraren bermeak

53. artikulua. *Administrazio-prozeduran interesdun denaren eskubideak.*

1. Lege honetan aurreikusitako gainerako eskubideez gain, administrazio-prozedura batean interesdun direnek honako eskubide hauek dituzte:

a) Noiznahi jakitea interesdun diren prozeduren izapidetzea nola doan; administrazio-isiltasunak zer esanahi duen, Administrazioak ez badu epean ebazpen espresurik ematen ez jakinarazten; zer organo den eskudun instrukzioa egiteko, hala badagokio, eta ebazpena emateko; eta zer izapide-egintza eman dituen. Eskubidea izango dute, orobat, prozeduretan jasotako dokumentuak eskuratzeko eta haien kopia lortzeko.

Administrazio publikoekiko harremana bitarteko elektronikoz dutenek eskubidea izango dute aurreko paragrafoan aipatzen den informazioa kontsultatzeko Administrazioaren Irispide Puntu Elektroniko Orokorrean, zeinak irispide-atari baten moduan funtzionatuko baitu. Prozeduretan sartutako dokumentuen kopiak emateko Administrazioak duen betebeharra konplitutzat joko da haiek eskura jartzen direnean administrazio eskudunaren Irispide Puntu Elektroniko Orokorrean edo dagozkion egoitza elektronikoetan.

b) Prozedurak izapidetzeko ardura duten administrazio publikoetako agintari eta langileak identifikatzea.

c) Jatorrizko dokumentuak ez aurkeztea, non eta, salbuespenezko moduan, aplikatzekoa den araudi erregulatzailerak ez duen kontrakoa ezartzen. Salbuespenezko moduan jatorrizko dokumentu bat aurkeztu behar badute, haren kopia autentikatua eskuratzeko eskubidea dute.

d) Prozedurari aplikatzekoak diren arauetan eskatzen ez den datu eta dokumenturik ez aurkeztu behar izatea, administrazio publikoen esku badaude jada edo haiek prestatuak baldin badira.

e) Prozeduraren edozein alditan, betiere entzunaldiaren izapidea egin aurretik, alegazioak aurkeztu, ordenamendu juridikoak onartzen dituen defentsa-bideak erabili eta dokumentuak aurkeztea; organo eskudunak ebazpen-proposamena idaztean kontuan hartu beharrekoak, denak ere.

f) Informazioa eta aholkuak lortzea indarrean dauden xedapenen arabera proiektu, jarduketa edo eskaerak egitean bete beharreko betekizun juridiko eta teknikoei buruz.

g) Aholkulari batek lagundurik jardutea beren interesen alde egiteko komeni zaiela deritzotenean.

h) Ordainketa-betebeharrak 98.2 artikuluan aurreikusitako bitarteko elektronikoen bidez betetzea.

i) Konstituzioak eta legeek aitortzen dizkieten gainerako eskubide guztiak.

2. Aurreko zenbakian aurreikusitako eskubideez gain, zehapenezko administrazio-prozeduren kasuan, ustezko erantzuleek eskubide hauek izango dituzte:

a) Jakinarazpen batean jasotzea: zer egitate inputatzen zaien, egitate hori zer arau-hauste izan daitekeen eta zer zehapen ezar dakiekeen; orobat, instrukzio-egilea nor den, zehapena jartzeko eskumena zer agintarik duen, eta zer arauk esleitzen dion eskumen hori.

b) Administrazio-erantzukizunik ezaren presuntzioa, kontrakoa frogatu ezean.

II. KAPITULUA

Prozeduraren hasiera

1. atala Xedapen orokorrak

54. artikulua. *Prozedura hasteko moduak.*

Prozedurak ofizioz edo interesdunak eskaturik has daitezke.

55. artikulua. *Informazioa eta aurretiazko jarduketak.*

1. Prozedura hasi aurretik, eskumena duen organoak informaziorako edo aurretiazko jarduketetarako aldi bat ireki dezake, kasuaren inguruabarrak zein diren eta prozedura hastea komeni den jakiteko.

2. Zehapen-prozeduren kasuan, aurretiatzko jarduketan bitartez, ahalik eta zehaztasunik handienarekin ikusi behar da zein egitate izan daitezkeen prozedura hasteko arrazoi, nor edo nortzuk izan daitezkeen erantzule, eta zer inguruabar adierazgarri dituzten batzuek eta besteek.

Aurretiatzko jarduketak egiteaz, gaia aztertzeko, ikertzeko eta ikuskatzeko eginkizunak esleituak dituzten organoak arduratuko dira, eta, halakorik ezean, prozedura hasteko edo ebazteko eskumena duen organoak erabakitzen duen pertsona edo administrazio-organoa.

56. artikulua. *Behin-behineko neurriak.*

1. Prozedura hasi ondoren, ebazteko eskumena duen administrazio-organook, ofizioz edo alderdi batek eskaturik eta modu arrazoituan, ebazpenaren efikazia ziurtatzeko egoki deritzen behin-behineko neurriak har ditzake, horretarako datu nahikoa baldin baditu proportzionaltasunaren, eraginkortasunaren eta gutxieneko kaltearen printzipioen arabera.

2. Administrazio-prozedura hasi aurretik, prozedura hasteko edo instruitzeko eskumena duen organoak, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, presa geroraezineko kasuetan eta ukitutako interesak behin-behinekoz babesteko, beharrezko eta proportziozko gertatzen diren neurriak hartu ahal izango ditu modu arrazoituan. Behin-behineko neurri horiek berretsi, aldatu edo kendu egin beharko dira prozedura hasteko erabakian. Erabaki hori hamabost egunen barruan hartu beharko da, behin-behineko neurriak hartzen direnetik aurrera, eta dagokion errekurtsioa jarri ahal izango da haren kontra.

Nolanahi ere, neurri horiek baliorik gabe geratuko dira prozedura ez bada hasi aipatutako epe horretan, edo prozedura hasteko erabakian ez bada espresuki ezer esan neurriei buruz.

3. Aurreko bi zenbakietan aurreikusitakoaren arabera, behin-behineko neurri hauek hartu ahala izango dira, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean aurreikusitako moduan:

- a) Jarduera aldi baterako etetea.
- b) Fidantza jartzea.
- c) Ekoizpen-ondasunak erretiratzea edo haietan esku hartzea, edo zerbitzuak aldi baterako etetea osasun-, higiene- edo segurtasun-arrazoiengatik; establezimendua aldi baterako ixtea arrazoi horiengatik edo aplikatzekoa den araudi erregulatzailan aurreikusitako beste batzuek.
- d) Dirutan neur daitezkeen ondasun, errenta eta gauza suntsikorrak prebentzioz enbargatzea, prezio zehatzak aplikatuz.
- e) Gauza higigarri bat gordailuan jartzea, atxikitzea edo immobilizatzea.
- f) Legez kanpokotzat jotzen den eta debekatu edo utzarazi nahi den jarduera baten bitartez lortutako diru-sarreretan esku hartzea edo gordailuan jartzea.
- g) Erreklamatzeko diren diru-kopuruak kontsignatzea edo gordailuan jartzea.
- h) Administrazio publikoek ordaindu beharreko konturako sarrerak atxikitzea.
- i) Beste neurri batzuk, interesdunen eskubideak babesteko xedez legeek espresuki aurrekusiak edo ebazpena eraginkor izango dela segurtatzeko beharrezkotzat jotzen direnak.

4. Ezin da behin-behineko neurririk hartu interesdunei kalte erreparagaitza edo erreparaezina dakarkienik edo legeek babestutako eskubideak urratzen dituenik.

5. Behin-behineko neurriak kendu edo aldatu ahal izango dira prozedura izapidetzen den bitartean, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, baldin eta neurriak hartu zirenean kontuan hartu ezin ziren gorabeherak edota gerora sortutakoak azaltzen badira.

Beti ere, neurri horiek baliorik gabe geratuko dira prozedura amaitzeko administrazio-ebazpena eraginkor bihurtzen den unean bertan.

57. artikulua. *Metatzea.*

Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organook, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, prozedura

hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

2. atala *Administrazioak prozedura ofizioz hastea*

58. artikulua. *Ofizioz hastea.*

Prozedurak ofizioz hasiko dira eskumena duen organoak hala erabakita, izan bere ekimenez edo izan goragoko agindu baten indarrez, beste organo batzuen eskaera arrazoituaren ondorioz edo salaketa baten ondorioz.

59. artikulua. *Prozedura norberaren ekimenez hastea.*

Norberaren ekimenez jardutea da prozedura hasteko eskumena esleitua duen organoak jardutea prozeduraren xede diren inguruabar, jokaera edo gertaeren berri izanda, zuzenean edo zeharka.

60. artikulua. *Prozedura goragoko agindu baten ondorioz hastea.*

1. Goragoko agindutzat hartzen da prozedura hasteko eskumena duena baino hierarkian goragoko mailako administrazio-organok batek emandakoa.

2. Zehapen-prozeduretan, aginduan adierazi beharko da, ahal den neurrian, nor den edo diren ustezko erantzuleak; zer jokaera edo egitate izan daitezkeen arau-hauste administratibo, eta zer tipifikazio duten; eta egitateak zer lekutan gertatu diren eta noiz –eguna, egunak edo denbora jarraitua–.

61. artikulua. *Prozedura beste organo batzuen eskaera arrazoituaren ondorioz hastea.*

1. Eskaera arrazoitutzat jotzen da prozedura hasteko proposamen bat, hura hasteko eskumenik ez duen edozein administrazio-organok egin prozeduraren xede diren inguruabar, jokaera edo egitateen berri izan duelarik, bai halabeharrez edo bai ikuskatze-, azterketa- edo ikerketa-eginkizunak esleituak dituelako.

2. Eskaerak ez du prozedura hastera behartzen organo eskuduna, baina, ez hastea erabakitzen badu, horren arrazoiak komunikatu beharko dizkio eskaera egin dion organoari.

3. Zehapen-prozeduretan, eskaeran adierazi beharko da, ahal den neurrian, nor den edo diren ustezko erantzuleak; zer jokaera edo egitate izan daitezkeen arau-hauste administratibo, eta zer tipifikazio duten; eta egitateak zer lekutan gertatu diren eta noiz –eguna, egunak edo denbora jarraitua–.

4. Ondare-erantzukizunari buruzko prozeduretan, eskaerak indibidualizatu egin beharko du pertsona bati edo pertsona-multzo bati egindako kaltea, horrek zerbitzu publikoaren funtzionamenduarekin duen lotura, kaltearen ebaluazio ekonomikoa –ahal bada– eta kaltea zehazki zer unetan gertatu zen.

62. artikulua. *Prozedura salaketa baten ondorioz hastea.*

1. Salaketa egintza bat da zeinaren bidez edozein pertsonak, legezko betebeharrategatik edo bestela, administrazio-organok bati jakinarazten baitio badela egitate bat administrazio-prozedura bat ofizioz hastea justifika lezakeena.

2. Salaketan, adierazi behar da nor den edo diren hura aurkezten duten pertsonak, eta adierazi beharko da zer egitateen berri ematen zaion Administrazioari. Egitate horiek arau-hauste administratibo izan badaitezke, salaketan adierazi behar da noiz gertatu diren eta, ahal denean, ustezko erantzuleak nor diren.

3. Salaketak administrazio publikoaren ondarearen kalte bat argudiatzen duenean, prozedura ez hastea arrazoitu egin beharko da, eta salatzaileei jakinarazi beharko zaie beti prozedura hasteko edo ez hasteko erabakia.

4. Salatzaileak parte hartu badu halako arau-hauste batean eta beste arau-haustel batzuk baldin badira, prozedura ebazteko eskumena duen organoak salbuetsi egin beharko du salatzailea legokiokeen isuna ordaintzetik edo diruzkoa ez den beste zehapenen batetik, bera baldin bada prozedura hasteko edo arau-haustea egiaztatzen frogaelementuak ekartzen dituen lehena, betiere elementu horien berri emateko unean ez bada daturik aski zehapen hori agintzeko eta egindako kaltea erreparatzen bada.

Halaber, ebazteko eskumena duen organoak gutxitu egin beharko du legokiokeen isunaren zenbatekoa edo, hala badagokio, diruzkoa ez den zehapena, baldin eta, aurreko baldintzetakoren bat betetzen ez delarik, salatzaileak froga-elementu batzuk aurkezten baditu lehendik dauden aldean balio erantsi adierazgarria dutenak.

Bi kasuetan, beharrezkoa da salatzaileak arau-haustean parte hartzeari utzi izana eta salaketaren xedearekin lotutako froga-elementurik ez desegin izana.

5. Salaketa bat aurkezteak ez du inor, besterik gabe, interesdun bihurtzen prozeduran.

63. artikulua. *Zehapen-prozeduren hasierako berezitasunak.*

1. Zehapen-prozedurak ofizioz hasiko dira beti, organo eskudunaren ekimenez, eta behar den bezala bereiziko dira haietan instrukzio-fasea eta zehapen-fasea; organo banaren esku utziko dira bata eta bestea.

Organo bat prozedura bat hasteko eskudun dela joko da hala xedatzen badute hura erregulatzen duten arauak.

2. Inoiz ezin da zehapenik ezarri dagokion prozedura izapidetu gabe.

3. Ezin da zehapen-prozedura berririk hasi arau-haustelak behin eta berriz egiten dituen eta arau-hauste gisa tipifikatuta dauden gertaera eta jokaerengatik, artean ez bada ebatzi lehenbiziko ebazpen zehatzaile bat, betearazpen-indarrekoa.

64. artikulua. *Zehapen-prozedurak hasteko erabakia.*

1. Hasteko erabakia prozeduraren instrukzio-egileari komunikatuko zaio, hari buruz dauden jarduketa guztiak helaraztearekin batera, eta interesdunei jakinaraziko zaie, beti halakotzat harturik erruztatua.

Era berean, hasieraren berri emango zaio salatzaileari, prozedura erregulatzen duten arauak hala aurreikusten dutenean.

2. Prozedura hasteko erabakiak honako hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

a) Nor den edo diren ustezko erantzule.

b) Zer egitatek eragin duten prozedura hastea, zer kalifikazio izan lezaketen eta zer zehapen legozkiekeen, hargatik eragotzi gabe instrukziotik ondorioztatzen dena.

c) Nor den prozeduraren instrukzio-egilea, eta, halakorik baldin bada, idazkaria, espresuki adierazirik haien errekusazio-araubidea.

d) Zer organo den prozedura ebazteko eskudun, eta zer arauk esleitzen dion eskumen hori. Adierazi behar da ustezko erantzuleak baduela aukera borondatez bere erantzukizuna aitortzeko, 85. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

e) Zer behin-behineko neurri erabaki dituen zehapen-prozedura hasteko eskumena duen organoak, hargatik eragotzi gabe prozeduran zehar 56. artikulua araberan har daitezkeenak.

f) Adieraziko da alegazioak egiteko eskubidea eta prozeduran entzuna izateko eskubidea badela, eta haiek baliatzeko zer epe dauden; orobat ohartaraziko da ezen, prozedura hasteko erabakiaren edukiaz aurreikusitako epean alegaziorik egin ezear, erabaki hori ebazpen-proposamentzat hartu ahal izango dela inputatutako erantzukizunari buruzko irizpen zehatz bat duenean.

3. Salbuespenezko moduan, prozedura hasteko erabakia hartzeko unean ez bada elementu nahikorik prozedura hastea eragiten duten egitateen hasierako kalifikazioa emateko, geroagoko fase batean egin ahal izango da kalifikazio hori, kargu-orri baten bitartez, eta interesdunei jakinarazi.

65. artikulua. *Ondare-erantzukizunari buruzko prozeduren ofiziozko hasierako berezitasunak.*

1. Administrazio publikoek ondare-erantzukizuneko prozedura bat ofizioz hastea erabakitzen dutenean, beharrezkoa da ez preskribatuta egotea interesdunaren erreklamaziorako eskubidea, 67. artikuluan aipatua.

2. Prozedura hasteko erabakia jakinarazi behar zaie ustez kaltetuak diren partikularrei, eta hamar eguneko epe bat eman, eskubidez egoki deritzeten alegazio, dokumentu edo informazio guztiak azal ditzaten eta eskubide hori aitortzeko behar diren frogak guztiak proposa ditzaten. Hasitako prozedura instruitu egingo da ustez kaltetuak diren partikularrak epean pertsonatzen ez badira ere.

3. atala Prozedura interesdunak eskaturik hastea

66. artikulua. *Prozedura hasteko eskaerak.*

1. Eskaeretan honako hauek adierazi behar dira:

- a) Interesdunaren izen-abizenak eta, halakorik izanez gero, ordezkariarenak.
- b) Zer bitarteko elektronikoren bidez edo bestela zer lekutan nahi duen jakinarazpena egitea. Horrez gain, interesdunek beren helbide elektronikoa edo gailu elektronikoa eman ahal izango dute, administrazio publikoek abisa diezaieten jakinarazpena bidali edo eskura jarri dela.
- c) Egitateak, arrazoiak eta eskaera zehatza, argi eta garbi adierazirik.
- d) Lekua eta data.
- e) Eskatzailearen sinadura, edo benetan bere borondatea adierazi duela erakusteko edozein eratako egiaztapena.
- f) Administraziozko zer organo, erakunde edo unitateri bidaltzen zaion eskaera, eta zein den haren identifikazio-kodea.

Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoak behartuta daude interesdunari identifikazio-kodea ematera, interesdunak ez badaki zein den. Indarrean diren identifikazio-kodeen zerrenda bat mantendu eta eguneratu beharko dute administrazio publikoek dagokion egoitza elektronikoan.

2. Hainbat pertsonaren uziak, eduki eta oinarri bera edo funtsean antzekoa badute, eskaera berean aurkez daitezke, non eta prozedura espezifikotako arauak besterik ez dioten.

3. Elektronikoki edo Administrazioak erregistro-gaietan laguntzeko dituen bulegoetan aurkezten dituzten eskaera, komunikazio eta idazkien jaso-agiria eskatu ahal izango dute interesdunek, aurkezpen-data eta ordua egiaztatzen dituenak.

4. Eskaera-multzoak aurkezteko ereduak eta sistemak prestatu beharko dituzte administrazio publikoek, interesdunek aukera izan dezaten aldi berean eskaera bat baino gehiago aurkezteko. Eredu horiek, betiere borondatez erabiltzekoak, interesdunen esku egongo dira dagozkien egoitza elektronikoetan eta administrazio publikoek erregistro-gaietan laguntzeko dituzten bulegoetan.

Eskatzaileek nahi adina datu erants dezakete eskaera-ereduan jasotakoak zehazteko eta osatzeko, eta organo hartzaileak onartu eta kontuan izan behar ditu.

5. Eskaera-sistema normalizatuak modua eskain dezakete ematen den informazioa automatikoki egiaztatzeko administrazio horren beraren edo beste administrazio batzuen sistemetan biltegitratutako datuekin, edo formularioa guztiz edo partez beterik eskain dezakete, interesdunak informazioa egiaztatu dezaten edo, hala badagokio, alda eta osa dezaten.

6. Prozedura jakin batean Administrazioak espresuki ezartzen baditu eredu espezifikoko batzuk eskaerak aurkezteko, interesdunek nahitaez erabili beharko dituzte eredu horiek.

67. artikulua. *Ondare-erantzukizuneko prozedurak hasteko eskaerak.*

1. Interesdunek ondare-erantzukizuneko prozedura hastea eskatu ahal izango dute soilik beren erreklamatzeko eskubidea artean preskribatu gabe badago. Erreklamazioa egiteko eskubidea urtebeteren buruan preskribatuko da, kalte-ordaina ekarri duen egitate edo egintza izan zenetik edo kaltearen ondorioak agertu zirenetik aurrera. Pertsoneri kalte fisiko edo psikikoak eginez gero, sendatzen direnetik edo kalte horien ondorioak zehazten diren egunetik hasiko da zenbatzen epea.

Administrazio-bidean edo administrazioarekiko auzien bidean egintza edo xedapen orokor bat deuseztatu delako kalte-ordain bat aitortzea dagokion kasuetan, erreklamatzeko eskubidea urtebeteren buruan preskribatuko da, administrazio-ebazpena edo behin betiko epaia jakinarazten denetik aurrera zenbatuta.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 32. artikuluko 4. eta 5. zenbakietan aipatzen diren ondare-erantzukizuneko kasuetan, erreklamatzeko eskubidea urtebeteren buruan preskribatuko da, araua Konstituzioaren kontrako edo Europar Batasuneko zuzenbidearen kontrako deklaratzeko duen epaia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* edo *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* –zer dagokion– argitaratzen denetik aurrera.

2. 66. artikuluan aurreikusitakoaz gainera, interesdunen eskaeran zehaztu beharko da zer kalte gertatu diren, zer kausa-lotura dagoen haien eta zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren artean, ondare-erantzukizunaren ebaluazio ekonomikoa, ahal bada, eta zer unetan gertatu zen egiazki kaltea; horrekin batera adieraziko dira egoki irizitako alegazio, dokumentu eta informazio guztiak, eta froga proposatuko da, erreklamatzaileak baliatu asmo dituen bitartekoak aipatuz.

68. artikulua. *Eskaera zuzendu eta hobetzea.*

1. Prozedura hasteko eskaeran ez badira betetzen 66. artikuluko betekizunak eta, hala badagokio, 67. artikuluan adierazitakoak edo aplikagarri den legeria espezifikoa eskatutako beste batzuk, interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.

2. Hautaketa-prozesuetan edo lehia-konkurrentziako prozeduretan izan ezik, hamar eguneko epe hori luza daiteke zuhertasunez, beste bost eguneraino, interesdunak eskaturik edo organoaren ekimenez, dokumentuak aurkezteko zailtasun berezirik baldin bada.

3. Interesdunek eskaturik hasitako prozeduretan, eskaeran jasotakoa borondatez aldatzeko edo hobetzeko eska diezaioke eskumena duen organoak eskatzaileari. Horren akta jasoko da, labur, eta prozedurari gehitu.

4. 14.2 eta 14.3 artikuluetan aipatzen direnetako subjektuen batek aurrez aurre aurkezten badu eskaera, aurkezpen elektronikoen bitartez zuzen dezala eskatuko diote administrazio publikoek interesdunari. Ondorio horietarako, zuzenketa hori egin den eguna joko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.

69. artikulua. *Erantzukizunpeko adierazpena eta komunikazioa.*

1. Lege honen ondorioetarako, erantzukizunpeko adierazpena da interesdunak sinatutako dokumentu bat zeinean adierazten baitu, bere erantzukizunaren pean, betetzen dituela indarrean den araudiak eskubide edo ahalmen bat aitortzeko edo hura baliatzeko ezarritako betekizunak, baduela hori egiaztatzen duen dokumentazioa, Administrazioaren esku jarriko duela hark hala eskatzen dionean, eta konpromisoa hartzen duela aurreko betebeharroriek betetzeko aitortzen edo baliatze horri dagokion denbora guztian.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren betekizunak espresuki jasota egon behar dute, argi eta zehatz, dagokion erantzukizunpeko adierazpenean. Administrazioek noiznahi eskatu ahal izango dute aipatutako betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa emateko, eta interesdunak eman egin beharko du.

2. Lege honen ondorioetarako, komunikazioa da dokumentu bat zeinaren bitartez interesdunek administrazio publiko eskudunari jakinarazten baitizkiote beren identifikazio-datuak edo jarduera bat hasteko edo eskubide bat baliatzeko esanguratsua den beste edozein datu.

3. Erantzukizunpeko adierazpenek eta komunikazioek aukera emango dute aurkezten diren egunetik aurrera eskubide bat aitortzeko edo baliatzeko edo jarduera bat hasteko, hargatik eragotzi gabe administrazio publikoek esleituak dituzten egiaztapen-, kontrol- eta ikuskapen-ahalmenak.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, jarduera hasi ondorengo epe batean ere aurkeztu ahal izango da komunikazioa, dagokion legeriak hala aurreikusten badu espresuki.

4. Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Halaber, administrazio publikoak halako zerbait gertatu dela adierazten dueneko ebazpenak xedatu ahal izango du interesduna behartuta dagoela egoera juridikoa leheneratzera eskubidea aitortu edo baliatu edo jarduera hasi aurreko unera, eta ezinezkoa dela xede bereko beste prozedura bat hastea legeak zehaztutako epe batean; hori guztia, aplikatzekoak diren arau sektorialetan ezarritako moduan.

5. Administrazio publikoek argitaraturik eta eguneraturik izango dituzte, etengabe, erantzukizunpeko adierazpenaren eta komunikazioaren ereduak, interesdunek erraz eskuratzeko moduan.

6. Erantzukizunpeko adierazpena bakarrik edo komunikazioa bakarrik eskatu ahal izango da jarduera bera hasteko edo eskubide edo ahalmen bera baliatzeko aukera aitortzeko; ez dago biak batera eskatzerik.

III. KAPITULUA

Prozeduraren antolamendua

70. artikulua. *Administrazio-espeditentea.*

1. Administrazio-espeditentea dokumentu eta jarduketan multzo ordenatu bat da, administrazio-ebazpenaren aurrekari eta oinarri izateko balio duena eta hura betearazteko eginbideak ere jasotzen dituena.

2. Espeditentek formatu elektronikoa izan behar du, eta haren osagai izan behar duten dokumentu, froga, irizpen, txosten, erabaki, jakinarazpen eta gainerako eginbideak ordenaturik batuz osatu behar da, eta barnean dituen dokumentu guztien aurkibide zenbakitu batekin joan behar du bidaltzen denean. Espeditentean jaso behar da, orobat, hartutako ebazpenaren kopia elektronikoa ziurtatua.

3. Arau baten ondorioz espeditente elektronikoa bat bidali beharra dagoenean, Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalean eta Elkarreragingarritasunari buruzko Arau Teknikoetan aurreikusitakoaren arabera bidaliko da, osorik, orrialdekaturik, autentifikaturik eta dituen dokumentu guztien aurkibide orobat autentifikatu batez lagundurik. Aurkibide hori autentikatzeak bermatzen du sortutako espeditente elektronikoa osorik eta aldaezin egongo dela sinatzen den unetik, eta aukera emango du behar den guztietan berreskuratzeko. Onargarria da dokumentu bat bera administrazio-espeditente bat baino gehiagoren parte izatea.

4. Ez da administrazio-espeditentearen parte izango informazio lagungarria edo osagarria, hala nola aplikazio, fitxategi eta datu-base informatikoetakoak, ohar, zirriborro, iritzi, laburpen, komunikazio eta txostenetakoak, izan txostenok barrukoak edo administrazio-organo edo entitateen artekoak, eta orobat administrazio publikoek emandako balio-

judizioak, non eta ez diren prozedurari amaiera ematen dion administrazio-ebazpena baino lehen eskatutako txostenak, nahitaezkoak eta aukerakoak.

71. artikulua. *Prozedura bultzatzea.*

1. Prozedura, bizkortasun-printzipioa zainduz, ofizioz bultzatuko da izapide guztietan, eta bitarteko elektronikoen bidez, gardentasun- eta publikotasun-printzipioak gordez.

2. Espedienteak bideratzean, antzeko izaera duten auzietan zorrotz gordeko da hasieraren arabera hurrenkera, administrazio-unitateko titularrak ez badu kontrako agindurik ematen, arrazoiturik, jasota geratzeko moduan.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa ez betetzeak arau-hausleari diziplina-erantzukizuna galdatzea ekarriko du, eta, hala badagokio, lanpostutik mugiarazteko arrazoi izango da.

3. Instrukzio-organo gisa izendatutako pertsonak edo, hala badagokio, eginkizun hori izendatua duten administrazio-unitateen titularrak, zuzeneko erantzule izango dira prozedura izapidetzeari dagokionez, eta, bereziki, ezarritako epeak betetzeari dagokionez.

72. artikulua. *Izapideak kontzentratzea.*

1. Administrazioa sinplifikatzeko printzipioarekin bat, egintza bakar batean erabakiko dira izaeragatik batera bultza daitezkeen eta nahitaez bata bestearen ondoren bete beharrekoak ez diren izapide guztiak.

2. Beste organo batzuek bete beharreko izapideak eskatzean, komunikazioan adierazi behar da zer epe ezartzen duen legeak izapidetako.

73. artikulua. *Izapideak betetzea.*

1. Interesdunek bete beharreko izapideak hamar eguneko epean egin beharko dira, dagokion egintza jakinarazi eta biharamunetik zenbaturik, dagokion arauak bestelako eperik ezartzen ez badu.

2. Prozeduraren edozein unetan, Administrazioak, irizten badio interesdunen egintzaren batek ez dituela betetzen behar diren betekizunak, hala jakinaraziko dio egintzaren egileari, eta hamar eguneko epea emango dio egintza hori behar bezala betetzeko.

3. Aurreko zenbakietan xedatutakoa betetzen ez duten interesdunek dagokion izapidetako eskubidea galdu dutela deklaratu da. Hala ere, interesdunaren jarduketa onartuko da, eta legezko ondorioak izango ditu, baldin eta epea iragantzat jotzen den ebazpena jakinarazten den eguna baino lehen edo egun horren barruan gertatzen bada.

74. artikulua. *Arazo intzidentalak.*

Prozeduran sortzen diren arazo intzidentalek, are jarduketan deuseztasunari buruzkoak badira, ez dute izapidetza etengo; errekusazioak, ordea, bai.

IV. KAPITULUA

Prozeduraren instrukzioa

1. atala *Xedapen orokorrak*

75. artikulua. *Instrukzio-egintzak*

1. Ebazpena eman beharra eragin duten egitateak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze behar diren instrukzio-egintzak ofizioz eta bitarteko elektronikoz egingo ditu prozedura izapidetzen ari den organoak. Interesdunek eskubidea dute, nolahi ere, beren esku-hartzea eskatzen duten edo legez edo erregelamenduz ezarritako izapideak diren jarduketak proposatzeko.

2. Prozeduren instrukzioa egiteko erabilitako aplikazioek eta informazio-sistemek bermatu behar dute denbora eta epeen kontrola, erantzule diren organoen identifikazioa

eta espedienteak modu ordenatuan izapidetzea, eta erraztasunak eman behar dituzte prozedurak sinplifikatzeko eta publiko egiteko.

3. Interesdunek parte hartu behar duten instrukzio-egintzak haiei komenigarrien zaien moduan egin behar dira, eta haien lanarekin edo betebeharrak profesionalekin ahal den neurrian bateragarri izateko moduan.

4. Betiere, instrukzio-organismoak behar diren neurriak hartuko dituzte prozeduran osotara errespetatu daitezkeen prozedurako interesdunen kontraesan- eta berdintasun-printzipioak.

76. artikulua. *Alegazioak.*

1. Interesdunek aukera izango dute prozeduraren edozein urratsetan, entzunaldiaren izapidea egin baino lehen, alegazioak egiteko eta dokumentuak edo bestelako irizpen-elementuak aurkezteko.

Horiek guztiak kontuan hartuko ditu organo eskudunak ebazpen-proposamena idaztean.

2. Interesdunek prozeduraren edozein urratsetan alega ditzakete izapidetze-akatsak, eta, bereziki, haien ondorioz prozedura gelditzea, nahitaezkoztat jarritako epeak ez betetzea edo gaiari buruzko behin betiko ebazpena eman aurretik konpon daitezkeen izapideak ez egitea dakartenak. Alegazio horiek diziplina-erantzukizuna galdatzea ekar dezakete, horretarako arrazoirik badago.

2. atala *Frogatzea*

77. artikulua. *Frogabideak eta frogaldia.*

1. Zuzenbidean onargarri den edozein frogabidez egiazta daitezke prozedura erabakitzeko garrantziko diren egitateak. Frogabideak balioesteko irizpideak Prozedura Zibilar buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean aurreikusitakoak dira.

2. Administrazioak ez baditu egiazkotzat jotzen interesdunek alegatutako egitateak, edo prozeduraren izaerak hala eskatzen badu, prozeduraren instrukzio-egileak frogaldi bat hastea erabakiko du, gehienez hogeita hamar eguneko eta gutxienez hamarrekoa, egoki deritza frogatu guztiak egin daitezkeen. Halaber, beharrezko irizten dionean, ezohiko frogaldi bat egitea erabaki dezake instrukzio-egileak, interesdunek eskaturik, gehienez ere beste hamar eguneko.

3. Interesdunek proposatutako frogak nabarmen desegokiak edo alferrikakoak direnean bakarrik erabaki dezake instrukzio-egileak, ebazpen arrazoitu baten bidez, haiek ez onartzea.

4. Zehapen-prozeduretan, ebazpen judicial penal irmoz frogatutako egitateak lotesleak izango dira administrazio publikoentzat berek bideratzen dituzten zehapen-prozedurei dagokienez.

5. Egitateen frogatze hartuko dira, kontrakoa egiaztatzen ez bada, agintari-kondizioa aitortzen zaien funtzionarioek formalizaturik dauden eta, dagozkien legezko eta betekizunak gorderik, haiek egiaztatutako egitateak jasotzen dituzten dokumentuak.

6. Froga txosten bat baldin bada, administrazio-organismo, organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate batek egina, nahitaezkoztat hartuko da.

7. Egindako frogaren balioespina funtsezko oinarria izan badaiteke prozeduran erabakia hartzeko, egitateak zuzen ebaluatzeko pieza ezinbestekoa delako, ebazpen-proposamenean sartu beharko da.

78. artikulua. *Froga egitea.*

1. Administrazioak behar besteko aurrerapenez komunikatuko die interesdunei noiz hasiko diren onartutako frogak gauzatzeko behar diren jarduketak.

2. Jakinarazpenean jasoko da frogak non, zer egunetan eta zer ordutan egingo diren, eta ohartaraziko da, hala badagokio, interesdunak teknikariak izenda ditzakeela lagundu diezaioten.

3. Interesdunak eskaturik frogak egin behar direnean eta froga horiek administrazioak ordaindu behar ez dituen gastuak badakartzate, administrazioak dirua aurreratzeko eska diezaioke interesdunari, eta, frogak egindakoa, gastuen behin betiko likidazioa egingo da. Gastuak benetan egin direla eta hainbestekoak izan direla egiaztatzeko dokumentuak aurkeztuta egingo da gastuen likidazioa.

3. atala Txostenak

79. artikulua. Txostenak eskatzea.

1. Prozedura ebazteko, lege-xedapenen arabera nahitaezko diren txostenak eskatuko dira, eta ebazteko beharrezko iriztitakoak, nahitaezkotzat zer manuk jotzen dituen adieraziz edo, eskatu behar badira, eskatzea zergatik komeni den arrazoituz.

2. Txostena eskatzean, zehaztu behar da zer alderdi aztertu behar den edo diren.

80. artikulua. Txostenak egitea.

1. Txostenak aukerakoak dira, eta ez lotesleak, espresuki kontrakoa xedatzen ez bada.

2. Txostenak bitarteko elektronikoz eta 26. artikuluan adierazitako betekizunen arabera egingo dira, hamar eguneko epean, non eta xedapenen batek edo prozeduraren gainerako epeak betetzeak ez duen ahalbidetzen edo eskatzen epea luzeagoa edo laburragoa izatea.

3. Txostena ez bada ematen adierazitako epean, eta atzerapenaren erantzuleak izan dezakeen erantzukizuna gorabehera, jarraitu ahal izango da jarduketak egiten, non eta ez den nahitaezko txosten baten kasua; nahitaezko txostena bada, prozedura ebazteko legezko gehieneko epea eten daiteke, 22. artikulua 1. zenbakiko d) letrak ezarritako moduan.

4. Prozedura izapidetzen ari denaz beste administrazio publiko batek egin behar badu txostena, bere eskumenei dagokien ikuspuntua adierazteko, eta, epea amaitu bada txostena egin gabe, jarraitu dezakete jarduketak.

Epez kanpo egindako txostena ez da nahitaez kontuan hartu behar ebazpena ematean.

81. artikulua. Ondare-erantzukizuneko prozeduretan txostenak eta irizpenak eskatzea.

1. Ondare-erantzukizunari buruzko prozeduretan, nahitaezkoa da txostena eskatzea ordaindu daitekeen kaltea ustez eragin duen funtzionamendua izan duen zerbitzuari, eta txostena emateko epea ezin da izan hamar egun baino gehiagokoa.

2. Eskatzen den kalte-ordainaren zenbatekoa 50.000 euro edo gehiago denean, edo dagokion legeria autonomikoak ezartzen duena baino gehiago, eta halaber Estatu Kontseiluari buruzko apirilaren 22ko 3/1980 Lege Organikoan hala xedatzen den kasuetan, nahitaezkoa izango da irizpena eskatzea Estatu Kontseiluari edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko organo aholku-emaileari.

Ondorio horietarako, instrukzio-organoak, entzunaldiaren izapidea amaitu eta hurrengo hamar eguneko epean, organo eskudunari bidaliko dio, irizpena eskatzeko, ebazpen-proposamen bat, 91. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, edo, hala badagokio, prozedura modu hitzartuan amaitu lezakeen akordio baten proposamena.

Irizpena bi hilabeteko epean emango da, eta adierazi beharko du kausalitate-loturarik baden edo ez zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eta gertatutako kaltearen artean, eta, hala badagokio, sortutako kaltearen balioespena zein den eta lege honetan ezarritako irizpideen arabera kalte-ordainaren zenbatekoa eta modua zein diren.

3. Estatuak Justizia Administrazioaren ezohiko funtzionamenduagatik duen ondare-erantzukizuna erreklamatzeko den kasuetan, nahitaezkoa izango da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren txostena, eta gehienez bi hilabeteko epean eman beharko du hark. Ebazpena emateko epea etengo da txostena eskatzen denetik jasotzen den bitartean, eta denbora hori ezin da izan bi hilabete baino gehiago.

*4. atala Interesdunen parte-hartzea**82. artikulua. Entzunaldiaren izapidea.*

1. Prozeduren instrukzioa amaitutakoan, eta ebazpen-proposamena idatzi aurretik, haien berri emango zaie interesdunei edo, hala badagokio, haien ordezkari, kontuan harturik abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitako mugapenak.

Aholkularitza juridikorako eskumena duen organoari txostena eskatu baino lehen emango zaie entzunaldia interesdunei, edo, autonomia-erkidegoak prozeduraren parte direnean, Estatu Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokidearen irizpena eskatu baino lehen.

2. Egoki irizten dieten dokumentu eta justifikazioak alega ditzakete interesdunek, gutxienez hamar egun eta gehienez hamabost egun iraungo duen epe batean.

3. Epea igaro aurretik interesdunek adierazten badute ez dutela alegaziorik egingo ez beste dokumentu edo justifikaziorik aurkeztuko, izapidea egintzat joko da.

4. Entzunaldiaren izapidea egin gabe utz daiteke prozeduran ez bada azaltzen eta ebazpenean ez bada kontuan hartu interesdunak azaldutako egitate, alegazio eta frogak besterik.

5. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 32.9 artikuluan aipatzen den ondare-erantzukizunari buruzko prozeduretan, beharrezkoa da beti entzunaldia ematea kontratistari, prozeduran egiten diren jarduketa guztien berri emanez, prozeduran pertsonatu dadin, bere eskubideei dagokiena azaldu dezan eta egoki deritzen frogabide guztiak proposa ditzan.

83. artikulua. Informazio publikoa.

1. Ebazpena eman behar duen organoak, hala eskatzen badu prozeduraren izaerak, erabaki dezake informazio publikorako aldi bat izatea.

2. Horretarako, iragarki bat argitaratuko da dagokion aldizkari ofizialean, edozein pertsona fisiko edo juridikok aztertu ahal izan dezan espedientearen edo erabakitzen den espediente-partea.

Iragarkian, adierazi behar da erakustaldia non egingo den, eta hala eskatzen duten pertsonen eskura jarri beharko da, bitarteko elektronikoz, dagokion egoitza elektronikoan. Alegazioak egiteko epea ere zehaztu behar du iragarkiak, inoiz ez hogeit egun baino gutxiagokoa.

3. Izapide horretan ez agertzeak ez die interesdunei eragotziko prozeduraren behin betiko ebazpenaren aurka dagozkien errekurtsoak aurkeztea.

Informazio publikoaren izapidean agertzeagatik ez da inor, besterik gabe, interesdun bihurtzen. Nolanahi ere, izapide horretan alegazioak edo oharrak aurkezten dituztenek Administrazioaren erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea dute; erantzun bakarra eman dakieke funtsean arazo bera agertzen duten alegazio guztiei.

4. Legeetan ezarritakoarekin bat etorriz, administrazio publikoek beste era, bitarteko eta bide batzuk ezar ditzakete herritarrek parte har dezaten –zuzenean edo legeek aitortutako antolakunde eta elkarten bitartez– administrazio-egintzak ematen diren prozeduran.

V. KAPITULUA**Prozedura amaitzea***1. atala Xedapen orokorrak**84. artikulua. Amaiera.*

1. Prozedura amaitzeko aukerak hauek dira: ebazpena, atzera egitea, eskaeraren oinarri den eskubideari uko egitea –ordenamendu juridikoak uko hori debekatzen ez badu– eta iraungitza deklaratzeko.

2. Prozedura amaitu egingo da, halaber, jarraitzea materialki ezinezkoa bada gerora sortutako arrazoiengatik. Ematen den ebazpenak arrazoitua izan behar du beti.

85. artikulua. *Zehapen-prozeduren amaiera.*

1. Zehapen-prozedura bat hasitakoan, arau-hausleak bere erantzukizuna aitortzen badu, dagokion zehapena ezarriz ebatzi ahal izango da prozedura.

2. Zehapena diruzkoa soilik baldin bada, edo aukera baldin badago diruzko zehapen bat eta diruzkoa ez den beste bat ezartzeko baina bigarrena egokia ez dela justifikatu bada, ustezko erantzuleak ebazpena baino lehenagoko edozein unetan borondatez ordaintzeak amaitu egingo du prozedura, salbu eta aldatutako egoera lehengoratzeari dagokiona edo arau-hausteagatik sortutako kalte eta galeren ordaina erabakitzeari dagokiona.

3. Bi kasuetan, zehapena diruzkoa soilik denean, prozedura ebazteko eskumena duen organoak murriztapenak aplikatuko ditu, gutxienez % 20koak, proposatutako zehapenaren gainean, eta murriztapenak elkarrekin bateratu daitezke. Murriztapen horiek zehaztuta egon behar dute prozeduraren hasierako jakinarazpenean. Haietaz baliatzeko, bestalde, zehapenaren aurka administrazio-bidean jarritako akzio edo errekurtsioetan atzera edo uko egin beharra dago.

Zenbaki honetan aurreikusitako murriztapen-ehunekoa handitu ahal izango da erregelamenduz.

86. artikulua. *Amaiera itundua.*

1. Administrazio publikoek akordioak, itunak, hitzarmenak eta kontratuak egin ditzakete zuzenbide publikoko zein pribatuko pertsonekin, baldin eta ordenamendu juridikoaren aurkakoak ez badira, transakziorik onartzen ez duten kontuen gainekoak ez badira, eta babestu behar duten interes publikoari erantzutea badute xede; betiere, kontuan izango dituzte prozedura arautzen duen xedapenean ezarritako irismena, ondorioak eta araubide juridiko espezifikoa. Egintza horiek administrazio-prozedura amaitzen dutela jo daiteke edo bestela prozeduran sartu, aurretiko moduan, prozedura amaitzen duen ebazpena baino lehen, lotesle gisa edo ez.

2. Dokumentu horietan adierazi behar dira, gutxienez: parte hartzen duten alderdiak zein diren, eremu pertsonala, eremu funtzionala eta lurralde-eremua, eta indarraldia. Argitaratu behar diren edo ez, izaeraren eta helburuko pertsonen arabera erabakiko da.

3. Onespen espresua eman beharko die Ministro Kontseiluak, edo autonomia-erkidegoetako organo baliokide batek, bere eskumen zuzeneko gaiei buruzko akordioak diren kasuetan.

4. Egiten diren akordioek ez dituzte aldatuko, ez administrazio-organoez esleituak dituzten eskumenak, ez agintari eta funtzionarioek zerbitzu publikoen funtzionamenduan dituzten erantzukizunak.

5. Ondare-erantzukizuneko prozeduren kasuan, aldean arteko akordioak kalte-ordainaren zenbatekoa eta modua zehaztu behar du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren legearen 34. artikulua hura kalkulatzeko eta ordaintzeko ezartzen dituen irizpideen arabera.

2. atala Ebazpena

87. artikulua. *Jarduketa osagarriak.*

Ebazpena eman aurretik, ebazteko eskumena duen organoak, erabaki arrazoitu baten bidez, erabaki dezake prozedura ebazteko ezinbestekoak diren jarduketa osagarriak egitea. Ez dira jarduketa osagarritzat hartuko prozeduraren azken ebazpena eman aurre-aurreko txostenak.

Jarduketa osagarriak egiteko erabakia interesdunei jakinaraziko zaie, eta amaitu ondorengo zazpi egun izango dituzte haiek egoki deritzoten alegazioak aurkezteko.

Jarduketa osagarriak gehienez ere hamabost eguneko epe batean egin beharko dira. Prozedura ebazteko epea etengo da jarduketa osagarriak amaitu bitartean.

88. artikulua. *Edukia.*

1. Prozedura amaitzen duen ebazpenean erabakiko dira, bai interesdunek planteatutako gai guztiak, bai prozeduratik eratorritakoak.

Lotura duten baina interesdunek planteatu ez dituzten gaiak agertzen baldin badira, organo eskudunak erabaki dezake haiei buruz, aurrez interesdunei adierazirik, gehienez ere hamabost eguneko epe batean, nahi dituzten alegazioak egin eta, hala badagokio, frogabideak aurkez ditzaten.

2. Interesdunak eskaturik izapidetutako prozeduretan, interesdunak eskatutakoaren harikoa izango da ebazpena, eta ezein kasutan ezin izango du interesdunaren hasierako egoera okerragotu, hargatik eragotzi gabe Administrazioak ofizioz beste prozedura bat hasteko ahala izatea, hala badagokio.

3. Ebazpenean, erabakia jaso behar da, eta erabaki arrazoitua izan behar du 35. artikuluan aipatutako kasuetan. Horrez gain, ebazpenetan jaso behar da zer errekurtsio aurkeztu daitezkeen haren aurka, zer administrazio-organori edo organo judizialari aurkeztu behar zaizkion eta zer epetan, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki iritzitako beste errekurtsoren bat aurkezteko aukera.

4. Interesdunak jakinarazpenetarako adierazitako modua eta lekua gorabehera, prozeduraren ebazpena elektronikoki emango da; organo eskudunaren identitatea bermatuko du ebazpenak, eta orobat bermatuko du autentikoa eta osoa dela dokumentua, lege honetan aurreikusitako tresnetakoren bat erabiliz formalizatua.

5. Administrazioa inoiz ezin da ebazpena eman gabe gelditu, aitzakiatzat harturik kasuan aplikatzekoak diren lege-manuen hutsunea, iluntasuna edo murriztasuna. Hala ere, Administrazioak erabaki dezake ez onartzea eskubideak aitortzeko eskaerak, eskubide horiek ez badaude aurreikusita ordenamendu juridikoan edo oinarria falta bazaie nabarmen, hargatik eragotzi gabe Konstituzioaren 29. artikuluan jasotako eske-eskubidea.

6. Txosten edo irizpenak onartzeak ebazpena arrazoitzeko balioko du haren testuari gehitzen zaizkionean.

7. Prozeduraren instrukzioa egiteko eskumena eta ebazpena ematekoa ez direnean organo berarenak, ebazpen-proposamen bat bidali beharko dio instrukzio-egileak ebazteko eskumena duen organoari.

Zehapen-prozeduretan, ondorengo artikuluan aurreikusitako moduan jakinarazi beharko zaie ebazpen-proposamena interesdunei.

89. artikulua. *Ebazpen-proposamena zehapen-prozeduretan.*

1. Instrukzio-organok prozedura amaitzea eta jarduketak artxibatzea ebatziko du, ebazpen-proposamena formulatu beharrik gabe, prozeduraren instrukzioan agerian jartzen denean honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen dela:

- a) Arau-hauste izan litekeen egitaterik ez egotea.
- b) Egitateak ez egiaztaturik gelditzea.
- c) Frogatutako egitateak ez arau-hauste administratibo izatea, modu agerikoan.
- d) Erantzule den pertsonarik ez izatea, edo ezin identifikatu izatea, edo erantzukizunik ez dutela agertzea.
- e) Arau-haustea preskribatu dela ondorioztatzea, edozein unetan.

2. Zehapen-prozeduretan, prozeduraren instrukzioa amaitutakoan, instrukzio-organok ebazpen-proposamen bat egingo du, eta interesdunei jakinarazi beharko zaie. Ebazpen-proposamenean, adierazi beharko da prozedura agerian jarri dela eta zer epe dagoen alegazioak egiteko eta egoki iritzitako dokumentuak eta informazioak aurkezteko.

3. Ebazpen-proposamenean adieraziko da, modu arrazoituan, zer egitate ematen diren frogatutzat eta zer kalifikazio juridiko duten zehazki, zehaztuko da zer arau-hauste diren, hala badira, nor den edo diren erantzule eta zer zehapen proposatzen den, zein den

egindako frogen balioespena, batez ere erabakiaren oinarri funtsezko direnena, eta behin-behineko zer neurri hartu den, hartu bada. Instrukziotik ondorioztatzen bada ez dagoela arau-hausterik edo erantzukizunik, eta ez bada baliatzen lehenengo zenbakian aurreikusitako ahalmena, hala jasoko da proposamenean.

90. artikulua. *Berezitasunak zehapen-prozeduren ebazpenean.*

1. Zehapen-prozeduretan, aurreko bi artikuluetan aurreikusitako edukiaz gain, ebazpenean sartuko da egindako frogen balioespena, batez ere erabakiaren oinarri funtsezko direnena, zehaztuko da zer egitate diren eta, hala badagokio, nor den edo diren erantzule, zer arau-hauste egin den edo diren eta zer zehapen ezartzen den edo diren, edo, bestela, arau-hausterik edo erantzukizunik ez dagoelako adierazpena.

2. Ebazpenean ezin da onartu prozeduran erabakitakoez bestelako egitaterik, haien balioespen juridiko desberdina gorabehera. Hala ere, ebazteko eskumena duen organoak uste badu arau-haustea edo zehapena astunagoa dela ebazpen-proposamenean erabaki dena baino, erruztatuari jakinaraziko zaio hori, egoki deritzon alegazioak aurkez ditzan hamabost eguneko epean.

3. Prozedura amaitzen duen ebazpena betearaztekoa izango da haren kontrako administrazio-bideko ezein errekurtsio arrunt jartzetik ez dagoenean, eta kautela-neurriak har daitezke, hartan, betearaztekoa ez den bitartean haren efikazia bermatzeko; kautela-neurria izan daiteke behin-behineko neurriei eustea, halakorik hartu denean.

Ebazpena, betearaztekoa denean, kautelaz eten daiteke interesdunak Administrazioari adierazten badio asmoa duela administrazio-bidean irmoa den ebazpenari administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzeko. Kautelaz etete hori amaituko da:

a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzeko legez aurreikusitako epea amaitu denean interesdunak halakorik jarri gabe.

b) Interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri badu:

1) Izapide berean aurkaratutako ebazpenaren kautelazko etetea eskatu ez denean.

2) Organo judizialak irizpena ematen duenean eskatutako kautelazko eteteaz, hartan aurreikusitako moduan.

4. Zehatutako jokaerek kalteak edo galerak eragin badizkiete administrazioei eta kalte horiek ordaintzera bideratutako kopurua ez bada espedientean zehaztu, zenbateko hori prozedura osagarri baten bitartez erabakiko da, eta prozedura horretako ebazpena berehala betearaztekoa izango da. Prozedura hori modu itunduan amaitu daiteke, baina ez itunak ez arau-hausleak ebazpena onartzeak ez dakarte borondatez bere erantzukizuna aitortzea. Prozeduraren ebazpenak amaitu egingo du administrazio-bidea.

91. artikulua. *Berezitasunak ondare-erantzukizuneko prozedurak ebaztean.*

1. Behin 81.2 artikulua aipatzen duen irizpena jasotakoan, edo, irizpen hori nahitaezkoa ez denean, entzunaldiaren izapidea amaitutakoan, organo eskudunak ebatzi egingo du edo akordio-proposamena igorriko die interesdunari eta hartarako eskumena duen administrazio-organuari, formalizatzeko. Ez bada egokitzat jotzen amaiera itundurako proposamena formalizatzea, ondorengo zenbakian aurreikusitako moduan ebatziko du organo eskudunak.

2. 88. artikuluan aurreikusitakoaz gainera, ondare-erantzukizunari buruzko prozeduren kasuan, ebazpenak adierazi beharra dauka kausalitate-loturarik baden edo ez den zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eta eragindako kaltearen artean, eta, hala badagokio, balioespena egin behar du sortutako kalteaz, kalte-ordainaren zenbatekoaz eta ordaintzeko moduez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legearen 34. artikuluan hura kalkulatzeko eta ordaintzeko ezartzen diren irizpideen arabera.

3. Prozedura hasi eta sei hilabeteren buruan ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada, edo akordioa formalizatu ez bada, ebazpena partikularrari kalte-ordaina ematearen aurkakoa dela jo daiteke.

92. artikulua. *Ondare-erantzukizuneko prozedurak ebazteko eskumena.*

Estatuaren Administrazio Orokorren eremuan, dagokion ministroak edo Ministro Kontseiluak ebatziko ditu ondare-erantzukizuneko prozedurak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 32.3 artikulua adierazitako kasuetan edo lege batek hala xedatzen duenean.

Autonomia-erkidegoen eta toki-administrazioaren eremuan, autonomia-erkidegoetako edo toki-administrazioa osatzen duten entitateetako dagokien organoek ebatziko dituzte ondare-erantzukizunari buruzko prozedurak.

Zuzenbide publikoko entitateen kasuan, haien araubide juridikoa erabakitzen duten arauak ezar dezakete nori dagokion ondare-erantzukizuneko prozedurak ebaztea. Bestela, artikulua honetan aurreikusitako arauak aplikatuko dira.

3. atala *Atzera egitea eta uko egitea*

93. artikulua. *Administrazioak atzera egitea.*

Ofizioz hasitako prozeduretan, Administrazioak atzera egin ahal izango du, arrazoiturik, legeetan aurreikusitako kasuetan eta aurreikusitako betekizunekin.

94. artikulua. *Interesdunek atzera egitea eta uko egitea.*

1. Interesdun orok atzera egin dezake bere eskaeran, edo, ordenamendu juridikoan debekatuta ez badago, uko egin diezaieke bere eskubideei.

2. Hasierako idazkia interesdun bik edo gehiagok aurkeztua denean, norbaitek atzera egiteak edo uko egiteak hari bakarrik eragingo dio.

3. Bai atzera egitea, bai uko egitea, gauzatu daitezke jasota geratzeko edozein bitartekoren bidez, baldin eta aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoaren arabera behar diren sinadurak badituzte.

4. Administrazioak bere horretan onartuko du atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango du prozedura, non eta, prozeduran hirugarren interesdun batzuk pertsonatuta egonik, haiek ez duten eskatzen prozedurak jarraitzeko, atzera egitearen edo uko egitearen berri eman ondorengo hamar egunen barruan.

5. Prozedura hasteko gaia interes orokorrekoa bada edo gai hori mugatzeko eta argitzeko komeni bada hezurmamitzea, Administrazioak erabaki dezake interesdunari baino ez eragitea atzera egiteak edo uko egiteak, eta aurrera jarraitzea prozedurak.

4. atala *Iraungitzea.*

95. artikulua. *Betekizunak eta ondorioak.*

1. Prozedura interesdunak eskaturik hasia denean, hari inputa dakioken arrazoiren bategatik gelditzen bada, Administrazioak adieraziko dio prozedura iraungi egingo dela hiru hilabete igarotakoan. Hiru hilabeteok igaro eta partikularrak ez badu egin prozedura ostera izapidetzeko egin behar duena, ordura arte egindakoa artxibatzea erabakiko du Administrazioak, eta horren berri emango dio interesdunari. Prozedura iraungitzat deklaritzen duen ebazpenaren aurka, dagozkion errekursoak aurkez daitezke.

2. Ezin da prozedura iraungi dela erabaki interesdunak izapideak egiten ez dituelako bakarrik, izapide horiek ez badira behintzat ebazpena emateko ezinbestekoak. Ez egite horrek ez du beste ondoriorik izango izapide horretarako eskubidea galtzea baino.

3. Prozedura iraungitze hutsak ez du besterik gabe ekarriko partikularraren edo Administrazioaren akzioak preskribatzea, baina prozedura iraungiek ez dute geldiaraziko preskripzio-epaen zenbaketa.

Preskripzioa gertatu ez delako beste prozedura bat hasteko aukera ematen duten kasuetan, prozedura horri gehitu ahal izango zaizkio iraungitzea gertatu ezean edukia berdin mantenduko zuten egintza eta izapideak. Prozedura berrian, betiere, bete beharreko

izapideak izango dira alegazioak, froga-proposamena eta interesdunari entzunaldia ematea.

4. Gerta daiteke iraungitzea ez aplikagarri izatea, sortutako arazoa interes orokorrekoa bada edo arazoa mugatzeko eta argitzeko komeni bada bideratzea.

VI. KAPITULUA

Administrazio-prozedura erkidearen izapidetze sinplifikatua

96. artikulua. *Administrazio-prozedura erkidearen izapidetze sinplifikatua.*

1. Interes publikoa tartean badago edo prozedura ez bada konplexua, modu sinplifikatuan izapidetzea erabaki dezakete administrazio publikoek, ofizioz edo interesdunak eskaturik.

Prozedura ebatzi aurreko edozein unetan, izapidetze arruntaren arabera jarraitzea erabaki ahal izango du izapidetzeko eskumena duen organoak.

2. Prozedura modu sinplifikatuan izapidetzea erabakitzen badu Administrazioak ofizioz, hala jakinarazi beharko die interesdunei. Haietakoren bat kontra agertzen bada espresuki, izapidetze arruntari jarraitu beharko dio Administrazioak.

3. Interesdunek eska dezakete prozedura modu sinplifikatuan izapidetzeko. Izapidetzeko eskumena duen organoak ikusten badu ez dela betetzen 1. zenbakian aurreikusitako arazoietakoren bat, ezetsi ahal izango du eskaera, aurkeztu ondorengo bost eguneko epean, interesdunak errekurtsorik jartzeko aukerarik gabe. Bost eguneko epea amaitutakoan, ezetsizat joko da eskaera.

4. Administrazio publikoen ondare-erantzukizunari buruzko prozeduretan, administrazio-prozedura hasitakoan hura izapidetzeko eskumena duen organoak irizten badio zalantzarik gabea dela zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eta kaltearen arteko kausalitate-lotura, eta zalantzarik gabea orobat kaltearen balioespena eta kalte-ordainaren kalkulua, ofizioz erabaki ahal izango du prozedura orokorra etetea eta prozedura sinplifikatua hastea.

5. Zehapen-prozeduren kasuan, prozeduraren izapidetze sinplifikatua hautatu ahal izango da prozedura hasteko eskumena duen organoak irizten badio ezen, hura erregulatzen duen araudiaren arabera, irizpen-elementu nahikoa dagoela arau-haustea arintzat jotzeko; ez da aukerarik izango interesdunak 2. zenbakian aurreikusitako aurkakotasun espresua adierazteko.

6. Izapidetze arrunterako denbora gutxiago geratzen ez bada behintzat, hogeita hamar eguneko epean ebatzi beharko dira modu sinplifikatuan izapidetutako prozedurak, prozeduraren izapidetze sinplifikaturako erabakia interesdunari jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbaturik epea, eta izapide hauek bakarrik egingo dira haietan:

- a) Prozedura hastea, ofizioz edo interesdunak eskaturik.
- b) Aurkeztutako eskaera zuzentzea, hala badagokio.
- c) Prozeduraren hasierari bost eguneko epean aurkeztutako alegazioak.
- d) Entzunaldiaren izapidea, ebazpenak interesdunaren kontrakoa izan behar duen kasuan bakarrik.
- e) Zerbitzu juridikoaren txostena, nahitaezkoa denean.
- f) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren txostena, nahitaezkoa denean.
- g) Estatu Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokidearen irizpena, nahitaezkoa den kasuetan. Irizpena Estatu Kontseiluari edo organo baliokideari eskatzen zaionetik ematen den arte, ebazteko epea etengo da automatikoki.

Prozedura ebazteko epea betetzeko moduko epe batean eskatuko du organo eskudunak irizpena eman dadila. Hamabost eguneko epean eman ahal izango da irizpena, hala eskatzen badu organo eskudunak.

Beti ere, Estatu Kontseiluari edo organo aholku-emaile baliokideari bidaltzen zaion espedientean sartuta egongo da ebazpen-proposamen bat. Irizpena ebazpen-proposamenaren funtsaren kontrakoa denean, irizpide hori aintzat hartu edo ez, ebazteko

eskumena duen organoak prozedurak izapidetze arruntaren bitartez jarraitzea erabakiko du, eta hala jakinaraziko die interesdunei. Kasu horretan, baliozkotzat joko dira prozeduraren izapidetze sinplifikatuan egin diren jarduketa guztiak, salbu eta Estatu Kontseiluaren edo organo aholku-emaile baliokidearen irizpena.

h) Ebazpena.

7. Aurreko zenbakian aurreikusi gabeko izapideren bat egitea eskatzen duten prozedurak modu arruntean izapidetu beharko dira.

VII. KAPITULUA

Ebazpenak betearaztea

97. artikulua. *Titulua.*

1. Administrazio publikoek ez dute partikularren eskubideak murrizten dituen jarduketa materialik hasiko erabakiak betearaztean, ez bada aurretik eman jarduketa horren oinarri juridikoa den ebazpena.

2. Ebazpenen betearazte materialerako egintza bat agintzen duen organoa behartuta dago partikular interesdunari jakinaraztera administrazio-jarduketa baimentzen duen ebazpena.

98. artikulua. *Betearazi beharra.*

1. Administrazio Zuzenbidearen mende dauden administrazio publikoen egintzak berehala betearaztekoak izango dira, salbu:

- a) Egintzaren betearazpena eteten denean.
- b) Zehapen-prozedura baten ebazpena denean, administrazio-bideko errekurtsoren bat jar dakioketena, aukerako berraztertze-errekurtsoa barne.
- c) Xedapenen baten kontrakoa agintzen duenean.
- d) Goragoko onespene edo baimena behar denean.

2. Administrazio-ebazpen batetik edo legeak administrazio-prozedura amaitzeko aurreikusitako beste moduren batetik ordaintzeko betebeharrak bat sortzen denean, diruzko zehapen baten, isun baten edo Ogasun Publikoari ordaindu beharreko beste edozein eskubideren ondorioz, ordainketa hori honako bitarteko elektronikoko hauetako baten bitartez egingo da ahal dela, ezinezkoa dela justifikatu ezean:

- a) Kreditu- eta zorduntze-txartela.
- b) Banku-transferentzia.
- c) Banku-helbideratzea.
- d) Ogasun Publikoaren gaian eskumena duen organoak baimendutako beste edozein.

99. artikulua. *Nahitaezko betearazpena.*

Administrazio publikoek, kasuan-kasuan eskumena duen organoaren bitartez, administrazio-egintzen nahitaezko betearazpena egin dezakete, aurrez ohartarazita, salbu eta betearazpena legearen arabera eteten den kasuetan edo Konstituzioak edo legeek organo judizial batek esku hartzea eskatzen dutenean.

100. artikulua. *Nahitaezko betearazteko bitartekoak.*

1. Administrazio publikoek, nahitaezko betearazpenetan, proportzionaltasun-printzipioa zaindu behar dute beti, bitarteko hauekin:

- a) Ondarearekiko premiamendua.

- b) Betearazpen subsidiarioa.
- c) Hertsatzeko isuna.
- d) Pertsonak derrigortzea.

2. Betearazteko bitarteko bat baino gehiago onargarri denean, askatasun indibiduala gutxien murrizten duena aukeratuko da.

3. Ukituaren egoitzan sartu beharra badago, edo titularraren baimena behar den bestelako lekuetan, haren adostasuna lortu behar dute administrazio publikoek, edo, halakorik ezean, epailearen baimena.

101. artikulua. *Ondarearekiko premiamendua.*

1. Administrazio-egintza baten ondorioz dirua ordaindu behar izanez gero, premiamendu-prozedura erregulatzen duten arauetan aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio.

2. Administrazioeuei ezein kasutan ezin ezarriko zaie lege-mailako arau baten arabera ezarrita ez dagoen diruzko betebeharririk.

102. artikulua. *Betearazpen subsidiarioa.*

1. Betearazpen subsidiarioa erabiltzeko aukera izango da egintza guztiz pertsonalak ez izateagatik betebeharra duenaz beste norbaitek egin ditzakeenean.

2. Kasu horretan administrazio publikoek egingo dute egintza, beren kabuz edo izendatzen dituzten pertsonen bitartez, betebeharra duenaren kontura.

3. Gastu, kalte eta galeren zenbatekoa aurreko artikuluan ezarritako moduan ordainaraziko da.

4. Zenbateko hori behin-behinekoz likida daiteke eta egintza betearazi aurretik ordaindu, eta gero behin betiko likidazioa egin.

103. artikulua. *Hertsatzeko isuna.*

1. Legez baimenduta dagoenean, eta legeetan jarritako moduan eta zenbatekoz, hertsatzeko isunak ezar ditzakete administrazio publikoek egintza jakin batzuk betearazteko, eta agindutakoa betetzeko behar besteko tartea utzita errepikatu isunok, kasu hauetan:

a) Egintza guztiz pertsonaletan, betebeharra daukan pertsona zuzenean derrigortzea egoki ez denean.

b) Derrigortzea egoki izanda ere administrazioak komenigarritzat jotzen ez duenetan.

c) Betebeharra daukanak beste bati egintzak betetzeko mandatua eman diezaiokeenean.

2. Hertsatzeko isuna ez dago lotua ezar daitezkeen izaera bereko zehapenekin, eta bateragarria da haiekin.

104. artikulua. *Pertsonak derrigortzea.*

1. Zerbait ez egiteko edo jasateko betebeharrak guztiz pertsonala ezartzen duten administrazio-egintzak betearaz daitezke herritarrek zuzenean derrigortuz, legeak hori espresuki baimentzen duen kasuetan, eta beti gizakiaren duintasuna eta Konstituzioan aitortutako eskubideak behar bezala zainduz.

2. Zerbait egiteko betebeharrak guztiz pertsonalen kasuan, betetzen ez bada, kalte eta galerak ordaindu beharko ditu betebeharra daukanak. Administrazio-bidetik egingo dira kalte-galeren likidazioa eta kobrantza.

105. artikulua. *Edukitzea-akzioen debekua.*

Ez da izapidetzeko onartuko edukitzea-akziorik administrazio-organoez beren eskumenen eremuan eta legez ezarritako prozedurarekin bat etorritik egindako jarduketan aurka.

V. TITULUA

Egintzak administrazio-bidetik berrikustea

I. KAPITULUA

Ofiziotik berrikuspena

106. artikulua. *Xedapen eta egintza deusezkatu berrikustea.*

1. Administrazio publikoek, noiznahi, beren ekimenez edo interesdunek eskaturik, eta aurrez aldeko irizpena emanik Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokideak, halakorik bada, deuseztat deklaratu dituzte, ofiziotik, administrazio-bidea amaitu duten administrazio-egintzak edo epe barruan aurkako administrazio-errekurtsorik izan ez dutenak, 47.1 artikuluan jasotako kasuetan.

2. Era berean, noiznahi, administrazio publikoek aukera izango dute ofiziotik, eta aurrez aldeko irizpena emanik Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokideak, halakorik bada, administrazio-xedapenak deuseztat deklaratzeko 47.2 artikuluan jasotako kasuetan.

3. Ofiziotik berrikusteko eskumena duen organoak, Estatu Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emailearen irizpena eskatu beharrik gabe, interesdunek egindako eskaerak izapidetzeko ez onartzea erabaki dezake, arrazoiak azalduta, honako kasu hauetan: eskaerak 47.1. artikuluan arabera deuseztat jotzeko arrazoiren batean oinarritzen ez direnean, edo nabarmen funtsik gabeak direnean, edo oinarri berdintsuko beste eskaera batzuk funtsari dagokionez ezetsita daudenean.

4. Administrazio publikoek, xedapen edo egintza bat deuseztat deklaratzeko ebazpenean, zehaztu dezakete zer kalte-ordain jaso behar duten interesdunek, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 32.2 eta 34.1 artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen badira, hargatik eragotzi gabe, xedapena denean, xedapen horren ondorioz emandako egintza irmoek irautea.

5. Prozedura ofiziotik hasia denean, hasi denetik sei hilabeteko epea betetzen bada ebazpenik eman gabe, iraungi egingo da prozedura. Interesdunak eskaturik hasten denean, berriz, administrazio-isiltasunez ezetsitatu jo daiteke.

107. artikulua. *Egintza deuseztagarriak kaltegarri deklaratzeko.*

1. Administrazio publikoek administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu ahal izango dituzte interesdunen alde eman diren egintzak, deuseztagarriak baldin badira 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, aurrez interes publikorako kaltegarri deklaratu.

2. Kaltegarritasun-deklarazioa ezin egingo da administrazio-egintza eman zenetik lau urte igaro badira. Deklarazioa egin aurretik, entzunaldia eman behar du interesdun gisa agertzen diren guztiei, 82. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Prozesu judizialean ekintza onargarria den auresateko aztertzeko aukera gorabehera, kaltegarritasun-deklarazioari ezin izango zaio errekursorik jarri, baina jakinarazi ahal izango zaie interesdunei, informazio-ondorio hutsetarako.

3. Prozedura hasi denetik sei hilabete igaro eta epe horretan egintza kaltegarri deklaratu ez bada, iraungi egingo da prozedura.

4. Estatuaren Administrazio Orokorrena edo autonomia-erkidegoena bada egintza, administrazio bakoitzean gaian eskumena duen organoak egingo du kaltegarritasun-deklarazioa.

5. Toki-administrazioa osatzen duten entitateetako batena bada egintza, udalbatzaren osoko bilkurak egingo du kaltegarritasun-deklarazioa, edo, halakorik ez badago, entitateko kide anitzeko organo gorenak.

108. artikulua. *Etetea.*

Hasita badago 106. eta 107. artikuluetan jaso den ofizioz berrikusteko prozedura, deuseztasuna edo kaltegarritasuna deklaratzeko eskumena duen organoak eten ahal izango du egintzaren betearazpena, kalte erreparaezin edo erreparagaitzak sor litzakeenean.

109. artikulua. *Egintzak errebokatzea eta okerrak zuzentzea.*

1. Preskripzio-epaia bete ez den bitartean, administrazio publikoek edozein unetan erreboka ditzakete beren egintzak, kargak ezartzen dituztenak edo inoren kalterako direnak, betiere errebokazio hori ez bada legeek onartzen ez duten lekapen edo salbuespena, eta ez bada berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoa.

2. Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

110. artikulua. *Berrikuspenaren mugak.*

Kapitulu honetan xedatutako berrikuspen-ahalmenak baliatzerik ez dago baldin eta, akzioak preskribatu direlako, denbora igaro delako bestelako gorabeherengatik, ahalmen horiek baliatzea ekitatearen, fede onaren, partikularren eskubideen edo legeen aurkakoa bada.

111. artikulua. *Administrazio-xedapen eta -egintza deusez eta deuseztagarriak ofizioz berrikusteko eskumena Estatuaren Administrazio Orokorrean.*

Estatuaren eremuan, administrazio-xedapen eta -egintza deusez eta deuseztagarriak ofizioz berrikusteko eskudun izango dira:

a) Ministro Kontseilua, bere egintza eta xedapenei dagokienez eta ministroek emandako egintza eta xedapenei dagokienez.

b) Estatuaren Administrazio Orokorrean:

1) Ministroak, estatu-idazkaritzaren egintza eta xedapenei dagokienez eta estatu-idazkaritza baten mende ez dauden bere departamentuko zuzendaritza-organoei emandakoei dagokienez.

2) Estatu-idazkariak, haien mendeko zuzendaritza-organoei emandako egintza eta xedapenei dagokienez.

c) Estatuaren Administrazio Orokorri loturik edo haien mendean dauden organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitateetan:

1) Organismo publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak adskribaturik dauden organoak, haien artezkaritza-organoko nagusiak emandako egintza eta xedapenei dagokienez.

2) Organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen artezkaritza-organoko nagusiak, haien mendeko organoak emandako egintza eta xedapenei dagokienez.

II. KAPITULUA

Administrazio-errekurtsoak

1. atala Xedapen orokorrak

112. artikulua. *Errekurtsoaren xedea eta errekurtso motak.*

1. Ebazpenen eta izapide-egintzen aurka, azken horiek gaiaren funtsa erabakitzen badute zuzenean edo zeharka, prozedurak jarraitu ezina eragiten badute, defentsa-gabezia edo eskubide eta interes legitimoen kalte erreparaezina sortzen badute, interesdunek aukera izango dute gora jotzeko errekurtsoa eta aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkezteko, oinarritzat harturik deuseztasunari eta deuseztagarritasunari buruz lege honen 47. eta 48. artikuluetan azaldutako arazoietakoren bat.

Gainerako izapide-egintzen aurka egonez gero, interesdunek alegatu egin behar dute, prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean hori kontuan hartzeko.

2. Kasu eta arlo sektorial jakin batzuetan, eta gaiaren berezitasunak hala eskatzen duenean, gora jotzeko errekurtsoaren ordezkari beste prozedura batzuk ezar ditzakete legeek: aurkaratzea, erreklamazioa, adiskidetzea, bitartekotza eta arbitrajea. Hierarkian goragoko instrukzioen mendean ez dauden kide anitzeko organoetara edo batzorde espezifikoetara jo behar da horretarako, lege honek pertsonen eta administrazio-prozeduretan interesdun direnei aitortzen dizkien printzipio, berme eta epeak zainduz.

Baldintza berberetan, berraztertze-errekurtsoa ere ordezkari daiteke aurreko paragrafoan azaldutako prozedurekin, betiere aukerakoa izanik interesdunarentzat.

Prozedura horiek toki-administrazioaren eremuan aplikatzeak ezin ekarriko du legeak ordezkari-organoen hautetsiei aitortzen dizkien ebazte-ahalmenak ez aintzat hartzea.

3. Administrazio-xedapen orokorren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu administrazio-bidean.

Administrazio-egintza baten aurkako errekurtsoen oinarri bakarra administrazio-xedapen orokorren baten deuseztasuna bada, xedapen orokor hori eman zuen organoari aurkez dakizkioke zuzenean errekurtsoak.

4. Erreklamazio ekonomiko administratiboak aurkeztean, haien legeria espezifikokoan ezarritako prozedurei jarraituko zaie.

113. artikulua. *Berrikuspen-errekurtso berezia.*

Administrazio-bidean irmoak diren egintzen aurka, 125.1 artikuluan adierazitako kasuetan bakarrik aurkez daiteke berrikuspen-errekurtso berezia.

114. artikulua. *Administrazio-bidearen amaiera.*

1. Administrazio-bidea amaituko dute:

- a) Gora jotzeko errekurtsoen ebazpenek.
- b) 112.2 artikuluan jasotako prozeduren ebazpenek.
- c) Hierarkian goragorik ez duten administrazio-organoen ebazpenek, legeren batean aurkakorik ezartzen ez bada.
- d) Prozedura amaitzekotzat jotzen diren akordio, itun, hitzarmen edo kontratuek.
- e) Ondare-erantzukizuneko prozeduretan, administrazio-ebazpenak amaitu egiten du administrazio-bidea, edozein dela ere prozedura ekarri duen harreman mota, publikoa nahiz pribatua.
- f) 90.4 artikuluan jasotako zehapen-gaietako prozedura osagarrien ebazpenak.
- g) Administrazio-organoen gainerako ebazpenek, lege- edo erregelamendu-xedapenen batek hala aginduz gero.

2. Aurreko zenbakian aurreikusitakoaz gain, Estatuaren eremuan administrazio-bideari amaiera ematen diote honako egintza eta ebazpen hauek:

- a) Gobernuako kide eta organoen administrazio-egintzek.
- b) Ministroek eta estatu-idazkariak beren ardurapeko organoei esleitutako eskumenak baliatzean egindakoak.
- c) Zuzendari nagusiaren maila edo goragokoa duten zuzendaritza-organoei pertsonalaren arloan dituzten eskumenekin loturik emandakoak.
- d) Estatuaren Administrazio Orokorrari loturik edo haren mende dauden organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitateetan, pertsona bakarreko edo kide anitzeko zuzendaritza-organo nagusiek beren estatutuek ezartzen dutenaren arabera emandakoak, legez besterik ezartzen ez bada.

115. artikulua. *Errekurtsoa jartzea.*

1. Errekurtsoa jartzean, adierazi behar dira:

- a) Errekurtso-jartzailearen izen-abizenak eta hura identifikatzeko datuak.
- b) Zer egintzaren aurka jartzen den errekurtsua eta zergatik.
- c) Tokia, eguna, errekurtsu-jartzailearen sinadura, jakinarazpenak jasotzeko bidea eta, hala badagokio, lekua.
- d) Administrazio-organoko zer organo, erakunde edo unitateri zuzentzen zaion, eta zein den haren identifikazio-kodea.
- e) Xedapen espezifikoetan ezarritako gainerako zehaztasunak, halakorik baldin bada.

2. Errekurtso-jartzaileak errekurtsuari okerreko kalifikazioa jartzea, edo kalifikaziorik ez jartzea, ez da eragozpen izango errekurtsua izapidetzeko, garbi badago behintzat zein den bere benetako izaera.

3. Egintza bat deuseztagarri bihurtzen duten huts eta akatsak eragin dituenak ezin izango ditu gero huts edo akats horiek alegatu.

116. artikulua. *Ez onartzeko arrazoiak*

Ez onartzeko arrazoi dira honako hauek:

- a) Administrazio-organoei eskumenik ez izatea, eskuduna beste administrazio publiko batekoa denean. Organo eskudunari bidali beharko zaio errekurtsua, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko legearen 14.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.
- b) Errekurtso-jartzailearen legitimaziorik eza.
- c) Errekurtsorik ezin jarri zaion egintza bat izatea.
- d) Errekurtsoa jartzeko epea igaro izana.
- e) Errekurtsoak funtsik ez izatea, nabarmen.

117. artikulua. *Betearazpena etetea.*

1. Edozein errekurtsu aurkezteak ez du etengo aurkaratutako egintzaren betearazpena, xedapenen batean bestelakorik adierazten ez bada.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, errekurtsua ebazteko eskumena duen organoak eten ahal izango du aurkaratutako egintza, ofizioz edo errekurtsu-jartzaileak eskaturik, aurretik modu aski arrazoituan haztatuta, alde batetik, eteteak zer-nolako kalteak eragin diezazkiekeen interes publikoari edo hirugarren batzuei, eta, bestetik, errekurtsu-jartzaileari zer kalte egiten zaion egintza errekurrituaren berehalako efikaziaren ondorioz, inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Betearazpenak kalte erreparaezin edo erreparagaitzak ekartzea.
- b) Aurkaratzearen oinarria lege honen 47.1 artikuluan erabateko deuseztasunerako aurreikusitako arrazoietakoren bat izatea.

3. Aurkaratutako egintzaren betearazpena eten dela ulertuko da baldin eta, hilabete igaro delarik egintza eteteko eskaera erabakitzeko eskumena duen administrazioaren edo organoaren erregistro elektronikoa sartu denetik, errekurtsua ebazteko eskumena duen organismoak ez badu hari buruzko ebazpen espresurik eman eta jakinarazi. Halako kasuetan, ez da aplikatuko lege honen 21.4 artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoa.

4. Eteteko erabakia ematean, behar diren kautela-neurriak har daitezke interes publikoa edo hirugarren batzuen babesteko eta aurkaratutako ebazpen edo egintzaren efikazia ziurtatzeko.

Eten izanaren ondorioz kalteren bat etor badaiteke, edozein eratakoa dela ere, eten izanak ez du ondorioz izango harik eta kalte horiei erantzuteko nahiko kauzio edo berme ematen den arte, erregelamenduz ezarritako moduan.

Administrazio-bidea amaituta ere luzatu ahal izango da etena, baldin eta, interesdunak aurrez eskaturik, kautela-neurriak hartuta badaude eta neurri horien ondorioak administrazioarekiko auzibidera ere zabaltzen badira. Interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzen badu prozesuaren xede den egintza eten dadila eskatzeko, eskaerari buruz epaileak dagokiona esan arte eutsiko zaio etenari.

5. Errekurtsuaren xedea hainbat pertsonari eragiten dion administrazio-egintza bat aurkaratzea bada, egintza agertu zen aldizkari ofizialean argitaratu egin behar da egintza horren efikazia eten dela.

118. artikulua. *Interesdunei entzunaldia ematea.*

1. Jatorrizko espedientean jaso ez diren beste egitate edo dokumentu batzuk hartu behar badira kontuan, haien berri emango zaie interesdunei, gutxienez hamar egun eta gehienez hamabost iraungo duen epe batean alegazioak egin eta egoki deritzoten dokumentu eta egiaztagirak aurkez ditzaten.

Errekurtsuak ebaztean, ez da kontuan hartuko errekurtsu-jartzaileak alegazioen izapidean aurkeztu ez duen egitate, dokumentu eta alegaziorik, alegazioen izapidean aurkezteko aukera izan bazuen. Ezin eskatuko da frogak egiteko, orobat, ebazpen errekurritua eman zen prozeduran ez egin izana interesdunari inputa dakiokenean.

2. Beste interesdunik izanez gero, errekurtsua helaraziko zaie, lehen esandako epean egoki irizitako guztia alega dezaten.

3. Errekurtsua, txostenak eta proposamenak ez dira dokumentu berrizat hartuko artikulua honen ondorioetarako. Ez dira dokumentu berrizat hartuko, orobat, aurkaratutako ebazpena eman aurretik interesdunek espedienteari erantsitakoak.

119. artikulua. *Ebazpena.*

1. Errekurtsuaren ebazpenean, errekurtsuan azaldutako eskaerak guztiz edo partez baietsiko dira, ezetsiko dira edo errekurtsua ez onartzea erabakiko da.

2. Forma-akats bat dela-eta edukiari buruzko ebazpena ematea egokitzen ez bada, prozedura akatsa egin zen urratsera atzeraeragitea aginduko da. Aukera izango da, hala ere, baliozkotzeko eskumena duen organoak erabaki dezan jarduketak baliozkotzea, 52. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Errekurtsua ebazten duen organoak prozedurako arazo guztiak argituko ditu, bai formazkoak bai edukizkoak, interesdunek alegatuak izan edo ez. Interesdunek alegatu ez dituzten arazoen gainean ebatzi baino lehen, entzun egingo zaie interesdunei. Nolanahi ere, errekurtsu-jartzaileak eskatutakoaren harikoa izango da ebazpena, eta ezin izango du inoiz okerragotu haren hasierako egoera.

120. artikulua. *Hainbat administrazio-errekurtsu ebaztea.*

1. Hainbat administrazio-errekurtsu ebatzi behar direnean, administrazio-egintza beretik sortuak, eta errekurtsu judizial bat jarri denean administrazio-ebazpen baten kontra edo dagokion presuntziozko egintza ezeslearen kontra, administrazio-organoak erabaki ahal izango du ebazteko epea etetea erabaki judiziala ematen den arte.

2. Epea eteteko erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie, eta haiek errekurtsua jartzeko aukera izango dute.

Interesdun batek errekurtsua jartzeak ez die eragingo administrazio-egintza beretik datozelako etenda dauden gainerako errekurtsu-prozedurei.

3. Erabaki judiziala iritsitakoan, interesdunei komunikatuko zaie, eta ebazteko eskumena duen administrazio-organismoak ebazpena eman ahal izango du izapide gehigarririk egin beharrik gabe, salbu eta entzunaldiarena, egoki denean.

2. atala Gora jotzeko errekurtsua

121. artikulua. *Xedea.*

1. 112.1 artikuluan adierazitako ebazpen eta egintzen aurka, administrazio-bidea amaitzen ez dutenean, gora jotzeko errekurtsua jar daiteke eman zituen organoaren hierarkian goragoko mailakoan. Ondorio horietarako, administrazio publikoetako langileak hautatzeko epaimahai eta organoak, edo haien mendean autonomia funtzionalez diharduten beste edozein, adskribatuta dauden organoaren edo, bestela, haietako burua aukeratu duenaren mendekoak direla ulertuko da.

2. Aurkaratzen den egintza eman zuen organoaren edo hari buruz ebazteko eskumena duen organoaren aurrean jar daiteke errekurtsua.

Aurkaratutako egintza eman zuen organoari aurkeztu bazaio errekurtsua, hark, hamar eguneko epean, ebazteko eskumena duen organora igorri behar dio, bere txostenarekin eta espedientearen kopia oso eta ordenatuarekin batera.

Egintza errekurritua eman zuen organoko titularra izango da aurreko paragrafoan adierazitakoa betetzeko zuzeneko erantzulea.

122. artikulua. *Epeak.*

1. Gora jotzeko errekurtsua jartzeko epea hilabetekoa izango da, egintza espresua denean. Epe hori amaitu eta errekurtsorik jarri ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

Egintza espresua ez bada, eskatzaileak eta izan litezkeen beste interesdun batzuek gora jotzeko errekurtsua jar dezakete, noiznahi, araudi espezifikokoaren arabera administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta biharamunetik aurrera.

2. Errekurtsuaren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabete izango da. Epe hori amaitu eta ebazpenik eman ez bada, uler daiteke errekurtsua ezetsi egin dela, salbu eta 24.1 artikuluko hirugarren paragrafoan aurreikusitako kasuan.

3. Gora jotzeko errekurtsuaren ebazpenaren aurka, ezin izango da bestelako administrazio-errekurtsorik jarri, salbu eta, 125.1 artikuluan ezarritako kasuetan, berrikuspen-errekurtsu berezia.

3. atala Aukerako berraztertze-errekurtsua

123. artikulua. *Xedea eta izaera.*

1. Administrazio-bidea amaitzen duten administrazio-egintzen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsua jar dakioko egintza eman zuen organoari berari, edo zuzenean aurkaratu daitezke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

2. Administrazioarekiko auzi-errekurtsorik ezin jarriko da ebazpen espresua eman arte edo jarritako berraztertze-errekurtsuaren presuntziosko ezespena gertatu arte.

124. artikulua. *Epeak.*

1. Berraztertze-errekurtsua jartzeko epea hilabete izango da, egintza espresua bada. Epe hori amaitutakoan, administrazioarekiko auzi-errekurtsua bakarrik jar daiteke, hargatik eragotzi gabe egoki bada berrikuspen-errekurtsu berezia jartzeko aukera.

Egintza espresua ez bada, eskatzaileak eta izan litezkeen beste interesdun batzuek berraztertze-errekurtsoa jar dezakete, noiznahi, araudi espezifikokoaren arabera presuntziozko egintza gertatu eta biharamunetik aurrera.

2. Errekurtsoaren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabete izango da.

3. Berraztertze-errekurtsoaren ebazpenaren aurka ezin da berriz berraztertze-errekurtsorik jarri.

4. atala *Berrikuspen-errekurtso berezia*

125. artikulua. *Xedea eta epeak.*

1. Administrazio-bidetik irmoak diren egintzen aurka, berrikuspen-errekurtso berezia aurkez dakioke egintza horiek eman zituen administrazio-organoari, ebazteko eskumena ere hark izango baitu, baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

a) Egintza ematean egiteko okerren bat gertatzea, espedienteari erantsitako dokumentuei lotua.

b) Gaia ebazteko funtsezko balioa duten dokumentuak agertzea, ebazpen errekurrituaren okerra agerian uzten dutenak, geroago bada ere.

c) Ebazpenean funtsezko eragina izan zuten zenbait dokumentu edo lekukotasun faltsuak zirela deklaratzeko epai judizial irmo batek, ebazpenaren aurretik edo ondoren.

d) Prebarikazio, funtzionario-eroskeria, indarkeria, iruzurrezko azpikeria edo bestelako jokaera zigorgarri baten ondorioz ematea ebazpena, eta epai judizial irmo batek hala deklaratzeko.

2. Berrikuspen-errekurtso berezia, aurreko zenbakiko a) kasuan, ebazpen aurkaratua jakinarazi ondorengo lau urteko epean jarriko da. Gainerako kasuetan, epea hiru hilabetekoa izango da, dokumentuen berri izaten denetik edota epai judiziala irmoa denetik hasita.

3. Artikulu honetan ezarritakoak ez du eragotziko interesdunek eskubidea izatea lege honen 106. eta 109.2 artikuluetan jasotako eskaera eta instantzia egiteko, eta haiek bideratuak eta ebatziak izateko.

126. artikulua. *Ebazpena.*

1. Errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak, Estatu Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emailearen irizpen beharrik gabe, eta erabaki hori hartzeko arrazoiak azalduta, errekurtsoa izapidetzeko eskaera ez onartzea erabaki dezake honako kasu hauetan: errekurtsoa aurreko artikuluko lehen zenbakian aurreikusitako arrazoietakoren batean oinarritzen ez denean edo oinarri berdintsuko beste eskaera batzuk funtsari dagokionez ezetsita daudenean.

2. Berrikuspen-errekurtso berezia ebazteko ardura duen organoak erabaki behar du, bai errekurtsoaren egokitasunaz, bai, egokia bada, egintza errekurrituaren bidez ebatzitako arazoaren funtsaz.

3. Berrikuspen-errekurtso berezia aurkeztu eta hiru hilabetean ebazpena eman eta jakinarazi ez bada, errekurtsoa ezetsizat joko da, eta zabalik geratuko da administrazioarekiko auzien jurisdikzioko bidea.

VI. TITULUA

Legegintza-ekimena eta erregelamenduak eta bestelako xedapenak emateko ahala

127. artikulua. *Legegintza-ekimena eta lege-mailako arauak emateko ahala.*

Nazioko gobernuak Konstituzioan aurreikusitako legegintza-ekimena baliatuko du, lege-aurreproiektuak prestatuz eta onetsiz eta gero lege-proiektuak Gorte Nagusietara igorri.

Autonomia-erkidegoetako gobernu-organoei Konstituzioan eta beren autonomia-estatuetan ezarritako moduan baliatuko dute legegintza-ekimena.

Nazioko gobernuak, halaber, errege lege-dekretuak eta legegintzako errege-dekretuak onetsi ahal izango ditu, Konstituzioan aurreikusitako moduan. Autonomia-erkidegoetako gobernu-organoei, berriz, aurrekoen baliokide diren arauak onetsi ahal izango dituzte beren lurralde-eremuan, Konstituzioan eta beren autonomia-estatuetan ezarritakoarekin bat etorri.

128. artikulua. *Erregelamenduak egiteko ahala.*

1. Erregelamenduak egiteko ahala baliatzea hauei dagokie: nazioko gobernuari, autonomia-erkidegoetako gobernu-organoei, beren estatuetan ezarritakoaren arabera, eta tokiko gobernu-organoei, Konstituzioan, autonomia-estatuetan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean aurreikusitakoaren arabera.

2. Administrazioaren erregelamenduek eta xedapenek ezin dituzte urratu Konstituzioa edo legeak, eta ezin dute erregulatu Konstituzioak edo autonomia-estatutuek Gorte Nagusien edo autonomia-erkidegoetako legebiltzarren eskumenekotzat jotako gairik. Hargatik eragotzi gabe legearekiko duten garapen- eta elkarlan-eginkizuna, ezin izango dute delitu, falta edo arau-hauste administratiborik tipifikatu, zigor edo zehapenik ezarri, ez eta tributu, ordainarazpen parafiskal edo izaera publikoko beste karga edo prestazio pertsonal edo ondarezkorik ere.

3. Legeek ezarritako hierarkia-hurrenkerari lotuko zaizkio administrazio-xedapenak. Administrazio-xedapenek ezin dute urratu goragoko mailako manurik.

129. artikulua. *Erregulazio onaren printzipioak.*

1. Legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean, administrazio publikoek printzipio hauen arabera jokatu behar dute: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Zioen azalpenean edo atarikoan –lege-aurreproiektua den edo erregelamendu-proiektua– behar bezala justifikatu beharko da printzipio horiei lotzen zaiela.

2. Premia- eta efikazia-printzipioen arabera, araugintza-ekimenak interes orokorreko arrazoi batekin justifikatuta egon behar du, lortu nahi diren xedeen definizio argi batean oinarritua izan, eta haiek lortuko direla bermatzeko tresnarik egokiena izan.

3. Proportzionaltasun-printzipioaren arabera, proposatzen den ekimenak arauarekin bete nahi den premiari erantzuteko ezinbestekoa den erregulazioa izan beharko du, eta egiaztatu beharko da, lehenago, ez dagoela beste neurririk eskubideak gutxiago murriztuko dituenik edo xede diren pertsonen betebeharrak gutxiago ezarriko dienik.

4. Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, araugintza-ekimena gauzatzean koherentzia gorde behar da gainerako ordenamendu juridikoarekin, izan Espainiakoa zein Europar Batasuneko, araugintza-esparru egonkor, aurreangarri, integratu, argi eta segurtasuneko bat sortzeko, eta erraztasunak emango dituen ezagutzarako eta ulermenerako eta, ondorioz, pertsonen eta enprekin jarduteko eta erabakiak hartzeko.

Administrazio-prozeduraren gaian araugintza-ekimenak izapide gehigarriak edo lege honetan aurreikusitakoek bestelakoak ezartzen dituenen, haiek justifikatu beharra dago gaiaren berezitasunagatik edo proposamenean lortu nahi diren xedeengatik.

Lege baten erregelamendu-garapenerako gaikuntzak, oro har, dagokion gobernuari edo gobernu-kontseiluari emango zaizkio. Salbuespenekoa izango da zuzenean

Gobernuko ministerioen edo kontseilaritzen titularrei esleitzea, edo haien mendeko edo haiei subordinatutako beste organo batzuei, eta esleipen hori justifikatu egin beharko da gaikuntza ematen duen legean.

Legeek gaikuntza eman ahal izango diete zuzenean agintaritzaren independente batzuei edo ahal hori esleitua duten beste organismo batzuei, legeok garatzeko edo aplikatzeko arauak onesteko, gaiak hala eskatzen duenean.

5. Gardentasun-printzipioa aplikatuz, administrazio publikoek erraztasunak emango dituzte irispide erraza, unibertuala eta eguneratua izan dadin indarrean den araudia eta hura prestatzeko prozesuari dagozkion dokumentuak eskuratzeko, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan ezarritako moduan; argi definituko dituzte araugintza-ekimenen helburuak eta justifikazioa, arauen atarikoan edo zioen azalpenean; eta aukera emango dute hartzaile izan daitezkeenek parte-hartze aktiboa izan dezaten arauen prestakuntzan.

6. Efizientzia-printzipioa aplikatuz, araugintza-ekimenak saihestu egin behar ditu karga administratibo alferrikakoak edo ezinbesteko ez direnak, eta baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatu aplikatzeko orduan.

7. Araugintza-ekimenak uneko edo etorkizuneko diru-sarrera edo -gastu publikoei eragiten dienean, zenbatetsi eta balioetsi egin beharko dira eragin eta ondorio horiek, eta aintzat hartu aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioak bete beharra.

130. artikulua. *Arau-ebaluazioa eta indarrean den araudia erregulazio onaren printzipioei egokitzea.*

1. Administrazio publikoek berrikusi egingo dute aldian behin beren araudia, erregulazio onaren printzipioetara egokitzeko eta egiaztatzeko ea indarrean diren arauak lortu dituzten aurreikusitako helburuak eta ea justifikatuta eta egoki zenbatetsita zeuden haietan ezarritako kostu eta kargak.

Ebaluazio horren emaitza txosten batean jasoko da, eta txosten hori publiko egingo da, dagokion administrazioaren araudi erregulatuzaileak erabakitzen duen xehetasunarekin, maiztasunarekin eta organoaren bidez.

2. Administrazio publikoek sustatu egingo dute erregulazio onaren printzipioak aplikatzea, eta laguntza emango dute araugintzaren analisi ekonomikoa susta dadin eta, bereziki, ez dadin justifikaziorik gabeko edo neurritz gabeko murrizketarik ezarri jarduera ekonomikoan.

131. artikulua. *Arauk publiko egitea.*

Lege-mailako arauak, erregelamenduak eta administrazio-xedapenak dagokion aldizkari ofizialean argitaratu beharko dira indarrean jartzeko eta ondorio juridikoak izateko. Horretaz gain, aukerako moduan, beste argitarabide osagarri batzuk ezarri ahal izango dituzte administrazio publikoek.

Egunkari edo aldizkari ofizialak administrazio, organo, organismo publiko edo entitate eskudunaren egoitza elektronikoetan argitaratzeak edizio inprimatuaren ondorio berak izango ditu, administrazio publiko bakoitzak erabakitzen dituen baldintzetan eta bermekin.

Estatuko Aldizkari Ofiziala organismo eskudunaren egoitza elektronikoan argitaratzeak izaera ofiziala eta autentikoa izango du erregelamenduz erabakitzen diren baldintzetan eta bermekin, eta argitaratze horretatik Kode Zibilaren atariko tituluan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

132. artikulua. *Arau-plangintza.*

1. Urtez urte, administrazio publikoek argitara emango dute araugintza-plan bat, eta hartan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorriko diren lege- edo erregelamendu-ekimenak.

2. Onetsitakoan, Urteko Araugintza Plana argitaratu egingo da, dagokion administrazio publikoaren gardentasun-atarian.

133. artikulua. *Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea.*

1. Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

2. Ekimenaren testua idatzi aurreko kontsultaren kalterik gabe, arauak pertsonen eskubide eta interes legitimoak eragiten dituzten zuzendaritza-zentro eskudunak dagokion webgunean argitaratuko du testua, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko. Era berean, zuzenean eska dakieke iritzia arauaren eraginez beren eskubide edo interes legitimoak ukitzen zaizkien pertsonak biltzen edo ordezkatzeko dituzten eta beren helburuak arauaren xedearekin zerikusi zuzena duten antolakunde edo elkarte legez aitortuei.

3. Artikulu honetan araututako kontsulta, entzunaldia eta informazio publikoa halako moldez egin beharko dira non arauaren hartzaile potentzialek eta hari buruz ekarpenak egiten dituztenek beren iritzia emateko aukera izango baitute. Horretarako, haien esku jarri beharko dira behar diren dokumentuak; dokumentu argiak, zehatzak eta gaiari buruz iritzia emateko informazio guztia biltzen dutenak.

4. Artikulu honetan aurreikusitako kontsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egin gabe utz daitezke Estatuaren Administrazio Orokorren, administrazio autonomikoaren, toki-administrazioaren edo haien mendeko edo haiei lotutako antolakundeen aurrekontuei edo antolaketari buruzko arauetan edo hala justifikatzen duten interes publikoko arrazoi astunak daudenean.

Arau-proposamenak jarduera ekonomikoan eragin nabarmenik ez daukanean, xede dituen hartzaileei betebeharrak ezartzen ez dituzten edo gai baten alderdi partzialak arautzen dituztenek, egin gabe utz daitezke artikulu honen lehenengo zenbakian araututako kontsulta publikoa. Administrazio batek legegintza-ekimena edo erregelamenduak egiteko ahalgaia baliatzea erregulatzen duen araudiak aurreikusten badu prozedura horiek presaz izapidetu behar direla, horregatik izapidea kenduz gero hartan dioenari jarraituko zaio.

Lehen xedapen gehigarria. *Gaiaren ondoriozko berezitasunak.*

1. Gaia dela-eta bereziak diren legeetan erregulatutako administrazio-prozedurek, lege honetan aurreikusitako izapideetako bat eskatzen ez badute edo izapide gehigarriak edo bestelakoak erregulatzen badituzte, lege berezi horietan xedatutakoari jarraituko diote.

2. Honako jarduketa eta prozedura hauek araudi espezifikoari jarraituko diote eta, modu osagarrian, lege honetan xedatutakoari.

- a) Tributu- eta aduana-gaietan tributuak aplikatzeari buruzko jarduketak eta prozedurak, eta halaber haiek administrazio-bidean berrikustea.
- b) Gizarte Segurantzaren eta Langabeziaren gaietako kudeaketa, ikuskaritza, likidazio, diru-bilketa, aurkaratze eta berrikuspenari buruzko jarduketak eta prozedurak.
- c) Tributu- eta aduana-gaietako, lan-arloko, trafikoaren eta bide-segurtasunaren arloko eta atzerriartasunaren arloko jarduketa eta zehapen-prozedurak.
- d) Atzerriartasun- eta asilo-gaietako jarduketak eta prozedurak.

Bigarren xedapen gehigarria. *Autonomia-erkidegoak eta toki-entitateak Estatuaren Administrazio Orokorren plataforma eta erregistroetara atxikitzea.*

Ahalordetzeen erregistro elektronikoiari, erregistro elektronikoiari, artxibo elektronikoiari, datu-bitartekaritzako plataformari eta Administrazioaren Irispide Puntu Elektronikoiari buruz aurreikusitakoa betetzeko, autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek aukera izango dute beren borondatez eta bitarteko elektronikoz atxikitzeko hartarako Estatuaren Administrazio Orokorrek ezarritako plataforma eta erregistroetara. Ez atxikitzea efizientzia-irizpideetan oinarrituta justifikatu beharko dute, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 7. artikulua araberara.

Autonomia-erkidego batek edo toki-entitate batek Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren aurrean justifikatzen badu modu efizienteago batean eman dezakeela zerbitzua, aurreko paragrafoan adierazitako irizpideen araberara, eta erabakitzen badu bere erregistro edo plataformari eustea, aipatutako administrazioek bermatu beharko dute betetzen dituela Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalaren eta Segurtasunaren Eskema Nazionalaren betekizunak eta haren garapen-arau teknikoak, halako moldez non bermatuko baita haren bateragarritasun informatikoa eta elkarrekiko konexioa, eta orobat dagozkion erregistro eta plataformetan egiten diren eskaera, idazki eta komunikazioen transmisio telematikoa.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidezko jakinarazpena.*

1. *Estatuko Aldizkari Ofizialak* administrazio publikoen esku jarriko du bidalketa eta kudeaketa telematikorako sistema automatizatu bat, haren bitartez argitaratzeko lege honen 44. artikuluan eta xedapen gehigarri honetan aurreikusitako jakinarazpen-iragarkiak. Sistema horrek lege honetan eta Legea garatzeko araudian ezarritakoa bete beharko du, eta bermatu beharko du argitalpenaren bizkortasuna, iragarkiaren txertatze egoki eta leiala, eta organo igorlearen identifikazioa.

2. Araudi espezifikoak duten administrazio-prozeduren kasuan, lege honen 44. artikuluan aurreikusitako kasuak gertatzen badira, jakinarazpena beti *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratutako iragarki baten bidez egingo da, hargatik eragotzi gabe aurrez eta aukerako moduan araudi espezifiko horretan aurreikusitako moduan egitea.

3. Aurreko bi paragrafoetan aipatzen diren iragarkiak *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzean, hori eskatzen dutenek ez dute ezer ordaindu behar.

Laugarren xedapen gehigarria. *Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoak.*

Administrazio publikoek etengabe eguneraturik eduki behar dute, dagokion egoitza elektronikoiaren, direktorio geografiko bat, interesdunari ahalbidetuko diona bere egoitzatik gertuen duen erregistro-gaietan laguntzeko bulegoa zein den jakitea.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Estatuko organo konstituzionalen eta legegintza- eta kontrol-organoen autonomikoen administrazio-jarduketak.*

Diputatuen Kongresuko, Senatuko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko, Konstituzio Auzitegiko, Kontuen Auzitegiko, Herriaren Defendatzaileko, autonomia-erkidegoetako legebiltzarretako eta Kontuen Auzitegiaren eta Herriaren Defendatzailearen gisako autonomia-erakundeetako organo eskudunen administrazio-jarduketak haien araudi espezifikoari jarraituko dio, lege honen araberara administrazio-jarduketa oinarritzen duten printzipioen esparruan.

Lehen xedapen iragankorra. *Dokumentuak artxibatzea.*

1. Lege hau indarrean jarri aurretik hasitako administrazio-prozedurei dagozkien dokumentuak artxibatzeari dagokionez, aurreko araudian ezarritakoari jarraituko zaio.

2. Lege hau indarrean jarri baino lehen amaitutako administrazio-prozedurei lotutako paperezko dokumentuak, ahal den guztietan, digitalizatu egin behar dira, aplikatzekoa den araudi erregulatzailean ezarritako betekizunen arabera.

Bigarren xedapen iragankorra. *Erregistro elektronikoa eta artxibo elektronikoa bakarra.*

Erregistro elektronikoi eta artxibo elektronikoi bakarrari buruzko xedapenak indarrean jartzen ez diren bitartean, erregela hauek aplikatuko dira Estatuaren Administrazio Orokorraren eremuan.

a) Legea indarrean jarri ondorengo lehen urtean, eutsi ahal izango zaie lege hau indarrean sartzean egon badauden erregistro eta artxiboei.

b) Legea indarrean jarri ondorengo bigarren urtean, gehienez ere erregistro elektronikoi bat eta artxibo elektronikoi bat izango da ministerio bakoitzeko, eta erregistro elektronikoi bat organismo publiko bakoitzeko.

Hirugarren xedapen iragankorra. *Prozeduren araubide iragankorra.*

a) Lege hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurei ez zaie aplikatuko lege hau, eta, beraz, aurreko araudiari jarraituko zaio halakoetan.

b) Lege hau indarrean jarri ondoren hasitako ofizioz berrikusteko prozedurak lege honetan ezarritako moduan bideratuko dira.

c) Lege hau indarrean jarri ondoren emandako egintza eta ebazpenek lege honetan ezarritako errekurso-araubidea izango dute.

d) Lege hau indarrean jartzean betearazteke dauden egintza eta ebazpenek, betearazpenari dagokionez, eman zirenean indarrean zen araudiari jarraituko diote.

e) Dagozkion lege- eta erregelamendu-xedapenetan aurreikuspen espresurik ez bada, administrazio-prozeduraren arloan sortzen diren zuzenbide iragankorreko arazoak aurreko puntuetan ezarritako printzipioen arabera ebartziko dira.

Laugarren xedapen iragankorra. *Artxiboen, erregistroen eta irispide-puntu orokorraren araubide iragankorra.*

Ahalordetzeen erregistro elektronikoi, erregistro elektronikoi, Administrazioaren Iripide Puntu Elektronikoi Orokorrari eta artxibo elektronikoi bakarrari buruzko xedapenak indarrean jartzen ez diren bitartean, administrazio publikoek gai horiei buruz indarrean diren kanal, bitarteko edo sistema elektronikoi berak mantenduko dituzte, pertsonak administrazioekiko harremana elektronikoki izateko duten eskubidea bermatzeko.

Bosgarren xedapen iragankorra. *Bosgarren xedapen iragankorra. Arau bat Konstituzioaren kontrako edo Europar Batasuneko zuzenbidearen kontrako deklaratzetik eratorritako ondare-erantzukizuneko prozedura.*

Arau bat Konstituzioaren kontrako edo Europar Batasuneko zuzenbidearen kontrako deklaratzetik eratorritako ondare-erantzukizuneko prozedurak, lege hau indarrean jarri aurretik hasita badaude, hasi zirenean indarrean zen araudiaren arabera ebartziko dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arau-indargabetzea.*

1. Indargabeturik geratzen dira lege honetan xedatutakoarekin kontraesanean dauden edo haren aurka doazen maila bereko edo apalagoko arauak.

2. Espresuki indargabeturik geratzen dira xedapen hauek:

a) 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.

b) 11/2007 Legea, ekainaren 22koa, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa.

c) Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 4. artikulutik 7. era bitartekoak.

d) 429/1993 Errege Dekretua, martxoaren 26koa, administrazio publikoek ondare-erantzukizunari buruzko prozeduren erregelamendua onesten duena.

e) 1398/1993 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, Zehatzeko Ahala Baliatzeko Prozeduraren Erregelamendua onesten duena.

f) 772/1999 Errege Dekretua, maiatzaren 7koa, zeinaren bidez arautzen baita Estatuaren Administrazio Orokorraren aurrean eskaerak eta idazkiak eta komunikazioak aurkeztea, dokumentuen kopiak egitea eta jatorrizkoak itzultzea eta erregistro-bulegoen araubidea.

g) Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izatear buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea partez garatzen duen azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretutik: 2.3, 10, 13, 14, 15, 16, 26, 27, 28, 29.1.a), 29.1.d), 31, 32, 33, 35, 36, 39, 48 eta 50. artikulua, lehen xedapen gehigarriaren 1., 2. eta 4. zenbakiak, hirugarren xedapen gehigarria, lehen xedapen iragankorra, bigarren xedapen iragankorra, hirugarren xedapen iragankorra eta laugarren xedapen iragankorra.

Lege honen azken xedapenetatik zazpigarrenak diotenaren arabera ahalordetzeen erregistro elektronikoari, erregistro elektronikoari, Administrazioaren Irispide Puntu Elektroniko Orokorrari eta artxibo elektroniko bakarrari buruzko xedapenek ondorioak izaten dituzten bitartean, indarrean jarraituko dute aipatutako gaiei buruz a), b) eta g) letretan aurreikusitako arauen artikulua.

3. Espresuki indargabetutako xedapenei buruz indarrean dauden arauetan egindako aipamenak lege honetan arlo hori bera arautzen duten xedapenei egindakotzat hartu behar dira.

Azken xedapenetatik lehena. *Eskumen-titulua.*

1. Lege hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan xedatutakoaren babesean onetsi da, zeinak Estatuari eskumena esleitzen baitio administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak emateko, eta orobat esleitzen baitio eskumena administrazio-prozedura erkidearen eta administrazio publiko guztien erantzukizun-sistemaren gain.

2. VI. titulua, legegintza-ekimenari eta erregelamenduak eta bestelako xedapenak emateko ahalmenari buruzkoa, eta bigarren xedapen gehigarria, autonomia-erkidegoak eta toki-entitateak Estatuaren Administrazio Orokorraren plataforma eta erregistroetara atxikitzeari buruzkoa, 149.1.14 artikuluan Ogasun orokorrari buruz xedatutakoaren babesean onetsi dira, eta 149.1.13 artikulua arabera, Estuari eskumena esleitzen baitio jardura ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren gain.

3. Estuaren Administrazio Orokorrari soilik aplikatzekoak izango dira 92. artikulua lehenengo paragrafoan, 111. artikulua eta 114.2 artikulua eta bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoa, eta orobat aplikazio-eremu eskusibotzat Estuaren Administrazio Orokorra aipatzen duten manuen gainerako atalak.

Azken xedapenetatik bigarrena. *Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legea aldatzea.*

Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean, 3. artikuluar 11. zenbaki bat gehitzen zaio, honela idatzia:

«11. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean jasota dauden identifikaziorako eta sinadura elektronikorako sistema guztiek ondorio juridiko beteak izango dituzte.»

Azken xedapenetatik hirugarrena. *Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legea aldatzea.*

Honela idatzita geratzen da 36/2011 Legea, urriaren 10ekoa, gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duena:

Bat. Honela idatzita geratzen da 64. artikulua:

«64. artikulua. *Salbuespenak proposatutako adiskidetzean edo bitartekaritzan.*

1. Adiskidetze-ahaleginetik edo, hala badagokio, bitartekaritzatik salbuetsita geratzen dira administrazio-bidea agortzea eskatzen duten prozesuak, Gizarte Segurantzari buruzkoak, langileen ordezkariak kaleratze kolektiboa aurkaratzeari buruzkoak, oporrei buruzkoak eta hauteskunde-gaiak, mugigarritasun geografikoa, lan-baldintzen aldaketa funtsezkoak, arrazoi ekonomiko, tekniko, antolakuntzako edo ekoizpenekoengatik edo ezinbesteko arrazoiengatik kontratua etetea eta lanaldia murriztea, 139. artikuluan jasotako bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko eskubideak, ofizios hasitakoak, hitzarmen kolektiboak aurkaratzekoak, sindikatuen estatutuak edo haien aldaketak aurkaratzeari buruzkoak, oinarritzko askatasunen eta askatasun publikoen babesa, arbitraje-laudoak deuseztatzeko prozesuak, adiskidetze-, bitartekaritza- eta transakzio-akordioak aurkaratzekoak, eta orobat genero-indarkeriatik babesteko lan-arloko akzioak baliatzen direnekoak.

2. Salbuetsita geratzen dira orobat:

a) Estatua edo beste ente publiko bat alderdi demandatua izanik pertsona pribatuak ere demandatuak diren prozesuak, baldin eta uzia administrazio-bidea agortu beharrekoa bada eta bide horretan erabaki baliteke auzia.

b) Prozesuaren edozein unetan, demanda pertsona jakin batzuen kontra zuzendu ondoren, hasieran demandatutakoez beste pertsona batzuei zuzendu edo zabaldu behar den kasuak.

3. Baliatutako uziaren izaeragatik efikazia juridikoa izan badezake lor litekeen adiskidetze- edo bitartekaritza-akordioak, nahiz eta prozesua salbuetsita egon aipatutako aurretiazko ahaleginaren betekizunetik, alderdiek garai egokian jotzen badute borondatez eta elkarren adostasunez halako aurretiazko bideetara, eten egingo dira iraungitze-epeak edo geldiarazi egingo dira preskripzio-epeak, hurrengo artikuluan ezarritako moduan.»

Bi. Honela idatzita geratzen da 69. artikulua:

«69. artikulua. *Lan-arloko auzibidearen aurreko administrazio-bidea agortzea.*

1. Estatua, autonomia-erkidegoak, toki-entitateak edo haien mendeko zuzenbide publikoko entitate nortasun juridiko propiodunak demandatzeko, bete beharreko betekizuna da aurrez administrazio-bidea agortzea, hala dagokionean, aplikatzekoa den administrazio-prozeduraren araudian ezarritakoaren arabera.

Beti ere, administrazio publikoak interesdunei jakinarazi beharko dizkie haien eskubide eta interesei eragiten dieten administrazio-ebazpen eta -egintzak, jakinarazpenean jasorik erabakiaren testu osoa, administrazio-bidetik behin betikoa den ala ez, zer errekurtsio jar daitezkeen, zer organori aurkez dakizkiokeen eta zer epetan egin beharko litzatekeen, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkezteko aukera.

Jakinarazpena egitean egintzaren testu osoa jaso arren bete gabe geratu bada aurreko paragrafoan aipatutako gainerako betekizunetako bat, eten egingo dira iraungitze-epeak eta geldiarazi egingo dira preskripzio-epeak, eta ez dute ondoriorik izango harik eta interesdunak jakinarazpenaren xede den ebazpen edo egintzaren edukia eta irismena zer den badakiela erakusten duen jardueraren bat egiten duen edo egoki den edozein errekurtsio jartzen duen arte.

2. Administrazio-bidea amaitutzat jo behar den datatik aurrera, bi hilabeteko epean formalizatu ahal izango du interesdunak demanda, epaitegi edo sala eskudunaren aurrean. Demandarekin batera aurkeztu behar da ebazpen ezeselearen kopia edo administrazio-errekurtsoa jarri edo ebatzi dela egiaztatzen duen dokumentua, zer dagokion, eta horren guztiaren kopia gehitu behar da entitate demandatuentzat.

3. Kaleratzeetatik eratorritako akzioetan eta iraungitze-epea duten gainerako akzioetan, demanda jartzeko epea hogeitun egun baliodunekoa edo aplikatzekoa den berezia izango da, egintza edo aurkaratutako ebazpenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbaturik, edo administrazio-bidea agorturik jo behar denetik aurrera gainerako kasuetan.»

Hiru. Honela idatzita geratzen da 70. artikulua:

«70. artikulua. *Salbuespenak administrazio-bidea agortzeari dagokionez.*

Ez da beharrezko izango administrazio-bidea agortzea oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen babeserako demanda jarri nahi bada administrazio publikoek lan-arloan eta sindikatuen arloan dituzten ahalak baliatuz gauzatutako egintzen aurka, baina demanda jartzeko epea hogeitun egunekoa izango da, egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita edo ebazteko ezarritako epea amaitu eta biharamunetik hasita, beste izapiderik gabe; oinarrizko eskubidearen kaltea administrazioaren jarduterik ezetik edo egitate-bideko jokaera batetik baldin badator, hogeitun eguneko epea jarduterik ezaren edo egitate-bidearen kontrako erreklamaziotik hogeitun egun igarotakoan hasiko da, edo administrazio-errekurtsoa aurkezten denetik hogeitun egun igarotakoan.»

Lau. Honela idatzita geratzen da 72. artikulua:

«72. artikulua. *Gizarte Segurantzako prestazioen gaiko aurretiazko erreklamazio administratiboarekiko edo aurretiazko administrazio-bidearekiko lotura.*

Prozesuan, alderdiek ezin izango dute aldaketa funtsezkorik egin administrazio-prozeduraren eta interesdunen edo Administrazioaren jarduketan xede diren denbora, zenbateko edo kontzeptuei buruz, izan Gizarte Segurantzako prestazioen gaiko aurretiazko erreklamazioaren fasean edo izan administrazio-bidea agortzen duen errekurtsoren fasean, ez bada egitate berri edo lehenago ezin jakin izan ziren batzuei buruz.»

Bost. Honela idatzita geratzen da 73. artikulua:

«73. artikulua. *Aurretiazko erreklamazio administratiboaren ondorioak Gizarte Segurantzako prestazioen gain.*

Gizarte Segurantzako prestazioen gaiko aurretiazko erreklamazioak geldiarazi egingo ditu preskripzio-epeak, eta eten egingo ditu iraungitze-epeak; bigarren horiek ebazpena jakinarazi ondorengo egunean jarraituko dute, edo hura ezetsizat ulertu behar den epea igaro ondorengoan.»

Sei. Honela idatzita geratzen da 85. artikulua:

«85. artikulua. *Epaiketa.*

1. Adiskidetzan adostasunik ez badago, epaiketara pasatuko da, eta jardundakoaren kontu emango da.

Lehenago ebatziko dira, arrazoiturik, ahoz eta alderdiei entzunik, egintza horretan formula litezkeen aurretiazko arazoak, eta orobat ebazteko dauden errekurtsuak edo bestelako gorabeherak, hargatik eragotzi gabe geroago labor funtsatzea epaian, egoki bada. Orobat entzungo zaie alderdiei eta, hala badagokio,

bidezko dena ebatziko da, arrazoiturik eta ahoz, epaileak edo auzitegiak une horretan bere eskumenaz planteatzen diren arazoei, demandaren aurrekontuei edo formulatutako uziaren irismenari eta mugeri dagokienez, alderdien berme prozesalak errespetatuz eta gaiaren funtsaz aurrejuzgurik egin gabe.

Gero, demandatzaileak berretsi edo zabaldu egingo du bere demanda; ezein kasutan ezin izango du hartan aldaketa funtsezkorik egin.

2. Demandatuak demandako egitateak zehazki baieztatuz edo ukatuz erantzuniko du, eta egoki deritzon salbuespen guztiak alegatuz.

3. Errekonbentzioa formulatzeko aukera izateko, iragarri egin behar da hura prozesuaren aurreko adiskidetzeari edo Gizarte Segurantzako prestazioen gaiko aurreiazko erreklamazioaren erantzunean edo administrazio-bidea agortzen duen ebazpenean, eta funtsean adierazia izan behar da zer egitate oinarritzen den eta zer eskaera zehatz egiten den. Ez da onartuko errekonbentzioa baldin eta: organo judiciala ez bada eskudun; baliatzen den akzioa bestelako modalitate prozesal batean argitu behar bada eta akzioa ez bada metagarria; eta ez badago loturarik haren uziaren eta demanda nagusiaren xede diren uzien artean.

Ez da beharrezko izango errekonbentzioa zorren konpentsazioa alegatzeko, betiere epe kanpokoak eta galdagarriak badira eta ez bada errekonbentzio-kondenaren uzirik aurkezten, eta oro har demandatuak aurkezten duen uziaren xede bakarra demanda nagusiaren gai den uziaren edo uzien absoluzioa jasotzea bada; aski izango da demandaren erantzunean alegatzea. Betebeharrak epailearen erabakia eskatzen badu, ez delako likidoa, epailetaren aurretik, zehazki adierazi behar dira salbuespen funtsatzen duten egitateak eta zorra likidatzeko modua, eta, halaber, hura iragarri behar da aurreiazko adiskidetze edo bitartekaritzan, edo Gizarte Segurantzako prestazioen gaiko erreklamazioan edo administrazio-bidea agortzen duen ebazpenean. Errekonbentzioa aurkeztutakoan, gainerako alderdiei helaraziko zaie, demandan ezarritako moduan erantzun dezaten. Helarazteko izapide bera erabakiko da salbuespen prozesalei erantzuteko, halakorik alegatzen bada.

4. Alderdiek hitza hartuko dute epaileak edo auzitegiak beharrezko irizten dion bezainbeste aldiz.

5. Era berean, ekitaldi honetan, alderdiek egoki deritzoten guztia alegatu ahal izango dute 191. artikularen 3. zenbakiko b) letran xedatutakoari dagokionez, eta beren alegazioak funtsatzeko behar diren irizpen-elementuak eskainiko dituzte une prozesal egokirako. Ez da frogarik aurkeztu beharrik izango, gai jakin horri buruz, prozesuaren izaeratik nabarmena baldin bada langile edo onuradun askori eragiten diela.

6. Ez bada arazo prozesalik planteatzen edo, planteatu direlarik, erantzun bazea, alderdiek edo haien defentsariek auzitegiarekin finkatuko dute zer egitate inguruan dagoen auzilarien adostasuna edo desadostasuna. Beharrezko bada, aktan edo hala badagokio eginbidez jasoko da adostasuna dagoen puntuen aipamen laburra, geroagoko errekurtsioen ondorioetarako. Orobat eskaini ahal izango dituzte alderdiek zenbakizko datuen kalkulu edo laburpen gisako ohar batzuk.

7. Amore-emate oso edo partzialaren kasuan, jurisdikzio-organismoak onetsiko du, gainerako alderdiei entzunik, ez bada gertatu eskubideei uko egin zaiela hori debekatua delarik, edo lege-iruzurra edo hirugarren batzuentzako kaltea, edo ez bada interes publikoaren kontrakoa. Ebazpen bidez erabakiko da, eta ahoz eman ahal izango da ebazpen hori. Amore-ematea osoa bada, kondena-epaia emango da, auzi-jartzailearen uzien arabera. Amore-ematea partziala bada, oneste-autoa eman ahal izango da, eta behin-behineko betearazpen partzialaren izapideen bitartez gauzatu ahal izango da hura, betiere amore-ematearen xede diren uzien izaeratik posible bada irizpen bereizi bat adieraztea amore eman ez den gainerako arazoaren aurrejuzgurik egiten ez duena, haiei buruz jarraitu egingo baitu epailetak.

8. Epaille edo auzitegiak, froga egindakoan baina ondorioak baino lehen, alderdietakoren bat kontra ez badago, proposatu ahal izango du akordio batera iristea, eta akordio hori lortu ezean jarraitu egingo du epaiketak.»

Zazpi. Honela idatzita geratzen da 103. artikulua:

«103. artikulua. *Kaleratze-demanda aurkeztea.*

1. Langileak kaleratzearen kontrako erreklamazioa aurkeztu ahal izango du kaleratzea gertatu ondorengo hogeiei egun baliodunen barruan. Epe hori iraungitze-epea izango da ondorio guztietarako, eta ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta jurisdikzio-organoaren egoitzan jaiegun direnak.

2. Adiskidetze-papera edo bitartekaritza-eskaera edo kaleratze-demanda jarri bazaio pertsona bati oker baten ondorioz enpresaburutzat jota, eta gerora egiaztatu bada, bai epaiketari edo bai prozesuaren ondorengo uneren batean, hirugarren bat zela enpresaburua, langileak beste demanda bat jarri ahal izango du haren aurka, edo demanda zabaldu ahal izango du epaiketa artean egin gabe badago, eta iraungitze-epearen zenbaketa ez da hasiko harik eta enpresaburua nor den erabaki arte.

3. Kapitulu honetako arauak aplika dakizkieke enpresaburuen kontratu-azkentzeko erabakien aurkaratzeei, behar diren berezitasunekin, hargatik eragotzi gabe 120. artikuluan aurreikusitakoa eta kontratu-azkentze mota bakoitzaren ondorio substantiboak.»

Zortzi. Honela idatzita geratzen da 117. artikulua:

«117. artikulua. *Auzibidearen aurreko administrazio-bidea agortzearen betekizuna.*

1. Izapidetze-aldiko soldatengatik Estatua demandatzeko, aurretiazko betekizuna da administrazio-bidean erreklamazioa ezarritako modu eta epeetan. Erreklamazioa ukatzen bada, enpresaburuak edo, hala badagokio, langileak, dagokion akzioa baliatu dezake kaleratze-prozesuaz auzialdian arduratu zen epaitegiaren aurrean.

2. Demandarekin batera aurkeztu behar da administrazio-ebazpen ezeslearen edo ordainketa-eskaerako orriaren kopia.

3. Akzio horren preskripzio-epea Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 59. artikuluko 2. zenbakian aurreikusitakoa da, eta epearen zenbaketa hasiera, enpresaburuak egindako erreklamazioaren kasuan, izapidetze-aldiko soldatak ordaintzeak eragindako ondare-galera jasaten duen unean izango da; langileak egindako erreklamazioaren kasuan, berriz, enpresaburua kaudimengabe dela deklaratu duen auto judiziala jakinarazten zaion data.»

Azken xedapenetatik laugarrena. *Arau-erreferentziak.*

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeari egindako erreferentziak Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari edo Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeari egindakotzat joko dira, zer dagokion.

Azken xedapenetatik bosgarrena. *Arau-egokitzapenak.*

Lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, egokitu egin beharko dira lege honetan aurreikusitakoarekin bateraezinak diren Estatuko, erkidegoetako eta tokiko prozeduren erregulazio-arauak.

Azken xedapenetatik seigarrena. *Legearen arau-garapena.*

Ahalmena ematen zaie Ministro Kontseiluari eta Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako ministroari, zeini bere eskumenen eremuan, lege hau garatzeko beharrezko diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzaten, eta orobat lege honen aurreikuspenak egiazki betearazteko eta ezartzeko behar diren neurriak erabaki ditzaten.

Azken xedapenetatik zazpigarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta urtebetera jarriko da indarrean.

Hala ere, ahalordetzeen erregistro elektronikoari, erregistro elektronikoari, enplegatu publiko gaituen erregistroari, Administrazioaren Irispide Puntu Elektroniko Orokorrari eta artxibo elektroniko bakarrari buruzko xedapenek legea indarrean sartu eta bi urteren buruan izango dituzte ondorioak.

Beraz,

Espainiar guztiei agintzen diet, partikular zein agintari, lege hau gorde eta gordearaz dezatela.

Madriren, 2015eko urriaren 1ean.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY